

# EAEko ekonomiaren urteko txostena 2018

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

[economia@euskadi.eus](mailto:economia@euskadi.eus)

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Saila  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

# Aurkibidea

0.	EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
1.	EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA .....	11
	1.1 Munduko ekonomiaren bilakaera .....	11
	1.2 Analisia herrialdeka .....	16
	1.3 Espainiako ekonomia.....	22
2.	EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA .....	25
	2.1 Barne produktu gordin potentziala .....	25
	2.2 Biztanleko BPGaren bilakaera eta bere determinanteak .....	27
	2.3 Ekoizpen arloak.....	31
	2.4 Eskaria.....	38
	2.5 Atzerriko inbertsioa EAEn .....	56
	2.6 BPGtik harantz .....	58
3.	LAN MERKATUA.....	63
	3.1 Biztanleria eta aktibitatea.....	63
	3.2 Tentsioa lan merkatuan: Beveridgeren kurba .....	73
	3.3 Enpleguaren erregulazioa eta kontratazioa.....	76
4.	PREZIOAK.....	78
	4.1 Deflatoreak .....	78
	4.2 Kontsumo prezioak .....	79
	4.3 Industria prezioak .....	83
	4.4 Soldatak .....	84
5.	LEHIAKORTASUNA ETA LAN KOSTUAK .....	95
	5.1 Produktibitatea.....	95
	5.2 Lan kostu unitario nominalak eta errealak.....	100

6.	ARLO PUBLIKOA.....	104
	6.1 Itundutako zergen diru bilketa .....	104
	6.2 Eusko Jaurlaritzaren jarduera ekonomikoa .....	108
	6.3 EAEko administrazioen ziklo posizioa .....	110
	6.4 Politika publikoak krisian eta susperraldi ekonomikoa .....	113
7.	ARLO FINANTZARIOA.....	119
	7.1 Moneta politika .....	119
	7.2 Truke tasak .....	122
	7.3 Baloreen merkatua.....	124
	7.4 Aurrezkia, kredituak eta gordailuak .....	125
	7.5 Familien finantza egoera .....	130
	7.6 Gizarte aurreikuspena .....	132

## Taulen aurkibidea

1.	Ekonomia eremuen pisua, hazkundea eta ekarpenak .....	2
2.	BPG errearen bilakaera .....	3
3.	EAEko taula makroekonomikoa 7	
4.	EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait.....	8
5.	Ekonomiaren aldagai nagusiak 13	
6.	Munduko ondasunen merkataritza bolumenean eta BPG erreala .....	14
7.	Munduko ondasunen merkataritza eremuka .....	15
8.	Espainiako ekonomiaren taula makroekonomikoa.....	23
9.	Lehen arloko adierazle nagusiak32	
10.	EAEko industriaren BEGaren bilakaera .....	33
11.	Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak .....	35
12.	Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak .....	36
13.	Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka. Bolumenaren indize kateatua .....	37

14.	Errenten adierazleen bilakaera	39
15.	Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera .....	40
16.	Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera .....	41
17.	Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn.....	41
18.	EAEk Europar Batasunera bidalitako esportazioak. 2018 .....	46
19.	Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena. 2018.....	48
20.	EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga .....	50
21.	EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria .....	54
22.	Giza garapenaren indizea .....	58
23.	Eskualdeen aurrerapen sozial indizea .....	60
24.	Enplegua sektoreka .....	66
25.	Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak .....	76
26.	Erregistratutako lan kontratuen bilakaera .....	77
27.	Deflatoreen bilakaera .....	79
28.	Kontsumoko prezioen indizearen banaketa.....	80
29.	EAEko kontsumo prezioen indizea .....	81
30.	EAEko industriako prezioen indizea .....	84
31.	Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	94
32.	Zerga itunduen bilakaera .....	106
33.	Zerga nagusien diru-bilketa (%BPG).....	107
34.	Eusko Jaurlaritzaren eragiketa errealak .....	108
35.	Eusko Jaurlaritzaren eragiketa finantzarioak .....	109
36.	Banku Zentralen interes tasak	120
37.	10 urterako zor publikoaren errendimendua .....	121
38.	Gordailuen bilakaera .....	129

## Irudien aurkibidea

1. EAEko eta munduko ekonomien hazkundera (Urte arteko aldakuntza tasak).....	1
2. BPG errearen eta enpleguaren bilakaera EAEn .....	4
3. EAEko BPGari eginiko ekarpenak.....	5
4. Barne produktu gordina. (Urte arteko aldakuntza tasak) .....	12
5. Herrialde garatu gabeen BPGa. (Urte arteko aldakuntza tasak) .....	17
6. Ekonomia aurreratuen BPGI. Urte arteko aldakuntza tasak (I) .....	19
7. Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak (II) .....	21
8. BPG erreala, BPG potentziala eta bere hazkunderaren faktoreak. 2009-2020 .....	26
9. BPG biztanleko. EAP. EB15=100 .....	27
10. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (I). .....	29
11. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (II). .....	30
12. EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. ....	34
13. Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak.....	38
14. EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko .....	42
15. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan Urte arteko aldakuntza tasak (I)43	
16. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II) .....	44
17. Ondasunen esportazioak eta inportazioak arantzel sekzioka. Ehunekoak.....	45
18. Esportazioak guztira. Frantzia eta Alemania. Egitura .....	47
19. Esportazioak guztira. AEB eta Erresuma Batua. Egitura .....	49
20. Inportazioak guztira Europar Batasuna eta Erresuma Batua. Talde nagusiak. Egitura .....	52
21. Inportazioak guztira. Frantzia eta Alemania. Egitura .....	53
22. EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak .....	55

23. Atzerriko inbertsioa ez ETVE (atzerriko baloreak edukitzeko entitateak). Milioi euro.....	57
24. Eskualdeen ongizate indizea.....	59
25. Pobreziaren edo bazterketa arriskuan dagoen biztanleriaren tasa. 2018.....	61
26. Desberdintasun adierazleak. 2018. ....	62
27. Jarduera tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn .....	64
28. Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak.....	65
29. Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn .....	67
30. Goi mailako hezkuntza maila (30-34 urte bitarteko taldea).....	68
31. Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera .....	69
32. Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko.....	70
33. Lanaldi partziala duten landunek landun guztiekiko .....	71
34. Langabezia tasaren bilakaera EAEn .....	72
35. Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn .....	73
36. Beveridgen kurba 2013-2017 .....	74
37. Desdoikuntza gaitasunen indizea. 2014-2018 .....	75
38. Desdoikuntza gaitasunen indizea. Euskadi 2014-2018.....	75
39. KPIren bilakaera.....	82
40. EAEn eta Eurogunearen arteko inflazio tarteak. 2018ko batez besteko balioak .....	83
41. Soldataren bilakaera. Langileko eta orduko. 2008. urtea=100.....	85
42. Soldaten bilakaera. Langileko eta sexuaren arabera. 2008. urtea=100 .....	86
43. Soldaten bilakaera. Orduko eta sexuaren arabera. 2008. urtea=100 .....	86
44. Soldaten bilakaera. Pertzentilen arabera. 2008. urtea=100.....	88
45. Soldaten bilakaera. Pertzentil 10. 2008. urtea=100 .....	88
46. Soldaten bilakaera. Pertzentil 90. 2008. urtea=100 .....	89
47. Soldaten bilakaera. Emakumeak okupazio mailaren arabera. 2008. urtea=100.....	90
48. Lan kostuak hileko eta langileko. Euroak, 2018ko batez bestea .....	91
49. Lan kostu guztiak langileko. Sektoreak . Urte arteko aldakuntza tasak .....	92
50. Lan kostu guztiak langileko. Sektoreak. Alderaketa .....	92
51. Lan kostu nominalak orduko. 2017=100 .....	93
52. Produktibitatea orduko (euroak/orduko). 2018.....	96
53. Produktibitatea lan ordu bakoitzeko 2007- 2018. 2007=100. Indizeak.....	97
54. Produktibitatea lan ordu bakoitzeko 2007- 2018. 2007=100. Urte arteko aldakuntza tasak .....	97
55. Produktibitatea landuneko (epearen batez bestekoa).....	98
56. Lan produktibitatea langileko. Manufakturak. 2007- 2018. Indizeak.....	99
57. Produktibitatea langileko. Manufakturak. 2008- 2018. Urte arteko aldakuntza tasak .....	100
58. Lan kostu unitario nominala orduko. 2007. urtea=100 .....	101
59. Lan kostu unitario nominala. Manufakturak. 2007-2018. 2007. urtea=100 .....	102
60. Lan kostu unitario erreala orduko. 2007. urtea=100.....	103

61. Itundutako zergen diru bilketa eta BPG nominala. Urte arteko aldakuntza tasak eta %BPG .....	107
62. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu saldoaren banaketa 1987-2018. BPGaren %.....	110
63. Administrazio autonomoaren aurrekontu saldoaren banaketa 1987-2018. BPGaren %.....	111
64. Eusko Jaurlaritzaren zor publikoaren bilakaera.....	112
65. Eusko Jaurlaritzaren gastuaren bilakaera. 2007-2018. BPGaren %.....	115
66. Eusko Jaurlaritzaren gastuen banaketa funtzionala. 2007-2018. Banaketa portzentuala .....	116
67. EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko .....	123
68. Barne aurrezki gordinaren eta etxebizitzaren prezioen bilakaera.....	126
69. Kredituen eta gordailuen alderaketa. BPGaren %.....	127
70. Kredituen bilakaera .....	128
71. Etxebizitzaren hipoteken bilakaera. Mila .....	130
72. Interes tasen bilakaera .....	131
73. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) .....	132




## 0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

**E**AEko ekonomiak beste urtebete batez eman zion jarraipena azken ziklo ekonomikoan jasotzen ari den hazkunde biziko ibilbideari eta 2018an, urteko batez bestekoan, %2,8ko gehikuntza tasa lortu zuen. Zenbaki hori aurreko urtean eskuratutakoa baino hamarren bakar bat txikiagoa da eta lau urte kateatu ditu jadanik %3,0aren inguruko balioak jasotzen. Hala eta guztiz ere, urteko tasa horietatik eratortzen den itxurazko egonkortasunak ekonomiaren moteltze esanguratsua iradokitzen duen hiruhilekoko bilakaera bat ezkututzen du. Antzeko prozesu bat hauteman da munduko herrialde eta eremu ekonomiko nagusietan ere.

### EAEko eta munduko ekonomien hazkundea (Urte arteko aldakuntza tasak)

#### 1. irudia



Iturria: Eustat eta NDF.

Oro har, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) eskaini duen informazioak adierazten du bai munduko ekonomiak bai herrialde garatuen multzoak bai azaleratzen ari diren herrialdeen taldeak bi edo hiru hamarren gutxiagoko hazkundera jaso zutela 2018an aurreko urtean baino. Izan ere, munduko ekonomia %3,6 hazi zen kalkulua erosteko ahalmen parekotasunean (EAP) egiten denean eta %3,1, berriz, zenbatespena merkatuaren truke tasak erabiliz egiten denean. Beraz, EAEko ekonomiak 2018an izan zuen emaitza munduko batez bestekoaren zertxobait azpitik kokatu zen, baina herrialde garatuena baino nabarmen hobeagoa izan zen.

Munduko ekonomiaren bilakaera hainbat faktorek baldintzatu zuten, urtea aurrera zihozten heinean ziurgabetasuna sortu zutenak eta lehen erdian lortutako bizitasuna galgatu zutenak. Faktore haietako bat AEBetako merkataritza politika izan zen. Herrialde horrek Txinatik eta Europatik inportatutakoari muga zergak igotzeko mehatxua egin zuen, baita bete ere kasu batzuetan, bi eremu horiekiko duten merkataritza defizita murrizte aldera. Neurri horiek ziurgabetasuna areagotu zuten eta munduko salerosketen erritmoa apaldu zuten.

***Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak***  
***1. taula***

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>40,8</b>	<b>2,2</b>	<b>0,90</b>	<b>Garatu gabeak</b>	<b>59,2</b>	<b>4,5</b>	<b>2,66</b>
AEB	15,2	2,9	0,44	Txina	18,7	6,6	1,23
Eurogunea	11,4	1,8	0,21	India	7,8	7,1	0,55
Japonia	4,1	0,6	0,03	Errusia	3,1	2,3	0,07
Erresuma Batua	2,2	1,4	0,03	Brasil	2,5	1,1	0,03
Kanada	1,4	1,8	0,03	Mexiko	1,9	2,0	0,04
Besteak	6,4	2,4	0,16	Besteak	25,2	2,9	0,74

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Printzipioz, merkataritza gerra horrek ez zien kalterik ekarri AEBei, aurreko urteetako emaitza nabarmen hobetu baitzuen, bertako BPGa %2,9 handituz. Hala ere, herrialdean ekoiztiko

produktuek ez zituzten inportatutakoak ordezkatu, inportazioek zazpi hamarren kendu zizkiotelako BPGari, aurreko urtean kendu zituzten beste. Herrialde hartako ekonomiaren sendotasuna oraindik kontsumo pribatua (%2,6), enpleguaren eta soldata errealeen bilakaera onari esker, eta inbertsio pribatua (%5,9) oinarritzen da. Aldagai horiekin batera, defentsan eginiko gastu federalak (%3,4) ere ekonomia sustatu zuen.

**BPG errealearen bilakaera**  
**2. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Munduko ekonomia	<b>3,5</b>	<b>3,6</b>	<b>3,4</b>	<b>3,4</b>	<b>3,8</b>	<b>3,6</b>
Herrialde garatuak	1,4	2,1	2,3	1,7	2,4	2,2
AEB	1,8	2,5	2,9	1,6	2,2	2,9
Japonia	2,0	0,4	1,2	0,6	1,9	0,8
Europar Batasuna	0,3	1,8	2,3	2,0	2,5	2,0
- Alemania	0,5	1,9	1,7	2,2	2,2	1,4
- Frantzia	0,6	0,9	1,1	1,2	2,3	1,7
- Erresuma Batua	2,1	3,1	2,3	1,8	1,8	1,4
- Italia	-1,7	0,1	0,9	1,1	1,7	0,9
- Espainia	-1,7	1,4	3,6	3,2	3,0	2,6
- EAE	-1,7	1,6	3,0	3,3	2,9	2,8
Garatu gabeak	5,1	4,7	4,3	4,6	4,8	4,5
Txina	7,8	7,3	6,9	6,7	6,8	6,6
India	6,4	7,4	8,0	8,2	7,2	7,1
Errusia	1,8	0,7	-2,5	0,3	1,6	2,3
Brasil	3,0	0,5	-3,5	-3,3	1,1	1,1


Iturria: NDF (munduko ekonomia, Japonia eta Txina), BEA (AEB), Eurostat eta Eustat (EAE).

Europar Batasunak emaitza esanguratsua (%2,0) izan zuen 2018an, baina aurreko urteko datu bikaina baino puntu erdi bat txikiagoa. Dagoeneko aipatu diren merkataritza alorreko mehatxuei eta esportazioen galgari eremuaren barruko hainbat arazo gehitu behar zaizkie, hala nola Erresuma Batuaren irteerari buruzko negoziatioak eta aurrekontuen arloan gobernu italiarrarekin sortu diren tentsioak. Orobat, Europar Batasunak ibilgailuen isuriez onartu zuen araudi berriak automobil dieselen industria, Alemanian pisu handia baitu, kaltetu zuen urte amaieran. Herrialde horrek bere

hazkunde erritmoa moteldu zuen iazko bigarren erdian eta gutxi falta zitzaion atzeraldian sartzeko, nahiz eta 2019ko hastapenean mamu hori uxatu duen. Gainontzeko herrialde nagusiek ere 2017koa baino gehikuntza tasa nabarmen txikiagoak eskuratu zituzten. Aipamen berezia merezi du Italiak, bere BPGa %0,9 bakarrik handitu zuelako, iazko bigarren erdialdean atzeraldian sartu eta gero. Espainiaren moteltzea aipatu diren gainontzeko herrialdeena baino leunagoa izan zen eta 2018an oraindik esanguratsua den %2,6ko gehikuntza lortu zuen.

Garapen bidean dauden eta azaleratzen ari diren herrialdeek parte hartu zuten 2018ko bultzada txikiago horretan eta, oro har, %4,5eko gehikuntza jaso zuten, hots, 2017ko datua baino hiru hamarren gutxiago, baina aurreko urteetako balioetatik oso hurbil. Txinak herrialde multzo horretan duen pisuak eremu osoaren emaitza baldintzatzen du. Izan ere, moteltze arin horren eragile nagusietako bat ekonomia horren bizitasun galera da. Txina industrian eta esportazioetan oinarritzen den eredu batetik barne merkatua eta zerbitzuak gehiago garatzen duen eredu batera igarotzen ari da, dinamismoa galgatzuz. Zehatz-mehatz adierazita, ekonomia txinatarra %6,6 hazi zen, hots, 2017an baino bi hamarren bakarrik gutxiago, baina 1990etik inoiz izan duen tasa txikiena. Aitzitik, petrolioia ekoizten duten herrialdeek lehengai horren garestitzeak berarekin ekarri zuen diru sarreraren igoera eskuratu zuten. Petrolioaren upela 54 dolarretan (48 euro) saldu zen, batez beste, 2017an eta 71 dolarretara (60 euro) igo zen 2018an.

### ***BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn 2. irudia***




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Hazkunde txikiagoko testuinguru horretan, EAEko ekonomia %2,8 hazi zen 2018an, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago. Horri esker, bost urte kateatu ditu ekonomia suspertzen eta bere BPG erreala krisiaren aurretik zeukana baino zazpi puntu gorago kokatu du. Ekonomiak azken urteetan izan duen bilakaera ona lan merkatuan ere islatu da, goranzko joera hartu baitu. Atzeraldiko urte zailetan galdu zen enpleguaren zati handi bat berreskuratu da jadanik, baina oraingo guztizkoa 2008an zegoena baino %4 txikiagoa da oraindik. Diferentzia horrek esan nahi du lanaldi osoko 40.000 lanpostu inguru falta direla berreskuratzeko. Azken urteetako egitura aldaketa agerian geratzen da enpleguaren osaera sektoreka aztertuta, gaur egun zerbitzuetako jarduerak pisu handiagoa dutelako, urte horietan galdu ziren lanpostuak industriarenak eta eraikuntzarenak ziren bitartean.


EAEko ekonomiaren hazkundeak aurreko urteetako patroiarri eutsi zion, barne eskariak pisu handiena izan zuelako eta kanpo saldoak neutraltasunetik oso hurbil kokatu zelako. Izan ere, kanpo eskariak hamarren bakarra kendu zion BPGaren gehikuntzari 2018an, bai esportazioak bai inportazioak %3,0 handitu zirelako urte horretan.

**EAEko BPGari eginiko ekarpenak**  
**3 irudia**

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren sendotasuna beraren bi osagai nagusien emaitza onetan oinarritu zen. Orobat, hazkundearen osaera aurreko urtekoa baino are komenigarriagoa izan zen, zeren eta kapital eraketa gordinak protagonismo handiagoa bereganatu zuelako. Zehazkiago adierazita, inbertsioak %4,1eko gehikuntza jaso zuen, aurreko balioa ia puntu oso batean gaindituz. Kontsumoan eginiko gastua, berriz, puntu erdi bat moteldu zen %2,4an kokatu arte. Kapitala handitzea beharrezko baldintza da etorkizunean aberastasuna sortzen lagunduko duten produktibitate irabaziak eskuratzeko. Beraz, aldagai horren hazkunde sendoa oso garrantzitsua da. Inbertsioaren bi osagaiek antzeko gehikuntza tasa esanguratsuak jaso zituzten, biak %4,0aren ingurukoak. Hala ere, urtean zehar ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa geldotzen ari zela hauteman zen, gainontzeko inbertsioaren bizitasun handiagoak konpentsatu zuena.

Azken kontsumoan eginiko gastuak apaltzeko joera garbia erakutsi zuen eta, hiru urtez jarraian %3,0tik hurbil zeuden gehikuntza tasak jaso eta gero, 2018an %2,4 handitu zen. Hala kontsumo pribatuak nola publikoak bultzada txikiagoa izan zuten. Lehen kasuan, hazkunde erritmoa %2,6an kokatu zen, hots, BPGaren gehikuntzaren garbiki azpitik, lehen aldiz urte batzuetan. Horrek iradokitzen du familiek ez dutela gastatu sortu den aberastasun guztia eta diru sarreraren zati bat aurreztu dutela, behin atzeraldiko urteetan geroratu zituzten erosketak egin ondoren. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoa %1,7 handitu zen, aurrekontu publikoak orekatzeko beharrak baldintzatuta.

ekoizteko sektoreen bilakaera oso ezberdina izan zen 2018an. Izan ere, eraikuntzak hobekuntza garbia ezagutu zuen, zerbitzuek hazkunde erritmoa egonkortu zuten eta industria ahuldu zen. Zehatz-mehatz adierazita, eraikuntzak %4,3 areagotu zuen bere balio erantsia, 2017an lortutako tasa esanguratsua puntu erdi batean gaindituz. Hazkunde erritmo garrantzitsuak diren arren, ezin da ondorioztatu sektore horretan beste burbuila bat sortzen ari denik, zeren eta gaur eguneko jarduera maila, gutxi gorabehera, 2008ko krisiaren aurreko urteetan zegoenaren ia erdia baita. Nahiko maila apaletatik abiatzen denean, aldakuntza tasak altuak izaten dira. Beste aldetik, industriak %2,1 handitu zuen bere balio erantsia, aurreko urteetako tasetara iritsi gabe. Urte hasiera itxaropentsua izan zen, baina iazko bigarren erdian sektore horren jarduera erritmoa galgatu zen, nazioarteko merkataritzan sortu zen ziurgabetasunagatik eta automobilgintza Europak onartu zuen isuriaren araudi berriari egokitzeko beharragatik. Horren ondorioz, EAEko industriak bere balio erantsia zertxobait gutxitu zuen laugarren hiruhilekoan, Europako herrialde nagusietako industrian gertatu zen bezala. Hala eta guztiz ere, eskuragarri dagoen informazioak pentsarazten du jaitsiera iragankorra dela eta 2019an zehar makalaldia gaindituko dela.

**EAEko taula makroekonomikoa**  
**3 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Barneko azken kontsumoa	-1,1	1,9	3,1	3,0	2,9	2,4
Familien kontsumoko gastua	-0,9	2,3	3,3	3,3	3,0	2,6
Herri administrazioen kontsumoa	-1,8	0,7	2,1	1,8	2,4	1,7
Kapital eraketa gordina	-4,9	-0,2	3,8	5,5	3,3	4,1
Ekipamenduko ondasunak	-3,6	3,3	7,3	8,6	3,2	4,0
Gainontzeko inbertsioa	-5,6	-1,9	2,0	3,8	3,4	4,2
Barne eskaria	-2,0	1,5	3,2	3,6	3,0	2,8
Esportazioak	1,0	5,9	1,0	1,8	4,7	3,0
Inportazioak	0,4	5,5	1,4	2,2	4,8	3,0
<b>BPG</b>	<b>-1,7</b>	<b>1,6</b>	<b>3,0</b>	<b>3,3</b>	<b>2,9</b>	<b>2,8</b>
Lehen arloa	-3,1	-20,0	13,1	1,0	6,8	2,3
Industria	-2,8	2,2	3,1	4,2	3,1	2,1
Eraikuntza	-4,6	-1,7	1,1	0,2	3,8	4,3
Zerbitzuak	-1,0	1,7	3,5	2,8	2,7	2,9
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,5	1,9	5,0	3,6	4,0	2,8
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,7	2,6	1,5	2,4	2,2	2,4
Gainontzeko zerbitzuak	-1,6	1,0	3,6	2,5	2,2	3,1
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	-1,7	1,4	3,3	3,0	2,9	2,8
Ekoizkinen gainerako zerga garbiak	-1,6	3,8	0,2	6,8	2,8	2,7

Iturria: Eustat.

Zerbitzuetako jardueren blokeak aurreko urteetako erritmoei eutsi zien, hots, %3,0aren pixka bat beheragoko tasei. Hala ere, hainbat aldaketa hauteman dira hiru osagaietan. Alde batetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak oso nabarmen apaldu zuen bere erritmoa aurreko hiru urteetako datuen aldean, %2,8an kokatu arte. Kontrako zentzuan, gainontzeko zerbitzuak izenekoak hazkunde erritmoa bizkortu zuen, %3,1 arte. Azkenik, administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna biltzen dituen atalak eskuratu zuen emaitza (%2,4) aurreko bi urteetakoaren antzekoa izan zen.

EAEren eta Europar Batasunaren arteko hazkunde diferentzialak lagundu du posizio erlatiboa zertxobait hobetzen, biztanleko BPGaren terminoetan, eurotan neurtuta, eta 2018an 28 kidetako Europar Batasunaren (EB-28) %110,3an kokatu zen. Orobat, eremu horretako herrialde guztiak kontuan hartu beharreen, alderaketa hamabost herrialde garatuenekin egiten bada (EB-15), posizioa %96,3an geratzen da. Halaber, euskal autonomia erkidegoa 53. tokian zegoen EB-28 osatzen duten Europako 281 eskualdeen sailkapenean.

***EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait***  
***4 taula***

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Biztanleko BPG eurotan. EB-28=100	107,7	106,5	105,0	107,8	109,9	110,3
Biztanleko BPG eurotan. EB-15=100	92,8	91,9	90,7	93,5	95,6	96,3
BPG erreala merkatu prezioetan	-1,7	1,6	3,0	3,3	2,9	2,8
Enplegua	-2,9	0,2	2,1	2,2	2,1	2,1
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	1,3	1,4	0,9	1,1	0,8	0,7
BPG nominala merkatu prezioetan	-1,3	2,2	3,2	4,0	3,6	3,8
BPGaren deflatorea	0,4	0,6	0,2	0,6	0,7	1,0
KPI (urteko batez bestekoak)	1,6	0,2	-0,3	0,0	2,0	1,6
Kostu guztiak langile bakoitzeko	1,7	-1,0	-0,6	-0,9	0,5	2,5
Langabezia tasa	15,1	16,1	15,3	13,4	11,3	10,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

Prezioek oraindik ez dute nabaritu ekonomiaren bizitasuna. Izan ere, BPGaren deflatorea %1,0 igo zen 2018ko batez bestekoan. Tasa hori aurreko urteetako baino altuagoa da, baina urrun dago Europako Banku Zentralak ezarri duen %2,0ko erreferentziatik. Beste aldetik, petrolioaren salneurriak nazioarteko merkatuetan izan zuen bilakaerak kontsumoko prezioak baldintzatu zituen, urtearen erdialdean garestitu baitziren, baina ondorengo hilekoetan igoera moteldu baitzen. Aurrekoaren ondorioz, KPI indizeak %1,6ko aldakuntza tasa jaso zuen urteko batez bestekoan, baina azpiko inflazioa %1,0aren inguruan egon zen ia-ia urte osoan zehar.

BPGaren eta enpleguaren arteko konbinaketak adierazten du lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia %0,7aren ingurukoa izan zela, aurreko urtean jaso zenaren antzeko



balioa baita eta nahiko apala 1995etik izan duen batez besteko erregistroarekin (%1,1) alderatzen bada. Halere, datu hori esanguratsua da kontuan hartzen badira Europako herrialde nagusiek izan dituzten irabazi apalak. Esate baterako, Alemaniaren itxurazko produktibitatea hamarren bakar bat igo zen, Italian ez zen ia hobekuntzarik lortu, Espainian bost hamarren eta Frantzia zazpi inguru. Beste ikuspegi batetik ikusita, EAEko produktibitatea ordu bakoitzeko (42,2 euro) erdibidean kokatzen da EB-28ko 40,5 euroen eta EB-15eko 44,8 euroen artean.

Soldaten bilakaerak adierazten du krisia hasi zenetik 2017ra arte desparekotasuna areagotu dela. Soldaten egituraren informaziotik eratorritzen diren datu esanguratsuenetako bat da soldata arrakala handiagoa dela lanbide apaletan, soldata txikiak kobratzen dituzten arren. Aitzitik, zenbat eta lanbide altuagoa izan, emakumeen eta gizonen arteko soldata diferentzia gero eta txikiagoa da. Are gehiago, soldaten arrakala handiagoa da orain lanbide baxuetan eta ertainetan, baina goi mailako lanbideetan ez da handitu eta bere horretan mantendu da.

Lurralde baten lehiakortasuna aztertzeko era ohikoena unitateko lan kostu nominalak (LKUn) erabiltzea izaten da. Aldagai horretan, 2007-2018 epealdian zehar hautematen da EAEk ia ez duela inolako hazkunderik izan, erreferentzia europar nagusietan gehikuntzak jaso ziren bitartean. Horrek esan nahi du EAEko ekonomiak lehiakortasuna irabazi duela urte horietan Europako batez bestekoaren aldean.

Zergen diru bilketari dagokionez, 2018an sarrerak %3,5 handitu ziren. Eraitza hori bereziki esanguratsua da kontuan hartzen bada 2017an BEZ zergan aparteko doikuntza bat egin zela, kupoaren arloan lortu ziren akordioetatik eratorria. Izan ere, bertan kudeatutako itunpeko zergen diru bilketa %8,4 hobetu zen, baina BEZaren eta zerga berezien doikuntzak aurreko urtekoak baino txikiagoak izan ziren. Azpimarratu behar da zuzeneko zergen bultzada (%10,2), hala PFEZren igoeretatik (%5,4), enpleguaren bilakaera onaren ondorioz, nola sozietateen zergaren hobekuntzazatik (%32,8). Orobat, zeharkako zergek ere diru bilketa handitu zuten (%6,3), bereziki bertan kudeatutako BEZari esker (%7,9).

Diru bilketaren hazkundeak eta gastuen kontrolak bide eman dute Eusko Jaurlaritzako finantzazio ahalmenak 2017ko eraitza ona (BPGaren %0,3) hobetzeko eta BPGaren %0,5era igotzeko. Aurrekoari lotuta, hainbat urrats eman ziren zor publikoa kontrolatzeko eta 2017ko amaieran zegoen %14,2tik urtebete bat beranduago zegoen %13,6ra jaitsi zen. Aurreko guztia Eusko Jaurlaritzako egiturazko defizita hobetzeko testuinguru batean lortu da. Izan ere, egiturazko defizita

posizio negatibo batean zegoen 2016an, orekara iritsi zen 2017an eta 0,4 puntuko superabita eskuratu zen 2018an. EAEko administrazioen multzoan, puntu 1eko egiturazko superabita lortu zen.

Politika publikoek aldaketa esanguratsu batzuk ezagutu dituzte azken hamarkadan, zeren eta zor publikoa ordaintzera bideratutako gastuak eta pertsonen ongizatearekin lotuago dauden atalek pisua irabazi baitute. Azken horien artean, diru sarrerak bermatzeko errentak (DSBE) izan duen gehikuntza azpimarratu behar da, ekonomiak hobera egin duen arren, BPGaren terminoetan pisua bikoiztu duelako. Orobat, biztanleriaren zahartzea nabaria da aurrekontuetan, osasun arloari zuzendu den dirua handituz. Aitzitik, pisua galdu duten funtzioen artean, babes zibila eta azpiegiturak aipatu behar dira.

Moneta politikan, 2018an portaera kontrajarriak hauteman ziren banku zentral nagusien artean. Izan ere, Erreserba Federalak normalizazioko prozesuari jarraipena eman zion eta hainbat aldiz goratu zituen interes tasak, %2,5era iritsi arte. Tasa hori bere horretan utzi du gaur arte. Ingalaterrako Bankuak Fedaren bide beretik jo zuen. Beste aldetik, EBZk ez zuen aldatu erreferentziako tasa (%0,0) eta politika egokitzaileri segida eman zion.

Interes tasak apalak diren arren, EAEko ekonomia eragileek zorgabetzeko prozesuarekin jarraitu zuten, azken urteetako ibilbideari atxikiz. Hain zuzen ere, familiei eta enpresei emandako kredituak EAEko barne produktu gordinaren %89,4aren baliokideak izan ziren. Tasa hori zortzi urte lehenago jaso zen %130,0 hartatik baino askoz ere txikiagoa da. Arlo publikoari dagokionez, bere kredituak %8,1 hazi ziren urteko batez bestekoan, baina iazko azken zatian zorraren murrizketa garrantzitsua lortu zen.

## 1. EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

### 1.1 Munduko ekonomiaren bilakaera


2018an, gaur eguneko hedaldiaren bederatzigarren urtea izan baitzen, munduko ekonomiak hazkunde erritmo garrantzitsu bati eutsi zion berriro, %3,6an zenbatetsi baita. Tasa hori aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa da eta hurbil dago epe luzeko batez bestekotik (1998tik 2018ra bitartean %3,8 hazi da urtero, batez beste). Halere, aurreko urteekin alderatuta, ekonomia eremu nagusien jardueraren bilakaera heterogeneoagoa izan zela hauteman zen. Izan ere, Europar Batasunak, Japoniak eta azaleratzen ari diren hainbat ekonomiak, hala nola Turkiak eta Argentinak, bizitasuna galdu zuten. Aitzitik, AEBek sendotasuna erakutsi zuten.

Munduko ekonomiaren hazkunde tasa oraindik bizia izan zen arren, 2017an lortutakoa baino zertxobait apalagoa izan zen. Bizitasunaren galera txiki hori ekonomia aurreratuetan zein garatzen ari diren ekonomietan nabaritu zen. Izan ere, sortu diren arriskuek eta ziurgabetasunek gero eta gehiago kaltetu zuten munduko jarduera.

Finantzaziorako baldintzak gogortu izana, bereziki Erreserba Federalaren erabakien ondorioz, nabarmendu beharreko gertakarietako bat da. AEBetako interes tasak behin eta berriro igo izanak dolarraren balioa gorarazi zuen, bereziki azaleratzen ari diren herrialdeak kaltetuz. Garapen bidean dauden herrialde askok beren zorraren zati handi bat dolarretan izendatuta dute. Beraz, billete berdearen balio irabaziak beraien finantzazio kostuen garestitzea dakar. Orobat, azaleratzen ari diren herrialdeak, neurri handi batean, atzerriko inbertsioaren eta lehengaien salmentaren mende egoten dira. Gehienetan, atzerriko inbertsioa dolarretan iristen da garapen bidean dauden merkatuetara, errendimendu altuago baten bila, baina AEBetako interes tasak igotzen direnean, dolarrak indarra hartzen du eta inbertitzaileek beren kapitala diru horretara eta errenta finkoko

aktibo estatubatuarretara bideratzen dute. Are gehiago, oinarritzko ondasun eta lehengai gehienak dolarretan kotizatzen dira nazioarteko merkatuetan eta dolarra igotzen denean, lehengai horiek garestitzen dira AEBetatik kanpoko inbertitzaileentzat.

**Barne produktu gordina. (Urte arteko aldakuntza tasak)**  
**4 irudia**



Iturria : NDF.

Petrolioaren salneurriaren bilakaera ere munduko ekonomia jardueraren baldintzatzaile handienetako bat izan zen. Petrolioaren salneurria 86 dolarretara iritsi zen, munduko eskariak bere horretan jarraitu zuelako, izakinak murriztu zirelako eta AEBek Irani ezarri zizkion zigorrek herrialde hartako esportazioak bat-batean gutxituko zirelako beldurra zegoelako. Maximo hori lortu ondoren, LPEEko herrialde batzuek eta Errusiak beren ekoizpena handitu zuten eta upelaren salneurria 52 dolarretara jaitsi zen.

Politika ekonomikoarekin lotuta zeuden ziurgabetasunak ere kontuan hartu beharreko beste faktore bat izan ziren, Europar Batasunean fokatuagoa izan bazen ere. Brexitaren negoziatioetatik eratorri zen ezegonkortasuna, gaur egun oraindik argitu ez dena, Italiaren eta Europar Batasunaren artean aurrekontuen atalean sortu diren tentsioak eta Frantzia bizi zen jaka horien krisia dira aipatu beharrekoetako batzuk.

**Ekonomiaren aldagai nagusiak**  
**5 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG errealak		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Mundua	3,8	3,6	3,2	3,6	---	--
Ekonomia garatuak	2,4	2,2	1,7	2,0	5,6	5,1
AEB	2,2	2,9	2,1	2,4	4,4	3,9
Japonia	1,9	0,8	0,5	1,0	2,8	2,4
Europar Batasuna	2,4	2,0	1,7	1,9	7,6	6,8
Alemania	2,2	1,4	1,7	1,9	3,8	3,4
Frantzia	2,2	1,5	1,2	2,1	9,4	9,1
Erresuma Batua	1,8	1,4	2,7	2,5	4,4	4,0
Italia	1,7	0,9	1,3	1,2	11,2	10,6
Espainia	3,0	2,6	2,0	1,7	17,2	15,3
Garapen bidean daudenak	4,8	4,5	4,3	4,8	---	--
Asia	6,6	6,4	2,4	2,6	---	--
Amerika Latinoa	1,2	1,0	6,0	6,2	4,9	3,0
Ekialdeko Europa	6,0	3,6	6,2	8,7	---	--

Iturria: Eustat.

Munduko ekonomiak aurre egin behar izan ziren arazo nagusien artean, merkataritza alorreko tentsio gero eta handiagoak nabarmendu behar dira. Tentsio horiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, eragina izan zuten herrialde guztietan. Merkataritzari lotutako ziurgabetasuna areagotu zen Trump Administrazioak Txinako esportazioei 250.000 milioi dolarreko muga zergak ezarri zizkienean. Txinako erantzuna berehala iritsi zen eta bertako gobernuak AEBetako esportazioei 110.000 dolarreko muga zergak ezarri zizkien. Orobat, AEBek merkataritza gerra beren aliatu nagusien kontra, hots Europar Batasun, Mexiko eta Kanadaren aurka, hedatu zuen eta muga zergak ezarri zizkien altzairuari (%25) eta aluminioari (%10). Europar Batasunak, estatubatuarren ekintzari erantzuteko, herrialde hartatik ekarritako produktu batzuei 2.800 milioi euroko muga zerga ezarri ziren. Mugimendu horiek kalte egin zioten munduko merkataritzari, ahuldu baitzen. Era berean, mehatxu eta erabaki bakoitzak finantza merkatuetan gorabeherak eragin zituen eta konfiantza globalaren giroa ospindu zuen.

Izan ere, salgaien munduko merkataritzaren hazkundera, bolumenean neurtuta, %4,6 izan zen 2017an, batez bestekoa (%3,7) baino altuagoa, eta horrek pentsarazi zuen munduko merkataritzak goranzko joera berreskuratua zuela eta 2018an bizitasun horri eutsiko ziola. Baina horretan ere, usteak ustel. Hain zuzen ere, Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) lehen zenbatespenaren arabera, salgaien munduko merkataritza %3,0 hazi zen bolumenean 2018an, erakunde horrek urte bereko irailean aurkeztu zituen aurreikuspenak baino bederatzi hamarren beherago. Emaitza okerrago hori, neurri handi batean, 2018ko azken hiruhilekoan munduko merkataritzak jaso zituen datu txarrek azaltzen dute.

Izan ere, 2018an merkataritza ekoizpena baino apur bat bizkorrago bakarrik areagotu zen. Are gehiago, ahultasun hori gutxienez 2019ra ere luzatuko dela aurreikusten da. Neurri handi batean, Europar Batasuneko merkataritzaren hazkundera txikiagoak azaltzen du egoera hori, eremu horrek AEBek eta baita Txinak ere baino irekiera gradu handiagoa duelako eta munduko merkataritzan munduko BPGan baino partaidetza handiagoa duelako.

**Munduko ondasunen merkataritza bolumenean eta BPG erreala**  
**6 taula**

Urte arteko aldakuntza tasa

	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Ondasunen munduko merkataritza. Indizea</b>	<b>2,7</b>	<b>2,3</b>	<b>1,6</b>	<b>4,6</b>	<b>3,0</b>
Esportazioak					
Herrialde aurreratuak	2,1	2,4	1,0	3,6	2,1
Garapen bidean dauden herrialdeak	2,7	1,7	2,3	5,6	3,5
Inportazioak					
Herrialde aurreratuak	2,4	4,2	2,0	3,3	2,5
Garapen bidean dauden herrialdeak	2,4	0,6	1,3	6,8	4,1
BPG erreala merkatuko truke tasan	2,7	2,8	2,4	3,0	2,9
Merkataritza eta BPG* arteko erlazioa	1,0	1,0	0,8	1,6	1,1

(\*) BPGaren datuak NDF, ELGE eta Nazio Batuen erakundearen batez besteko estimazioan arabera kalkulatu da.

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

Analisia balio nominaletan fokotuta, salgaien munduko esportazioak %9,8 hazi ziren. Tasa hori garrantzitsua da, baina 2017an jaso zen %10,6 hura baino zertxobait txikiagoa. Bizitasun apalago hori eremu ia guztietara hedatu zen, hala garatuetara nola garapen bidean daudenetara. Halere, eskualde batzuek beste batzuek baino kalte handiagoak pairatu zituzten.

Hain zuzen ere, munduko merkataritzaren 2018ko moteltzea nagusiki Europan eta Asian du jatorria, munduko salerosketetan partaidetza handia dutelako (%36,5 eta %35,5, hurrenez hurren). 2017an gehikuntza tasa garrantzitsuak jaso ondoren, Asiako merkataritzaren hazkundera moteldu zen 2018an, Txinako eskari txikiagoak baldintzatuta. Europan, automobilgintzaren ekoizpenak nozitu zuen geldialdiak esportazioak gutxitu zituen bigarren seihilekoan, %1,0tik beherako hazkunde tasak jasotzera beheratu baitziren. Joera horretatik aldendu zen eremua Ipar Amerika izan zen, zeren eta AEBetako ekonomiaren sendotasunak inportazioen hazkunde bizia ekarri zuelako eta prezioen igoerak esportazioen balioa areagotu zuelako. Izan ere, termino nominaletan, salgaien esportazioen hazkunde handiena petrolioaren ekoizleek jaso zituzten. Herrialde horien artean kokatzen da Errusia eta bere salmentak %25,6 handitu zituen.

**Munduko ondasunen merkataritza eremuka**  
**7 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila milioi AEBetako dolarrak

	Esportazioak				Inportazioak			
	Balioa	Aldakuntza tasak			Balioa	Aldakuntza tasak		
	2018	2016	2017	2018	2018	2016	2017	2018
<b>Mundua</b>	<b>19.475</b>	<b>-3,0</b>	<b>10,6</b>	<b>9,8</b>	<b>19.866</b>	<b>-3,0</b>	<b>10,8</b>	<b>10,1</b>
Ipar Amerika	2.565	-3,4	7,3	7,9	3.561	-2,8	7,3	8,4
AEB	1.664	-3,4	6,6	7,6	2.614	-2,8	7,0	8,5
Erdi eta Hego Amerika	635	-5,1	14,0	8,2	645	-14,1	8,0	11,2
Brasil	240	-3,1	17,6	10,0	189	-19,8	9,9	19,8
Europa	7.112	-0,2	9,4	9,3	7.151	0,5	10,0	9,5
Europar Batasuna 28	6.465	-0,2	9,9	9,4	6.494	0,4	10,2	10,4
EBE (*)	640	-16,2	24,6	23,5	435	-3,2	21,5	8,4
Errusia	444	-17,5	25,5	25,6	249	-0,8	24,4	4,6
Africa	479	-8,3	18,3	13,6	574	-11,8	5,7	11,1
Ekialde Hurbila	1.140	-8,7	15,3	21,5	737	-6,5	2,8	0,9
Asia	6.905	-3,3	10,7	8,2	6.764	-4,2	14,9	12,7
Txina	2.487	-7,7	7,9	9,9	2.136	-5,5	16,1	15,8
Japonia	738	3,2	8,3	5,8	749	-6,2	10,6	11,4
India	326	-1,2	13,3	8,8	511	-8,1	24,1	13,9

(\*) Estatu Burujabeen Erkidegoa.

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta UNTAC.

Hala eta guztiz ere, merkataritza alorreko tentsioen gorakadak ez du azaltzen merkataritzak 2018an bizi zuen moteltze guztia, apaltzearen eragile nagusietako bat izan zen arren, kontsumitzaileek eta enpresek erosketak eta salmentak haien arabera aldatu baitzituzten. Izan ere, aldi baterako beste gertakari batzuek ere merkataritza eta ekoizpena kaltetu zituzten, hala nola AEBetako administrazio federalaren itxierak eta automobilgintza alorreko ekoizpenak ezagutu zituen geldialdiek, bereziki Alemanian eragin kaltegarria izan zutenak, Europar Batasunak motorren isuriei buruzko araudi berriaren ondorioz.

Aurreko guztia gertatu zen arren, lan merkatuaren hobekuntzak ekonomia jarduera bultzatu zuen 2018an. Izan ere, langabezia tasak berriro gutxitu ziren ekonomia aurreratuetan eta garapen bidean daudenetan. Herrialde batzuetan (Erresuma Batuan eta Japonian, besteak beste) inoizko tasa txikiak jaso ziren. Inflazioak, oro har, maila neurritsuetan jarraitu zuen. Ekonomia aurreratuetan, goranzko ibilbide leuna erakutsi zuen, petrolioaren prezioak izan zuen igoeraren ondorioz. Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeetan ez zen gehiegi igo.

## 1.2 Analisia herrialdeka

Gaur egun, azaleratzen ari diren herrialdeek munduko BPGaren ia %60 biltzen dute, hots, duela bi hamarkada baino hogeita puntu gehiago. Beraz, herrialde horien bilakaerak munduko ekonomiaren norabidea markatzen du. 2018an, herrialde horien multzoa %4,5 hazi zen, 2017an baino hiru hamarren gutxiago, eta 2016an hasi zen goranzko joera bertan behera geratu zen. Hala ere, BPGaren hazkundea sendoa izan zen berriro, nahiz eta azken hogeita urtean, batez beste, izan zuen %5,4ko tasatik berriro aldentu den.

Dinamismo txikiago hori azaleratzen ari diren ia eremu nagusi guztietara hedatu zen. Amerika Latinoa %1,0 hazi zen, 2017an baino bi hamarren gutxiago. Tasa horren atzean, portaera ezberdinak ezkututzen dira. Peruk (%4,0), Txilek (%4,0) eta Kolonbiak (%2,7) 2017an lortutako emaitzak hobetu zituzten. Brasilek (%1,1) eta Mexikok (%2,0) 2017an jasotako tasetan egonkortzea lortu zuten. Baina bizitasun hori Argentinan eta Venezuelen pairatu zituzten nariadura garrantzitsuek konpentsatu zuten.


Asiak, berriz, hazkunde garrantzitsua, beherazko alborapen leun batekin, lortu zuen. Hain zuzen ere, BPGa %6,4 handitu zen. Gehikuntza tasa hori 2017an jasotakoa baino bi hamarren bakarrik txikiagoa




den arren, gero eta gehiago urruntzen da 2010ean lortu zuen %9,6 hartatik. Txina da oraindik eremu horretako bultzagile nagusia. Herrialde hartako BPGa %6,6 hazi zen. Tasa hori gobernuaren aurreikuspena (%6,5) gainditu zuen, baina azken 28 urteetako daturik txikiena da. Esportazioen beherakada garrantzitsua, AEBekin dituen merkataritza tentsioen ondorioz, da hozte horren eragile nagusietako bat, baina ez bakarria. Industriaren ekoizpena sendo (%6,2) hazi zen arren eta kontsumoko ondasunen salmenta %9,0 goratu bazen ere, banka paraleloaren jardura galgatzeko araudia gogortu izanak inbertsioa ahuldu zuen. Moteltze berri horrek berriro piztu zuen munduan beste atzeraldi datorrelako beldurra. Hala ere, erraldi asiarrak 2019ko lehen hilekoetan lortu duen egonkortasunak, oraingoz, kezka hori uxatu du.

**Herrialde garatu gabeen BPGa. (Urte arteko aldakuntza tasak)**  
**5 irudia**


Amerika Latinoa




Brasil



Txina



India



Iturria: NDF.

India, berriz, %7,1 hazi zen, hots, 2017an baino hamarren bat gutxiago, eta bi hamarkada bete ditu etengabe hazten. Aurrerakada hori barne eskaria sendoan eta manufakturen eta nekazaritzaren sektoreek izan zuten bilakaera onean oinarritu zen. Aipatu diren aldagai eta sektore horiek gai izan ziren finantzaziorako baldintza estuagoak, petrolioaren salneurri altuak eta munduko merkataritzaren moteltzea konpentsatzeko.

Azaleratzen ari diren Europako herrialdeen artean, Errusiak 2018an lortu zuen bere hazkunde daturik onena 2012tik, %2,3ko gehikuntza tasa bat eskuratuta. Bizkortze horren atzean, eraikuntzaren ezusteko hazkundeak ekarri zuen, %4,7ko gorakada izan zuelako, 2017an %1,2ko jaitsiera jaso eta gero. Orobat, zerbitzuek ere hazkunde garrantzitsua izan zuten 2018an, %6,1eko gehikuntza lortuta, udan herrialde hartan ospatu zen munduko futbol txapelketak bultzatuta. Datu horien arabera, BPGaren emaitza ona faktore koiunturaletan oinarritu zen. Are gehiago, AEBek ekonomia errusiarrari ezarri zizkieten zigorrak handitu zituzten. Erabaki horrek apirilaren erdialdean burtsa errusiarren amiltzea eragin zuen eta herrialde hartako diruaren bat-bateko balio galera. Arrazoi horiek direla eta, ez dirudi hazkunde erritmo horri eusteko gai izango denik.


Ekonomia aurreratuei dagokienez, AEBak nabarmendu ziren, goranzko joera luzatu zutelako. 2017an onartu zuten zerga erreformak eta enplegu sorrera sendoak kontsumo pribatua eta inbertsio pribatua, batez ere egituretan eta ekipamenduan eginikoa, gorarazi zituzten. Gastu publikoak ere hazkundeari lagundu zion, 2017an bizi zen narriadura atzean utziz. Aurreko guztiaren ondorioz, BPG estatubatuarra %2,9 handitu zen, 2015etik izan duen tasarik gorena baita. Lan merkatuari dagokionez, AEBek 2,6 milioi landun gehiago zituen 2018an, aurreko urtean sortutakoak baino ia milioi erdi bat gehiago. Halaber, langabezia tasa %3,9an kokatu zen 2018an. Prezioak, berriz, %2,9 igo ziren udako hilekoetan. Halako maila alturik ez zen 2012ko otsailetik ikusten eta presio gehiago ekarri zion Erreserba Federalari, erreferentziako tasak hiru aldiz gehiago igo zituela. Igoera horien ondoren, KPI indizea %1,9ra apaldu zen.

Japonian, ekonomia jarduera %0,8ra moteldu zen eta atzean utzi zuen aurreko urteko hazkunde indartsua (%1,9). Kontsumo pribatua, BPGaren %60,0 inguru biltzen duenez osagai ezinbestekoa baita, ez da gai izan bere paper traktorea finkatzeko eta jarduerari bi hamarren bakarrik ekarri zizkion. Beste aldetik, inbertsio pribatuak eta izakinen aldakuntzak barne eskariari lagundu zioten BPGari zortzi hamarren ekartzen. Kanpo eskariak, berriz, ekarpen hutsala egin zuen. Lan merkatuaren bilakaera ona izan zen berriro eta langabezia tasa %2,4ra jaitsi zen Japonian 2018an, azken 26 urteetako txikiena baita. Era berean, 161 lanpostu eskaini ziren lana bilatzen ari ziren 100 pertsonako. Erlazio hori inoizko bigarren altuena da, 1973an jaso zen 176 lanposturen ondoren. Datu hori oztoppa da herrialdearen hazkunderako, zahartze demografiko bizioan murgilduta


dagoelako eta lan esku urria duelako. Azkenik, prezioek eremu positiboan jarraitu zuten, bigarren urtez jarraian. Zehatz-mehatz adierazita, herrialde hartako KPI indizea %1,0an kokatu zen, 2017ko emaitza bikoiztuz, baina gobernuak ezarri zuen %2,0ko helburutik oraindik urrun.

***Ekonomia aurreratuen BPGI. Urte arteko aldakuntza tasak (I)***  
***6 irudia***


AEB




Japonia



Europar Batasuna



Alemania



Iturria: NDF eta Eurostat.

Europar Batasuneko ekonomiaren hedaldiak aurrera egin zuen 2018an ere, baina hazkunde erritmoak bizitasuna galdu zuen. Hain zuzen ere, kontinente zaharrak erritmoa galdu zuen 2017ko %2,5etik 2018ko %2,0ra. Hainbat faktore agertu ziren urtean zehar, munduko merkataritzaren ahultzeaz gain, muga zergen gerraren ondorioz, eta Brexitek sortutako ezegonkortasunaz gain. Izan ere, 2018ko lehen erdian, egoera meteorologiko txarrak eta grebek, bereziki garraioaren alorrean eginikoak, herrialde batzuetako ekoizpena kaltetu zuten. Horretaz gain, iazko bigarren erdian, Alemaniako automobilgintzaren ekoizpena kaltetuta geratu zen motorren isuriei buruz onartu ziren arau berrien ondorioz. Orobat, Italian inbertsioa gutxitu zen diferentzial subiranoak igo ziren heinean. Aurreko guztiak kontsumitzaileen eta enpresen konfiantza ahuldu zuen. Hala eta guztiz ere, Europar Batasunak eusteko gaitasuna erakusten jarraitu zuen, neurri handi batean lan merkatuaren etengabeko susperraldiari esker. Zehazkiago adierazita, enplegua ia 13 milioi landunetan handitu zen 2013an jaso zen minimo hartatik, eta langabezia tasa %6,8ra jaitsi zen, serie historiko osoan bildu den baliorik txikiena baita.

Alemaniako ekonomia esportazioan oinarritzen da, neurri handi batean. Beraz, merkataritza alorreko tentsioek eta Brexitari buruzko zalantzek ekarri duten ziurgabetasun orokorrak eragin bereziki handia izan du herrialde hartan. Hain zuzen ere, esportazioek ia erdira murriztu zuten hazkunde erritmoa 2017an zutenarekin alderatuta. Horri erantsi behar zaio isurien araudi berriaren ondorioz industria ekoizpenak izan zuen beherakada. Aurreko guztiak justifikatzen du Alemaniako BPGa %1,4ra leundu izana 2018an. Tasa hori 2017an jasotako %2,2aren aldean moteltze garrantzitsua da. Are gehiago, 2018ko gehikuntza tasa herrialde horrek 2013tik izan duen txikiena da.


Frantzia, barne eskariaren agregatu guztiek 2017an baino bilakaera motelagoa erakutsi zuten. Ekonomia eragileen konfiantza jaitsi zen eta horrek eragina izan zuen kontsumo pribatuan eta inbertsioan, hiru hilekoz hiru hileko moteldu baitziren. Are gehiago, jaitsiera hori handiagoa izan zen iazko azken zatian, joka horien krisiaren ondorioz. Hasieran, protestak erregaien gaineko zergaren igoeraren kontrakoak izan ziren, baina geroztik eskaera gehiago egin zituzten, politikan eta ekonomian aldaketa sakonak eskatu arte. Horren ondorioz, Frantziako BPGa %1,7 hazi zen 2018an, hots, 2017an baino sei hamarren gutxiago, eta 2013an hasi zuen goranzko joera (urte horretan ekonomia jarduera %0,3 bakarrik hazi zen) bertan behera utzi zuen.

Italiak ere bizitasun gutxiagoko norabide batean murgildu zen eta nazioarteko merkataritzaren eta Alemaniako industria ekoizpenaren moteltze biziak gain, gobernu italiarraren eta Europako agintarien artean aurrekontuei buruz sortu ziren tentsio politikoek ere kalte egin zioten. Kontsumoak, hala pribatuak nola publikoak, irudi ahula eskaini zuen, biek %0,0tik hurbileko


hazkunde tasekin. Inbertsioa, berriz, motelduz joan zen hiruhilekoz hiruhileko. Aurrekoari eransten bazaio Alemaniako eta Txinako bizitasun motelagoa, esportazio italiarren hartzaile nagusiak baitira, ondo ulertzen da 2018ko hazkunde tasa %0,9 bakarrik izatea.

***Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak (II)  
7 irudia***


Frantzia




Italia



Portugal



Erresuma Batua



Iturria: Eurostat.

Portugalek, berriz, %2,1eko hazkundera lortu zuen 2018an, Euroguneko tasarik altuenetako bat delarik. Hain zuzen ere, ekonomia lusitaniarrak gora egin zuen barne eskariaren sendotasunari esker, kontsumo pribatuaren zein inbertsioaren bilakaera onak bultzatuta. Barne eskariaren ekarpen garrantzitsuak kanpo arloaren kenketa konpentsatzeko balio zuen, agregatu horrek hainbat hamarren kendu zizkiolako jarduerari. Urte amaieran esportazioek pairatu zituzten oztopoek, zamaketarien grebek eta automobilgintzako piezen faltak azaltzen dute emaitza hori. Orobat, lan merkatuaren bilakaera onak baieztatzen du Portugaleko ekonomiaren egoera sendoa. 2017ko urte onaren ondoren, 2018koa gogoratua izango da lan merkatuak bere susperraldia finkatu zuelako. Bost urteko epean, ekonomia portugaldarrak langabezia tasa %16,4tik %7,0ra murriztea lortu du. Azken tasa hori 2002tik jaso den txikiena da.

Erresuma Batuko ekonomia %1,4 areagotu zen 2018an, hots, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago eta 2012tik jaso duen tasarik txikiena. Ziurgabetasunak enpresen norabidea markatu zuen eta inbertsioa izoztu. Brexit desordenatu baten aukera, Europar Batasunetik irteteko moduz agintari europarrekin akordiorik ezaren ondorioz, da hozte horren arrazoi nagusia. Nazioarteko merkataritzaren egoerak ere ez zuen lagundu, Txinaren eta AEBen arteko merkataritza gerragatik eta Europak, oro har, izan zuen moteltzearengatik, esportazioen hazkunde hutsala ekarri zutelako. Datu positiboa familien kontsumoaren eskutik iritsi zen, sendo jarraitu zuelako eta %1,7 hazi zelako. Neurri txikiagoan, kontsumo publikoak ere lagundu zuen eta %0,4 bakarrik handitu bazen ere, aldakuntza garrantzitsua da 2017an nozitu zuen jaitsieraren aldean.

Ekonomia jarduerak bizitasuna galdu zuen arren, inflazioak gorantz egin zuen. Zehatz-mehatz adierazita, 2018ko bigarren seihilekoan, kontsumoko prezioak Europako Banku Zentralak (EBZ) ezarri zuen %2,0aren gainetik kokatu ziren. Dena dela, batez bestekoan, kontsumoko prezioak %1,9 hazi ziren Europar Batasunean 2018an eta %1,8, berriz, Eurogunean. Gorabehera horiek petrolio gordinaren kotizazioaren bilakaerak eragin zituen, zeren eta azpiko inflazioa, elikagai freskoak eta energia kontuan hartzen ez baititu, %1,0 hazi baitzen, 2017ko datuaren antzera.

### 1.3 Espainiako ekonomia

2015etik 2017ra bitartean, ekonomia espainiarrak oso hazkunde erritmo biziari eutsi zion, hainbat faktorek lagunduta. Haietako aipagarrienak petrolioaren prezioak izan zuen jaitsiera handia, 2014ko amaieran gertatu zena, EBZk abiarazi zuen moneta politika hedatzailea eta beraren interes tasa txikiak, eta munduko ekonomiaren susperraldia, esportazio espainiarrak areagotzen lagundu

baitzuen eta turismoari bultzada eman baitzion. Hala ere, 2017ko amaieran, atzeko haize horiek indarra galtzen hasi ziren eta, kasu batzuetan, bira eman zuten aurrean jarri arte. Esate baterako, 2017ko erdialdean, petrolioaren salneurriak goranzko bidea hartu zuen, Fedek moneta politika normalizatzen hasi izanak eragina izan zuen enpresen konfiantzan eta merkataritza gerrak ezegonkortasuna ekarri zuen.

**Espainiako ekonomiaren taula makroekonomikoa**  
**8 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016(B)	2017(A)	2018(A)
Azken kontsumoko gastua	-2,9	1,1	2,8	2,4	2,4	2,3
-Familien gastua kontsumoan	-3,2	1,5	3,0	2,8	2,5	2,3
-Administrazioaren gastua kontsumoan	-2,1	-0,3	2,0	1,0	1,9	2,1
Kapital eraketa gordina	-3,4	4,7	6,7	2,9	4,8	5,3
Esportazioak	4,3	4,3	4,2	5,2	5,2	2,3
Inportazioak	-0,5	6,6	5,4	2,9	5,6	3,5
<b>BPG</b>	<b>-1,7</b>	<b>1,4</b>	<b>3,6</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>2,6</b>
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza,	13,6	-1,2	3,6	8,2	-0,9	2,6
Erauzketa industriak eta manufaktura	-3,9	2,0	2,9	5,6	4,4	1,1
Eraikuntza	-10,5	-2,0	4,7	3,5	6,2	7,6
Zerbitzuak	-0,6	1,3	3,0	2,1	2,5	2,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	-4,3	4,0	9,2	4,8	3,3	1,4
<b>Gogoratzekoak:</b>						
-Kontsumo prezioen indizea	1,4	0,2	-0,5	-0,2	2,0	1,7
-Enplegua	-3,4	1,0	3,3	3,0	2,9	2,5

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE.

Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia espainiarra %2,6 hazi zen 2018an. Zifra horrek adierazten du hedaldiak aurrera egin zuela, baina, hirugarren urtez jarraian, erritmoa galdu zuela aurreko emaitzaren aldean. Moteltze arin hori aurreikusita zegoen, ez, ordea, BPGaren osaera. Aurreko urteetan kanpo arloak hazkundera bultzatu zuen, baina 2018an kanpo eskariak hainbat hamarren kendu zizkion jarduerari. Neurri batean, petrolioaren garestitzeak eragin zuen, baina baita ere

merkatu batzuek pairatu zuten apaltzeak, hala nola Alemaniak, Turkiak, Erresuma Batuak eta Italiak, esportazioak nabarmen hoztu zituztelako. Errenten portaera hedakorrak, sektorearen ondare egoeraren hobekuntzak (zorpegabetzea) eta kreditua lortzeko orduan baldintza onak egoteak bultzada eman zioten kontsumo pribatuari, baina baita etxebizitzan eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioari ere. Horren ondorioz, barne eskariak 2,9 puntuko ekarpena egin zuen eta kanpo arloak, ordea, hiru hamarren kendu.

Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten, salbuespen bakarra jarduera artistikoak izan zirela, behera egin baitzuten. Eraikuntzaren bizitasuna nabarmendu zen, %7,6 hazita. Neurri batean, eraikuntzak kanpo arloaren tokia bereganatu izanak aurreko ekoizpen eredura itzuli dela iradokitzen du. Hazkundeak oraindik enplegu sorrera bizia ekarri zuen berarekin eta lanaldi osoko 469.000 lanpostu sortu ziren 2018an, urteko batez bestekoan %2,5eko gehikuntza tasa delarik. Enpleguaren hobekuntza horrekin batera, soldatapekoen ordainketa %1,1 igo zen eta banakako lan kostuak, berriz, %1,3. Azkenik, inflazioak, petrolioaren garestitzeak eragindako gorakadaren ondoren, moteltzeko joera erakutsi zuen, 2019ko lehen hilekoetara ere hedatu dena.



## 2. EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA

### 2.1 Barne produktu gordin potentziala


BPG potentzialak ekonomia batek epe ertainean modu iraunkor eta orekatu batean hazteko daukan ahalmena neurtzen du. EAEko ekonomiarentzat egin den kalkuluak adierazten du beraren BPG potentzialak balio minimoa jaso zuela 2013an eta 2014an goranzko joera leunari ekin ziola, hazkunde positibo arin batekin. Ondorengo ekitaldietan, bere balioa areagotu zen, 2017an %2,0an kokatu arte. 2018an, bizitasuna moteltzen hasi zen eta %1,8ra iritsiko da aurreikusi den epealdiaren amaieran, 2020an kokatu dena. EAEko ekonomiaren hazkunde potentzialak gaur egun izan duen susperraldiak aurreko hedaldietan eskuratu zituenak baino tasa txikiagoak lortu ditu.

Bilakaera hori, alde batetik, enplegu faktorearen portaeraren ondorioa da. Izan ere, krisi garaian ekarpen negatiboa egin zuen bitartean, ia puntu oso bateko ekarpena egin zion produktu potentzialari hazkunde tasa bizienak lortu ziren urteetan. Harez geroztik, ekarpen hori jaisten hasi zen eta 0,4 puntuetara mugatuko da. Jaitsiera hori partaidetza tasa igo zen arren eta egiturazko langabezia gutxitu zen arren (nahiz eta oraindik hobetzeko tartea eduki) gertatu zen, kontuan hartuta faktore horiek eskuragarri dagoen lau eskua handitzen dutela. Horrek agerian uzten du EAEko ekonomiaren arazo nagusietako bat: biztanleriaren etengabeko zahartzea. Biztanleriaren zahartzeak lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren igoera eta, beraz, EAEko ekonomiaren hazkunde potentziala mugatzen ditu.

Kapitalaren ekarpena ia konstantea izanda, BPG potentzialaren hazkundera, nagusiki, faktoreen produktibitate totalaren (FPT) gehikuntza erritmoak finkatu du. Enplegua eta kapitaleko stocka konbinatzeko orduan lortzen den eraginkortasunak paper garrantzitsua jokatu du. Krisiak eztanda

egin zuenean, FPTaren hazkunde tasa moteltzeko prozesua bizi zen 2013 arte. Urte horretan, BPG potentzialari eginiko ekarpena hutsala izan zen. Ekonomiaren susperraldiarekin batera, FPTaren aldakuntza tasak gorantz jo du %1,0ra hurbildu arte.

**BPG erreal, BPG potentziala eta bere hazkundearen faktoreak. 2009-2020**  
8 irudia




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta IVIEn datuetan oinarrituta.

BPG errealaren eta potentzialaren bilakaeraren ondorioz, output gap edo ekoizpen arrakala zehazten da. Krisiaren urteetan, EAEko ekonomia potentzialaren azpian hazi zen, ekoizpenaren arrakala balio negatibotan kokatuz. Hala ere, ekonomia suspertu zen heinean, output gap delakoak seinua aldatu zuen eta balio positiboak bereganatu zituen. Kontuan hartu den denboraldiaren amaierarako (2020 urtera) aurreikusten den moteltze ekonomikoak ekoizpen arrakala itxiko du, ekonomia jardueraren aldakuntza tasak %2,5aren azpian egongo direlako.

## 2.2 Biztanleko BPGaren bilakaera eta bere determinanteak

Eustatek eta Eurostatek argitaratu dituzten datu ofizialen arabera, EAEko biztanle bakoitzeko BPGa, Espainiako EAParekin neurtzen denean, EB-15eko batena baino %12 handiagoa da eta EB-28ko batena baino gutxienez %20 altuagoa. Halere, EB-15eko EAP berarekin neurtzen denean, ateratzen den maila eremu horrena baino zertxobait apalagoa da, nahiz eta 2018an 34.079 euroetara iritsi zen, aldagai horrek inoiz izan duen baliorik gorena baita.

**BPG biztanleko. EAP. EB15=100**  
**9 irudia**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Ondoko irudian ikus daitekeenez, krisiaren urteetan EAEko biztanleko BPGak posizioak galdu ondoren, hazkunde erritmoa bizkortu zuen eta EB-15arekin bat egiteko bidea berreskuratzen hasi zen. Ezaguna denez, krisiak eragin handiagoa izan zuen EAEko ekonomian, eta baita espainiarrean ere, Europako multzoa osatzen duten beste herrialde batzuetan baino. Hala eta guztiz ere, Espainiak oraindik ezin izan du berreskuratu krisiaren aurrean zeukan posizio erlatiboak. Eragin kaltegarriago horretatik guztiz aldentuta, Alemaniaren portaera oso bestelakoa izan da, zeren eta krisiaren garaian bere posizio erlatiboak sendotu baitzituen. Hala ere, susperraldiaren garaian, 2015etik aurrera, herrialde horrek posizioak galdu ditu Europarekiko, galera hori txiki samarra den arren. EAEk eta Espainiak Europarekiko portaera diferentziala erakutsi zuten bezala, kontinente zaharrak

ere portaera diferentziala izan zuen AEBekiko. Askotan aipatu denez, bigarren atzeraldia oso europarra izan zen, politika makroekonomikoari oso lotuta egon zena. Aitzitik, AEBek azkarrago eta zuzenago gainditu zuten krisia, ondorengo bilakaera iraunkorrari eutsiz. Horrek atea ireki dio ekonomia hazkunde oso luze bat bizitzeko.

EAEko ekonomiaren kasuan, krisiak oso eragin handia izan zuen, bilakaera tasa oso negatiboak jasoz, batez ere 2009an, baina baita bigarren atzeraldian ere, hau da, 2012-2013 epealdian ere. Hala eta guztiz ere, susperraldia ere nabarmen sendoagoa izan da, aipatu den bezala, eta %2aren eta %3aren arteko hazkunde tasak eskuratu dira 2014tik 2018ra doan garaian, EB-15eko gehikuntza tasak %1aren eta %2aren artean egotera mugatu ziren bitartean.

#### *Biztanleko BPGaren hazkundearen banaketa EApean*

Zalantzarik gabe, biztanleko BPGa ekonomiaren jardueraren adierazle behinena da, baina interesgarria da aztertzea zein diren beraren portaera bultzatzen duten determinanteak, hau da, zer neurritan aldakuntza tasa lanaren partaidetzaren eta lanaldiaren edo orduko produktibitatearen irabaziaren ondorioa den. Bereziki garrantzitsua da produktibitatea, zeren eta epe luzera begira hobekuntza orokorraren benetako determinantea izango baita, behin lan merkatua modernizatu ondoren eta enplegu tasa altuak lortu eta gero.

Zentzu horretan, adierazi behar da 2018an EAEko biztanle bakoitzeko BPGaren hazkunde erritmoa zertxobait moteldu zela. Hazkunde hori 2016tik batez ere lan partaidetzaren ekarpen handiagoan oinarritu da, zeren eta 2014tik 2018ra bitartean ia 80.000 enplegu garbi sortu baitziren, lan jardunaldiaren murrizketak oso eragin txikia izan zuen bitartean, nahiz eta produktibitateak ere ekarpen esanguratsua egin zuen. Izan ere, 2015ean izan ezik, urte horretan produktibitatea 0,4 baino ez baitzen hazi, gainontzeko urteetan produktibitatearen hazkundera altu samarra izan zen. Dena dela, 2018an nabaritu zen BPGaren hazkunde orokorra apaldu zela eta hori produktibitatean islatu zen, tasa txikiago batean, 0,8an, hazi zelako.


Hala eta guztiz ere, tasa hori nabarmentzekoa da Europako ingurunearekin eta, are gehiago, ekonomia espainiarrarekin alderatzen bada. Azken herrialde horren ezaugarrietako bat da produktibitateak susperraldian zehar lortu zuen hazkunde txikia, 2018an negatiboa izatera iritsi zena. Izan ere, Espainiako kasuan ere lan partaidetza handiagoak protagonismoa izan zuen hazkunde

iturri gisa, are modu argiagoan ere, iturri dominanteena izan zelako, gainontzeko faktoreek paper hutsala edo ezdeusa izan zuten bitartean.


**BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (I).**

10 irudia


**Euskadi**



**Espania**




**Europar Batasuna 15**




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

**BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (II).  
11 irudia**


**Alemania**



**AEB**



**Txekiar Errepublika**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Europako eta AEBetako ereduak alderatzen direnean, egiaztatuta geratzen da bat egiten dutela enplegua sortzeak eta produktibitatearen hobekuntzak izan duten paperean. Hala eta guztiz ere, deigarria da produktibitateak protagonismo apalagoa izan duela ekonomia europarretan biztanle bakoitzeko BPGaren hazkundeari eginiko ekarpenean. Hori bereziki Alemanian gertatu da, non 2018ko azken zatian industriak bizi zuen krisiaren eragina ekonomia osoaren emaitzan garbi hauteman baitzen.

### 2.3 Ekoizpen arloak

EAEko ekonomia berriro hazi zen 2018an eta, horri esker, bost urte kateatu ditu jarduera biziko dinamika batean. Urte horretako hazkunde tasa %2,8an kokatu zen eta moteltze arina erakusten du 2017an lortutako emaitzaren aldean. Barne eskariak gora egin zuen, ingurune ekonomikoak, eskariaren politikek eta aldi baterako alderdi batzuek, hala nola petrolioaren salneurri merkeak, bultzatuta. Termino nominaletan, EAEko BPGa %3,8 hazi zen urte arteko tasan, deflatoarea %1,0an kokatu baitzen, apal samarra den balio batean.

Eskaintzari dagokionez, 2018an jarduera adar guztiek, salbuespenik gabe, ekarpen positiboak egin zizkieten EAEko balio erantsiaren hazkundeari. Lehen arloak %2,3ko hazkundera lortu zuen urteko batez bestekoan, laugarren hiruhileko bikainak urte arteko tasa balio positiboetara eraman zuelako. Beste aldetik, industriak sendotasuneko zantzuak erakutsi zituen, barne zein kanpo eskarietan oinarrituta. Sektore horren hazkunde tasa %2,1era iritsi zen 2018an. Zenbaki hori gutxituta geratu zen bigarren seihilekoaren moteltzearen ondorioz. Apaltze hori, nagusiki, kanpo merkatuetako ekonomia jarduerak bizi zuen galgak eta automobilgintzan sortu ziren arazoek eragin zuten. Eraikuntzari dagokionez, sektore hori dinamikoena izan zen eta %4,3ko gehikuntza tasa eskuratu zuen urteko batez bestekoan, goranzko norabide garbia erakutsiz. Tasa hori sektoreak 2007tik jaso duen altuena da. Azkenik, zerbitzuek bilakaera oso egonkorrari eutsi zioten eta hazkunde orokorra erakutsi zuen sektorea osatzen duten talde guztietan.

Lehen arloak balio erantsi gordinari eginiko ekarpena %2,3 izan zen 2018an. Izan ere, lau urte kateatu ditu hazkunde tasa positiboak eskuratzen. Unean uneko prezioetan, gehikuntza tasa %4,2an kokatu zen, sektorearen deflatoarea %1,9 hazi zela iradokiz.

**Lehen arloko adierazle nagusiak**  
**9 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
BEG bolumeneko indizea	-3,1	-20,0	13,1	1,0	6,8	2,3
BEG uneko prezioak	0,5	-9,5	3,9	4,2	16,9	4,2
Deflatorea	3,8	13,2	-8,1	3,2	9,4	1,9
Enplegua	-5,5	-1,3	-1,0	0,7	1,0	0,2
Produktibitatea	2,5	-19,0	14,3	0,2	5,8	2,1

Iturria: Eustat.

Nekazaritzaren esparruan, 2018an zehar, azken ekoizpenak behera egin zuen laborantza atalean, basogintzan eta abeltzaintzan. Laborantzako produktuen bolumena oso nabarmen gutxitu zen, batez ere Errioxako ardo beltzaren, ortuarien, zerealen eta fruten ekoizpenaren beherakadaren ondorioz. 2017ko mahats bilketa urriak, baldintza fitosanitario txarrek, errendimenduarien eta ereindako azaleraren jaitsierak eta baldintza meteorologiko txarrek, hurrenez hurren, aipatu diren murrizketa horiek eragin zituzten. Hala eta guztiz ere, laborantzako azken ekoizpenaren balioak gora egin zuen, batez besteko prezioek igoera garrantzitsua izan zutelako. Basogintzaren ekoizpenari dagokionez, pinuaren izurriak edo xingola marroiak ekoizpena jaitsarazi zuen. Prezioek, ordea, goranzko joerari eutsi zioten. Azpiatal hori suspertzen ari da higiezinaren krisiak eragin zizkion kalteetatik eta erronka batzuei aurre egin behar die, hala nola, merkatu berrietan sartzea, berrikuntza eta produktu berrien garapena. Azkenik, abeltzaintzan ere ekoizpenak okerrera egin zuen oro har, hainbat urtez gora egin eta gero. Jaitsiera horrek eta prezioaren igoerak abeltzaintzaren azken ekoizpenaren balioa gutxitu zuten.

Arrantza azpiatalean, 2018ko urtea ona izan zen, hegaluzearen, berdelaren eta betaundiaren (*scomber japonicus*) salmentaren bolumenak gehikuntzak lortu zituelako. Aipatu diren espezie horiek baxurako flotak dituen kanpaina garrantzitsuenak dira. Talde horretan bokarta ere sartzen da. Espezie horren salmenta bolumena gutxitu zen 2017ko kanpainaren aldean. Hegaluzeari dagokionez, 2018ko kanpainaren ezaugarri nagusia iraupena izan zen, aurrekoen aldean oso luzea izan zelako.

EAEko industriak %2,1ean kokatu zuen bere hazkunde erreala 2018an, azken bost urteko urte arteko aldakuntza tasarik txikiena baita. Erregistro hori azken krisiaren aurrean industriak lortu



zituena emaitzetatik ere urrun geratu da. Barne zein kanpo eskariak lagundu zuten 2018ko gehikuntza finkatzen. Lehenengoari dagokionez, hazkunde dinamiko, iraunkor eta egonkorreko ibilbidea erakutsi zuen 2018an zehar. Hala eta guztiz ere, esportazioen narriadurak, bereziki iazko azken hiruhilekoan gertatu baitzen, EAEko industria jardueraren moteltze garrantzitsua eragin zuen. Termino nominaletan, aldakuntza tasa %4,0an kokatu zen. Beraz, sektore horren deflatorea %1,9 hazi zen urte horretan.

**EAEko industriaren BEGaren bilakaera**  
**10 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
BEG bolumeneko indizea	-2,8	2,2	3,1	4,2	3,1	2,1
BEG uneko prezioetan	-2,7	0,8	4,4	4,0	3,5	4,0
Deflatorea	0,1	-1,5	1,3	-0,2	0,4	1,9
Enplegua	-4,0	-1,0	1,3	1,9	2,0	1,7
Produktibitatea	1,2	3,3	1,7	2,3	1,1	0,4
Industria produkzioaren indizea	-3,4	1,4	3,3	3,1	5,7	2,0
Industria jarduera indizea	-2,3	-3,5	5,6	-1,9	2,2	1,0

Iturria: Eustat eta Iberdrola.


Hiruhilekoak aurrera zihoazen heinean industriak erakutsi zuen moteltzeko joera baieztatuta geratu da sektore horretako berariazko adierazle koiunturalak aztertuta. Zehazkiago adierazita, Eustatek zenbatesten dituen IPIaren serieek hazkunde positiboak erakutsi zituzten, baina iazko azken hilekoetan moteltzeko joera hauteman zen. Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, beherakada esanguratsuenak ekipamendurako ondasunetan eta bitarteko ondasunetan gauzatu ziren. Bide beretik, industria jardueraren indizeak sektorearen bilakaera orokorrekina bat egin zuen. Nazioarteko ingurunean agertu ziren igurikimen negatiboek bizitasuna kendu zioten EAEko industriari.

EAEko industriaren azpiatalak aztertuta, urteko batez bestekoan nabarmendu ziren erauzketako, koke ikaztegiko eta petrolioaren finantzeko industriaren ekoizpenaren hazkundeak, baita produktu informatiko eta elektronikoen ere. Kategoria guztietan, modu ia guztiz orokorrean, jarduera bigarren seihilekoan moteldu zela deskribatzen da. Esate baterako, garraio materialaren ekoizpena,


adar kaltetuenetako bat izan baitzen, %12,0 hazi zen lehen sei hilekoan, baina %9,6 jaitsi zen hurren sei hilekoetan.

**EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**  
**12 irudia**


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Industriaren lan merkatuan, enplegu sorrera %1,7 izan zen urteko batez bestekoan. Datu hori aurreko urtean eskuratutakoa baino zertxobait txikiagoa da. Hazkunde hori eta balio erantsi

gordinaren gehikuntza konbinatuta, produktibitatearen irabazia 2018an %0,4 izan zela eratoritzen da, jarduera horretarako oso apala baita.

Eraikuntzaren alorrean, 2018an zehar, hazkundera finkatu eta areagotu zen eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako balio erantsiari ekarpen garrantzitsua egin zion. Izan ere, urteko batez bestekoan, sektore horren jarduera %4,3 handitu zen, beren aldakuntza tasek goranzko norabidea hartuz lau hiruhilekoetan jarraian. Sektorearen azpiatalak aztertuta, dinamismo orokorra hautematen da guztietan, baina bereziki esanguratsua da eraikinen taldean. Zehatz-mehatz adierazita, Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizearen arabera, eraikinen atalaren hazkundera 2018an zehar %13,4ra iritsi zen eta obra zibilarena, berriz, %5,2ra. Sektore horren beste koiuntura adierazle batzuek, hala nola higiezin salmentak eta etxebizitza berriak eraikitze oniritziek, hazkunde tasa altuak izan zituzten 2018an. Beste aldetik, etxebizitzaren salneurria %3,0aren inguruan igo zen.

**Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak**  
**11 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
BEG bolumeneko indizea	-4,6	-1,7	1,1	0,2	3,8	4,3
BEG uneko prezioak	-8,0	-2,1	1,2	0,6	4,7	6,2
Deflatorea	-3,6	-0,4	0,1	0,4	0,9	1,8
Enplegua	-11,9	-3,4	2,2	0,3	2,0	3,6
Produktibitatea	8,3	1,7	-1,0	-0,1	1,8	0,7
Etxebizitzen salerosketak	-12,4	8,8	21,1	12,2	11,4	10,2
Prezioa €/m <sup>2</sup>	-20,8	4,4	-3,7	-18,1	2,0	3,1
Hasitako etxebizitzak	-21,8	-7,6	-16,9	77,2	-74,6	---
Amaitutako etxebizitzak	-32,9	-16,8	15,4	-37,4	8,7	17,4
Bisatuak. Etxebizitzen kopurua	-10,2	0,6	40,1	-14,0	20,2	16,9
Zementuaren itxurazko kontsumoa	-23,7	-4,6	-0,1	2,1	5,9	12,6

Iturria: Eustat, INE, Oficemen eta Sustapen Ministerioa.

Eraikuntzaren lan merkatuak hobera egin zuen 2018an, hazkunde tasaren aldakuntza oso bizia izan zelarik. Gehikuntza %3,6ra iritsi zen eta 2.000 lanpostu inguru sortu zirela adierazi nahi du.

Sektorearen jarduerak izan zuen hedatzea oso intentsiboa izan zen enpleguak sortzen. Izan ere, balio erantsiaren igoera eta enpleguaren datua konbinatuta, sektorearen produktibitatea %0,7 handitu zela adierazten du, ekonomia osoan lortutakoaren antzekoa.

Zerbitzuei dagokienez, beraren balio erantsiaren aldakuntza tasa %2,9an kokatu zen 2018an. Tasa horrek bi hamarrenetan gairitu zuen aurreko urtean jarduerak izan zuen gehikuntza. Bilakaera iraunkor hori orokorra izan zen Eustatek argitaratzen duen kontabilitatean kontuan hartzen dituen hiru azpiataletan. Hain zuzen ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldea %2,8an kokatu zen. Beste aldetik, administrazio publikoak, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituen taldeak %2,4 handitu zuen bere balio erantsia. Hirugarren taldean, gainontzeko zerbitzuek osatua, hazkundearen urte arteko tasak joera dinamikoena erakutsi zuen eta %3,1 lortu arte bizkortu zen.

**Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak**  
**12 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
BEG bolumenen indizea	-1,0	1,7	3,5	2,8	2,7	2,9
BEG uneko prezioak	-0,5	2,0	3,7	3,6	3,6	4,0
Deflatorea	0,5	0,3	0,2	0,8	0,9	1,1
Enplegua	-1,6	1,0	2,4	2,5	2,1	2,1
Produktibitatea	0,6	0,7	1,1	0,3	0,6	0,8
Bidaiarien gauraldiak	-3,1	4,0	8,2	8,9	2,6	7,2
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,89	1,92	1,91	1,94	1,92	1,97
Plazen betetze maila (ehunekoa)	44,3	46,4	49,8	53,0	54,2	56,8
Zerbitzuen koiuntura indizea	-5,0	1,3	2,5	3,9	3,2	1,1

Iturria: Eustat.

Merkataritzaren azpiatalean, berariazko ekonomia adierazleek bilakaera ona deskribatu zuten. Izan ere, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak (ZKI) hainbat kategoriaren bizitasun esanguratsua islatzen du, hala nola elikagaiak ez diren kontsumorako produktuen handizkako merkataritzarena eta makineria eta ekipamendurako ondasunena. Txikizkako merkataritzari dagokionez, joera egonkorra erakusten du, automobilentzako erregaien salmentak erakutsi duen

bilakaera onari esker. Lan esparruan, ZKIk zenbatetsi du merkataritzako azpiatal guztietan sortu zirela lanpostuak.

Turismoari dagokionez, Eustatek argitaratzen duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak sektoreak EAEn duen egoera bikaina islatzen du. Izan ere, turisten batez besteko egonaldia 1,97 egunetara luzatu zen eta urteko zifra hori serie historiko osoko maximoa da. EAEko hotel establezimenduen kopurua bat dator joera positibo horrekin eta 2018an %3,0 handitu zen, hoteletako tokien eskaintza areagotuz, bereziki hiru edo izar gehiagoko hoteletan. Beste aldetik, tokien betetze maila bizkortu zen eta %58,6ra iritsi zen, gehienezko datua abuztuan lortu zelarik, %80,5era iritsita. Bidaiarien sarrerak %4,4 hazi zen aurreko urteko kopuruaren aldean. Hazkundera bi multzoetan hauteman zen, hots, Estatuko gainontzeko erkidegoetatik etorri ziren turisten artean (%2,7) zein atzeritik iritsitakoetan (%6,9). Atzerriko bisitarien artean, gehikuntza handiena turista europarrek izan zuten eta, neurri txikiagoan, gainontzeko eremuetatik etorritakoek. Hala eta guztiz ere, atzeritar turisten ratioa bisitari guztien artean egonkor ibili zen 2018an ere, guztizkoaren %40 inguru bereganatuta.

**Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka. Bolumenaren indize kateatua**  
**13 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Zerbitzuak guztira</b>	<b>-1,0</b>	<b>1,7</b>	<b>3,5</b>	<b>2,8</b>	<b>2,7</b>	<b>2,9</b>
Merkataritza, ostalaritza eta	-1,5	1,9	5,0	3,6	4,0	2,8
AA. PP., hezkuntza, osasuna eta	0,7	2,6	1,5	2,4	2,2	2,4
Gainontzeko zerbitzuak	-1,6	1,0	3,6	2,5	2,2	3,1


Iturria: Eustat.

Garraioaren azpisektorea zerbitzuetako adar dinamikoenetako bat izan zen 2018an. Horixe eratortzen da ZKI inkestatik salmentei eta enplegu sorrerari erreparatzen zaienean. AENAK argitaratu dituen datuek kategoria horren egoera bikaina baieztatzen dute. Izan ere, bidaiarien trafikoa EAEko hiru aireportuetan %10,5 hazi zen 2018an. Aldakuntza tasa handiena Forondako aireportuari dagokio. Aireportu horretako eragiketen kopurua %15,6 areagotu zen aurreko urteko datuaren aldean, helmuga berriak eskaini zirelako eta aurrekoei eutsi zielako. Salgaien trafikoari dagokionez ere, Forondako aireportuak bere jardueran bizitasun handia erakutsi zuen eta %2,8 hazi zen 2018an.

## 2.4 Eskaria

EAEko ekonomia jardueraren hazkundera barne eskariaren hazkunde erritmo altuan oinarritu zen 2018an, %2,8an zenbatetsi dena. Balio hori oso esanguratsua da, baina aurreko urtean lortutakoa baino bi hamarren txikiagoa da. Hala eta guztiz ere, barne eskariak bost urte kateatu ditu jarraian igoerak pilatzen.

### Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak 13 irudia



Iturria: Eustat.

Barne eskariaren bilakaera ona berau osatzen duten atal guztien joera positiboan oinarritu zen. Izan ere, kapital eraketa gordinak %4,1era areagotu zuen bere hazkundera eta barne eskariaren osagairik dinamikoena izan zen, 2017ko emaitzaren aldean bizkortze esanguratsua erakutsi zuelako. Osagai horretan, hazkundera orokorra izan zen eta bai ekipamendurako ondasunetan bai gainontzeko inbertsioan gauzatu zen. Beste aldetik, azken kontsumoko gastuak ere bilakaera ona erakutsi zuen 2018an zehar, kontsumo publikoari eta, nagusiki, kontsumo pribatuari esker. Kanpo eskariari dagokionez, EAEko BPGari egin zion ekarpena negatiboa izan zen, baina hutsala, eta hamarren bakar bat kendu zion hazkunderari.

EAEko familien gastua azken kontsumoan %2,6 hazi zen 2018ko batez bestekoan, urte arteko tasan. Kontsumitzaileek erosteko erabakiak hartu zituzten lan merkatuaren hobekuntza, errenten eta ondare egoeraren igoera eta bankuen finantzazioa lortzeko baldintza arinak kontuan hartuta. Beste aldetik, administrazio publikoen gastuak urte arteko aldakuntza tasa motelagoa erakutsi zuen, urte osorako batez besteko aldakuntza tasa %1,7an kokatuta. Oro har, azken kontsumoan eginiko gastua %2,4 handitu zen.

**Errenten adierazleen bilakaera**  
**14 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Soldatapekoen ordainketa	-1,7	0,8	2,5	3,0	3,5	---
Urtean adostutako soldata igoera	0,9	0,7	0,6	1,0	1,5	1,9
Enplegua	-2,9	0,2	2,1	2,2	2,1	2,1
Pentsioen kopurua (*)	1,6	1,4	1,2	1,2	1,3	1,4
Batez besteko pentsioa (*)	3,2	1,8	2,0	2,0	2,0	2,7
PFEZren diru bilketa	-1,5	2,9	5,9	4,1	6,0	5,4
Banku arteko int. tasa (urte 1erako euriborra)(**)	0,5	0,5	0,2	0,0	-0,1	-0,2
KPI	1,6	0,2	-0,3	0,0	2,0	1,6

(\*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak. (\*\*) Hilabeteko batez bestekoekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren, Lan Harremanen Kontseilua, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Kontsumo pribatuaren berariazko adierazleek agregatu makroekonomikoaren dinamismo berbera aurkeztu zuten. Adostutako soldata igoerak eta langile publikoen ordainketaren hazkundeak familien kontsumoaren hazkundera ahalbidetu zuten. Orobat, gobernuak onartu zuen pentsioen igoerak familien errenta gorarazi zuen, administrazio publikoen transferentzia arrunt garbien bitartez. Beste aldetik, txikizkako merkataritzaren indizeek, Eustatek argitaratu duen arabera, hazkunde tasa positiboak jaso zituzten 2018an. Ondasun iraunkorren kontsumoari dagokionez, turismoen matrikulazioak %4,6ko hazkunde tasa esanguratsua eskuratu zuen. Hala eta guztiz ere, automobilen kasuan salmentak gutxitu ziren iazko azken zatian. Jaitsiera horren arrazoien artean, krisian atzeratu zen eskaria jadanik ase egotea eta isuri kutsagarrii buruz 2018ko irailean indarrean sartu zen araudia betetzen zuten ibilgailuen eskaintza murriztagoa izatea aipatu behar dira.

Kontsumitzaileen konfiantzak profil baikorrari eutsi zion 2018an zehar. Laboral Kutxak egiten duen indizearen arabera, konfiantza indizearen urteko batez besteko balioa 1 izan zen 2018an, aurreko urteko emaitza berdinduz. Bi balio horiek urrun daude aurreko urteetako ezkortasunetik. Datu globalaren oinarrian, ekonomia orokorraren bilakaeraz dagoen konfiantza handiagoa eta lan merkatuaren etorkizuneko bilakaeraz duten baikortasuna daude.

**Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera**  
**15 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Kontsumo pribatua (bolumen indizea)	-0,9	2,3	3,3	3,3	3,0	2,6
Kontsumo publikoa (bolumen indizea)	-1,8	0,7	2,1	1,8	2,4	1,7
IPI kontsumo ondasunak. EAE	-4,9	0,0	3,0	1,4	5,6	5,7
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	-2,0	1,7	1,3	1,9	1,0	-0,7
Automobilen matrikulazioa	8,4	19,9	16,6	4,7	8,0	4,6
Txikizkako merkataritzaren indizea	-3,9	0,0	1,7	1,6	0,8	0,8

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Inbertsioak hazkunde erritmoa bizkortu zuen aurreko urtekoaren aldean, %4,1eko aldakuntza tasa bati esker. Bizitasun hori agregatuaren bi osagaietan hauteman zen. Gorakada bikain hori ahalbidetu zuten faktoreak enpresen finantzazio kostu apalak, enpresen ondare egoera ona eta barne eskariaren sendotasuna dira. Inbertsioarekin lotura duten adierazle batzuek, hala nola zama ibilgailuen matrikulazioak eta ekipamendurako ondasunen inportazioek, hedatzeko joera esanguratsua marraztu zuten. Enpresarien 2018ko perspektibek, Laboral Kutxak osatutako enpresen konfiantza inkestan jasoak, EAEko enpresarien artean baikortasuna hedatu zela egiaztatu zuen, aurreko urteko balioekin alderatuta. Hobekuntza hori oso bizia izan zen iazko lehen seihilekoan, baina okertze leuna erakutsi zuen azken hilekoetan, kanpo inguruneak bizi zuen okertzearekin lotuta. Oro har, enpresen panorama nahiko positiboa izan zen eta ekoizteko ahalmena eta enplegua areagotzeko asmoari eusten diote.



**Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera**  
**16 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Kapital eraketa gordina (bolumenen indize kateatua)	-4,9	-0,2	3,8	5,5	3,3	4,1
- Ekipamendurako ondasunak	-3,6	3,3	7,3	8,6	3,2	4,0
- Gainontzeko inbertsioa	-5,6	-1,9	2,0	3,8	3,4	4,2
IPI ekipamendurako ondasunak:	-3,8	2,3	6,8	9,7	3,3	3,3
- IPI garraio materiala	-2,0	3,4	3,0	22,3	6,2	1,2
- IPI makineria eta ekipamendua	-1,0	0,9	6,3	3,1	0,3	5,2
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	-7,2	-2,3	40,9	12,7	5,6	4,0
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-3,0	13,3	32,4	6,2	10,3	18,7

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

**Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn**  
**17 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2013	2014	2015 (B)	2016 (A)	2017 (*)	2018 (*)	Milioi € 2018(*)
<b>Erkidegoen arteko merkataritza</b>							
Esportazioak	-10,7	-6,2	4,9	-1,5	17,1	-1,7	15.442,8
Inportazioak	-8,0	-1,3	10,9	0,2	6,3	1,0	15.373,8
Saldoa guztira (milioi €)	783,8	84,2	-673,2	-900,4	484,8	69,1	69,1
<b>Erkidegoen barneko merkataritza</b>							
Totala	-0,4	13,2	-1,4	-3,4	3,9	3,6	10.935,2

(B) Behin-behineko datuak. (A) Aurrerapena (\*) Aurreikuspena.


Iturria: C-interreg proiektua.

EAEko merkataritza aztertuta, C-Interreg datu baseak eskaintzen duen informazioak bide bat ematen du EAEk gainontzeko erkidegoekin (erkidego arteko merkataritza) dituen ondasunen (zerbitzurik gabe) merkataritza fluxuak eta baita ere EAEko hiru lurraldeen artekoak ere (erkidegoaren barneko merkataritza). Datu base handi horren arabera, Estatuko gainontzeko erkidegoetara esportatutako ondasunen balioa %1,7 gutxitu zen 2018an. Gainontzeko


erkidegoetan eginiko erosketei dagokienez, %1,0 handitu ziren. Esportazioen balioa inportazioena baino zertxobait handiagoa izan zen. Beraz, merkataritza saldoa 69 milioi eurotako izan zen, EAEn aldekoa. Hori horrela izanda, 2017an eta 2018an merkataritza superabita lortu da gainontzeko erkidegoekin eginiko salmentetan, aurreko bi urteetan (2015ean eta 2016an) saldo negatiboa jaso eta gero.

**EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko**  
**14 irudia**

Esportazioak



Inportazioak




Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta Eustat .


EAEk atzerriarekin izan zuen merkataritzaren analisisan, munduko esportazioen kuotak, hots, munduko salmenta guztien artean EAEk atzerrian saldutakoak duen partaidetzak, 2016an hasi zuen goranzko joera leunari eutsi zion eta %0,158 bereganatu zuen. Inportazioei dagokienez, antzeko bilakaera hauteman zen. 2016an jaso zen minimoaren ondoren, inportazioen beherakada garrantzitsuak eraginda (%-7,3), 2018an lortu zen 2017an hasitako goranzko joerari eustea. Inbertsioaren protagonismo handiagoak eta kontsumo pribatuaren sendotasunak inportazioen bizitasuna bultzatu zuten. Horiek merkatu kuota %0,125era igo zuten. Dena dela, bi agregatu horien joera goranzkoa bada ere, aldakuntza horiek hutsalak izan ziren termino errealetan eta oraindik urrun daude 2007an lortutako maximoetatik.

**Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan Urte arteko aldakuntza tasak (I)  
15 irudia**


Esportazioak guztira




Inportazioak guztira



Esportazio ez energetikoak



Inportazio ez energetikoak



Iturria: Eustat. 2018ko datuak behin-behinekoak dira.


Eustatek argitaratu dituen datuen arabera, 2018an atzerrian saldutako ondasunen esportazioen guztizkoak serie historiko osoaren markak gainditu zituen eta 25.487 milioi euroetara iritsi zen. Datu hori 2017an jaso zena baino %6,8 handiagoa da. Inoizko emaitzarik gorena eskuratu bazen ere, iazko azken zatia negatiboa izan zen, azaroan (%-5,5) eta abenduan (%-4,9) esportazioek beherakada

nabarmena jaso baitzuten. Aldi berean, merkatu garrantzitsu batzuek, hala nola alemaniarrek eta italiarrak, hazkunde hutsala jaso zuten edo ia atzeraldian sartu.


Esportazioen balioak ezagutu duen gorakada horretan, prezioen bilakaerak paper garrantzitsua jokatu zuen. Hain zuzen ere, esportazioen prezioak, oro har, %6,0 igo ziren. Tasa hori eurotan baloratutako salmentarena baino zertxobait txikiagoa da. Tonatan neurtutako salmentak %1,2 murriztu ziren. Horrek agerian uzten du gehikuntza prezioen garestitzean oinarritu zela neurri handi batean.

**Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)**  
**16 irudia**

Energiaren esportazioak



Energiaren inportazioak




Iturria: Eustat. 2018ko datuak behin-behinekoak dira.

Inportazioei dagokienez, oraindik osasuntsua den EAEko ekonomiak, batez ere barne eskariak, erosketak gorarazi zituen, guztira 20.288 milioi euro baino gehiago balio zutenak, 2017an berreskuratu zuten goranzko norabidea sendotuz. Diru kopuru horrek %8,8an gairatu zuen 2017an jasotako kantitatea. Halaber, tasa hori prezioen gorakada (%6,3) baino handiagoa izan zen. Azkenik, esportazioak ez bezala, inportazioak tonatan ere hazi ziren.

Prezioen igoera hori are esanguratsuagoa izan zen erregai mineralen atalean, zeren eta energiaren esportazioak %16,3 hazi baitziren eurotan neurtuta eta beren prezioak %26,6. Tasa hori %32,8ra iritsi zen 2018ko bigarren hiruhilekoan. Emaitza ona izan zen arren, EA Eren mendekotasun energetikoa oraindik oso nabarmena izan zen, zeren eta erregai mineralen esportazioen balioa 2.566 milioi eurotik gorakoa izan zen arren, atzerrian erositako produktu horien balioa halako bi (5.729 milioi euro 2018an) izan zen. Aurrekoaren ondorioz, merkataritza defizita ia 3.163 milioi eurokoa izan zen, hots, 2017an jasotakoa baino 350 milioi euro gehiago.

**Ondasunen esportazioak eta inportazioak arantzel sekzioka. Ehunekoak**  
**17 irudia**



Iturria: Eustat. 2018ko datuak behin-behinekoak dira.

Energiaz bestelako esportazioek ere nabaritu zuten prezioen igoera bere emaitzetan, baina talde horretan garestitzea motelagoa izan zen. Zehazkiago adierazita, prezioak %4,5 hazi ziren eta salmenten balioa eurotan %5,9. Tasa horri esker, energiaren bestelako esportazioek ordura arte inoiz jaso duten mailarik gorena eskuratu zuten, urte osoan ia 22.911 milioi euro salduta. Emaitza hori are handiagoa izan zitekeen garraio materialak jaitsiera bat jaso izan ez balu. Izan ere, bi urtez jarraian bi zenbakiko hazkunde tasak jaso ondoren, 2018an garraio materialaren salmenta atzerrian %0,2 murriztu zen. Gasolioaren inguruan piztu zen ziurgabetasunak, diesel motorra duten ibilgailuetan eragina duen araudi berria indarrean jarri zelako, Gasteizko Mercedes-Benz lantegiaren ekoizpena eta esportazioa kaltetu zituen, hainbat egunetan ekoizpena etetera iritsi baitzen. Horren

ondorioz, ibilgailuen salmenta %20,5 gutxitu zen laugarren hiruhilekoan, urteko gainontzeko hilekoetan lortutako irabaziak konpentsatuz. Hala eta guztiz ere, makineria eta tresnen atalak erakutsi zuen bilakaera onak lagundu zuen ekipamendurako ondasunek, oro har, emaitza positiboa lortzen. Izan ere, makineriak eta tresnek ia 5.000 milioi euro balio zuten produktuak saldu zituzten, salmentak %7,1 areagotuz.

**EAEk Europar Batasunera bidalitako esportazioak. 2018**  
**18 taula**

<b>Adarrak</b>	<b>Kopurua. Mila euro</b>	<b>Urte arteko aldakuntza tasa</b>	<b>Egitura</b>
Nekazaritza produktuak	665.709	3,3	4,0
Produktu mineralak	1.638.732	12,8	9,8
Produktu kimikoak	399.515	15,8	2,4
Plastiko eta kautxua	1.360.895	11,5	8,1
Metalak eta bere manufakturak	4.194.917	11,3	25,1
Makinak eta aparatuak	2.468.084	14,7	14,8
Garraio materiala	4.864.545	-0,4	29,1
Papera	415.056	10,9	2,5
Bestelako manufakturak	659.051	2,9	3,9
Saillkatu gabeak	46.018	47,6	0,3
Guztira	16.712.522	7,7	100,0


Behin-behineko datuak.  
Iturria: Eustat.

Gainontzeko taldeetan, aldeko joera hauteman zen. Produktu kimikoak nabarmendu ziren dinamikoenak izan zirelako, %24,8ko gehikuntza batekin. Ondoren, metal arruntak eta beren manufakturak kokatu ziren, emaitza esanguratsuak jaso zituztelako eta %9,6 hazi. Baita plastikoa eta kautxuak ere lortu zuen esportazioak %9,4 handitzea, automobilgintzarekin lotura estua duen arren. Hala eta guztiz ere, azken talde horren salmentak nabarmen gutxitu ziren iazko azken zatian, neurri batean automobil gutxiago ekoitzi zirelako, baina hirugarren hiruhilekoaren emaitza bikainak (%21,6) moteltze hori konpentsatu zuen.


Geografia eremuka, Europar Batasuna izan zen berriro EAEko produktuen merkatu behinena eta esportazio guztien %65,6 bereganatu zuen. 2018ko azken zatian merkataritza bazkide nagusiek ahultasuna erakutsi zuten arren, EAEko enpresek %7,7 gehiago saldu zuten Europar Batasunean. Esportatutako produktuei dagokienez, garraio materiala izan zen talde nagusia, ondoren metal arruntak eta beren manufakturak kokatu zirelarik, bereziki siderurgiari lotutako produktuak. Hirugarren tokian, makinak eta tresnak agertzen dira. Egitura hori Europako bazkide nagusi guztietan errepikatzen da. Automobilgintzako salmentak bakarrik gutxitu ziren, diesel motorren arazoarengatik, eta jaitsiera ez zen oso sakona izan. Beraz, gainontzeko atalen hazkunde sendoak salmenten beste gorakada bat ahalbidetu zuen.

### Esportazioak guztira. Frantzia eta Alemania. Egitura 18 irudia

Frantzia



Alemania



Iturria: Eustat. 2018ko datuak behin-behinekoak dira.

2018an, Frantziak lidergoa berreskuratu zuen EAEko esportazioen helmuga nagusi gisa, Alemania bigarren tokira bidaliz. Izan ere, Frantziara esportatutakoa 3.887 milioi euroetara iritsi zen, %5,2ko gehikuntza tasa lortuta. Alemaniak, berriz, 3.835 milioi euroko erosketak egin zituen EAEn. Herrialde hartako ekonomiak iazko bigarren seihilekoan pairatu zuen moteltze garrantzitsuak ahalbidetu zuen posizioen aldaketa hori.

Frantziako merkatuaren kasuan, makinan eta tresnen salmenta, hala elektrikoak nola mekanikoak, lehen tokian kokatu ziren, %23,1 azpimarragarria haziz. Ondoren, metal arruntek eta beren manufakturek jaso zuten gehikuntza garrantzitsua (%8,4), bereziki galdaketa manufaktura eta burdina eta altzairu galdaketarena, aipatu behar da. Gorakada sendo horiek produktu mineralen jaitsiera (%-0,8) eta ibilgailu automobilena (%-8,3) konpentsatu zuten. Hala eta guztiz ere, atal horiek pisua irabazten ari dira esportazioen egiturari. Izan ere, azken hamar urtean produktu mineralen eta garraio materialaren esportazioen pisua hazi dena metal arrunten eta makinak eta tresnen salmentaren pisua jaitsi denaren oso antzekoa da. Dena dela, aipatu berri diren bi talde horiek oraindik biltzen dute salmenta guztien ia %40,0. Beraz, beren bilakaerak oso modu garrantzitsu batean baldintzatzen du Frantziara esportatutakoaren bilakaera orokorra.

**Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena. 2018**  
**19 taula**

<b>Esportazioak</b>	<b>Guztiarekiko %</b>	<b>Inportazioak</b>	<b>Guztiarekiko %</b>
Frantzia	15,3	Alemania	14,4
Alemania	15,0	Frantzia	9,4
AEB	8,3	Txina	5,7
Erresuma Batuak	6,8	Italia	4,9
Italia	4,9	Mexiko	4,5
Herbehereak	4,3	Libia	4,1
Portugal	4,1	Erresuma Batua	3,7
Belgika	3,8	Irlanda	3,2
Mexiko	2,5	Herbehereak	3,2
Polonia	2,1	Brasil	3,1

Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat.


Automobilgintzak ingurugiroko estandar berriak ezartzeko orduan dituen zailtasunek eta kontsumitzaileek automobilaren motorra aukeratzeko dituzten zalantzek oso bereziki kaltetu zituzten EAEn eta Alemaniaren arteko merkataritza salerosketak. Izan ere, merkatu horretan gehien saltzen dena garraio materiala da oraindik. Zehazkiago, automobil salmenta, Alemaniara 2018an esportatutako guztiaren %45,8 bereganatu zuelako. Izan ere, EAEk esportatzen dituen ibilgailu automobil guztietatik ia %30,0 Alemanian saltzen dira. Zorionez, gainontzeko talde garrantzitsu guztiek, hala nola metal arruntak eta beren manufakturek (%19,2), makinak eta tresnek




(%8,9), eta plastikoa eta kautxuak (%13,6), gehikuntza tasa handiak eskuratu zituzten eta garraio materialak nozitu zuen %9,1eko jaitsiera konpentsatzea lortu zuten, esportazioen guttizkoa %1,6ra igoaraziz. Hala eta gutziz ere, Alemanian saldu ziren ibilgailuen balioa 1.755 milioi euroetara hurbildu zen. Datu hori gaur arte jaso den bigarren erregistrorik altuena da, 2017an lortu zen 1.920 milioi eurotako salmentaren ondoren.

### Esportazioak guztira. AEB eta Erresuma Batua. Egitura 19 irudia

AEB



Erresuma Batua



Iturria: Eustat. 2018ko datuak behin-behinekoak dira.

EAEko produktuek, oraingoz, saihestu dute Trumpek aldarrikatu duen merkataritza gerra eta EAEko esportazioak AEBetara 2017ko erritmoaren antzean hazi ziren 2018an. Herrialde iparramerikarra finkatu da EAEko eragileen hirugarren merkataritza bazkide gisa eta koska bat kendu zien EAEko enpresen helmuga ohikoena diren aurreko bie. Guztira, AEBetara 2.118 milioi euro baino gehiago balio zuten produktuak bidali ziren. Diru kopuru hori aurreko urtean saldutakoa baino %16,4 handiagoa da. Negozio adar nagusia erregai mineralen salmenta izan zen, beraren balioa %28,2 areagotu baitzen, neurri batean petrolioaren garestitzearen ondorioz. Izan ere, erregai mineralen salmentak neurri handi batean baldintzatzen du bi lurraldeen arteko merkataritza harremana, 2018an salmenta guztien %38,6 bereganatu zuelako. Hala ere, poliki-poliki, bestelako produktuak

ere erosten ari direla hautematen da, hala nola makinak eta tresnak (%17,6) eta siderurgiari lotutako metalak (%10,4).

**EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga  
20 taula**

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2013	2014	2015	2016	2017	2018(*)	2018 (*)
<b>Esportazioak</b>	<b>-1,6</b>	<b>9,1</b>	<b>-2,9</b>	<b>-1,6</b>	<b>11,6</b>	<b>6,8</b>	<b>25.487,4</b>
ELGE	-1,0	9,0	-0,7	1,7	11,9	7,9	21.000,8
Europar Batasuna	-3,6	12,3	-1,6	1,6	10,9	7,7	16.712,5
Alemania	-0,4	4,8	3,2	4,7	13,0	1,6	3.835,4
Frantzia	-7,2	1,3	3,2	-0,4	4,0	5,2	3.887,3
Erresuma Batua	-13,8	14,0	2,3	-7,7	16,1	14,5	1.731,8
Italia	-3,7	9,9	13,0	-9,2	6,0	13,8	1.252,2
AEB	12,4	15,0	0,6	-10,5	18,4	16,4	2.118,5
Japonian	20,4	-60,4	90,8	191,9	-29,9	-13,1	111,7
Errusia	4,6	-3,6	-12,3	13,4	23,3	5,9	249,9
Txina	18,1	28,5	-30,5	18,9	2,3	-12,3	469,7

(\*) Behin-behineko datuak.  
Iturria: Eustat.

EAEko esportazioek merkatu britainiarrean ere egin zuten hobera, Brexitaren prozesu korapilatsuak ziurgabetasuna eragin duen arren. Izan ere, EAEko esportazioak Erresuma Batura %14,5 hazi ziren eta 1.732 milioi euro ingurura iritsi ziren, berriro kopururik gorena lortuz. Merkatu horretan, adar handi guztiek gehikuntza tasa positiboak eskuratu zituzten, baina ibilgailu automobilenak ere, %11,2 gehiago saldu zuelako. Izan ere, automobilen salmentak iazko azken hiruhilekoan bakarrik egin zuen behera, baina aurreko hiruhilekoetako emaitza bikainek konpentsatu zuten jaitsiera hori. Horri erantsi behar zaio siderurgiako produktuen salmentak lortu zuen emaitza ona (%18,9), beharbada britainiarrek, Brexitaren hurbiltasunagatik, erosketak aurreratu zituztelako edo EAEko eragileek merkatuko nitxo berriak bilatzen ari direlako, kontuan hartuta AEBek altzairuari muga zergak igoko dizkiola iragarri ondoren. Beherantz egin zuen talde bakarra manufaktura izan zen, baina talde horren pisua hutsala da.

Azkenik, Italian gehikuntza positiboak lortu ziren adar guztietako esportazioetan. Herrialdean iazko azken hilekoetan bizi zen ezegonkortasunak ez zien kalterik ekarri bertako kontsumitzaileek eta enpresek EAEn egiten dituzten erosketei, esportazio horien diru kopurua 1.252 milioi euroetara iritsi zelako, 2017an baino %13,8 gehiago. Ekipamendurako ondasunen salmentak (%13,7), garraio materiala barne (%14,9), eta metal arruntak eta beren manufakturenak (%11,4) azaltzen dute hazkunde hori.


Ohiko merkatuetan ez ezik, EAEko enpresek azaleratzen ari diren merkatuetan ere hobetu zituzten beren salmenten zenbakiak, nahiz eta azken horietan lortu ziren gehikuntza tasak txikiagoak izan ziren. Zehatz-mehatz adierazita, ELGETik kanpo dauden herrialdeetara bideratutako esportazioak %2,2 areagotu ziren. Bizitasun motelago hori, neurri batean, merkatu txinatarrean eskuratu ziren emaitza txarrek baldintzatu zuen, non salmentak %12,3 gutxitu baitziren. Herrialde horretan, salmenten bilakaera txarra ia orokorra izan zen. Produktu kimikoen eta garraio materialak bakarrik eskuratu zituzten hobekuntzak, baina bi atal horiek esportatutako guztiaren %9,0 bakarrik biltzen dute. Hala ere, narriadura hori kontu handiz hartu behar da. Alde batetik, 2017an EAEko esportazioek beren maximoa lortu zutelako Txinako merkatuan eta maila horri eustea zaila izango zen, eta, beste aldetik, gorabehera handiko merkatua delako.

Dagoeneko aipatu den bezala, atzerriko inportatutako ondasunen gehikuntza tasa %8,8ra iritsi zen, hots, esportazioena baino zertxobait gehiago. Gehikuntza hori herrialde garatuetan (%4,4) zein azaleratzen ari direnetan (%18,4) lortu zen. Bi kasuetan, energia alorreko produktuen garestitzeak baldintzatu zuen gorakada, esportazioen kasuan baino are gehiago oraindik. Izan ere, energiak inportazio guztien %28,2 biltzen ditu, baina esportazioen %10,1 bakarrik. Energiaren bestelako produktuen inportazioa, berriz, %6,8 areagotu zen. Kasu horretan, garraio materialaren inportazioak ere behera egin zuen (%0,8), baina gainontzeko atalen bilakaera onak alde handiz konpentsatu zuen jaitsiera hori. Izan ere, metal arruntak eta beren manufakturen erosketak (%10,2) handitu zen, batez ere burdina, altzairua eta aluminioa. Orobat, makinak, tresnak eta material elektrikoa zein mekanikoa ere gehiago erosi zen (%5,7). Pisu gutxiagoa duten taldeek ere bilakaera ona izan zuten. Paperaren inportazioa %14,9 hazi zen eta produktu kimikoen zein plastiko eta kautxuarena %2,0 gehiago inportatu zen.

Ekonomia aurreratuen multzoak, oro har, emaitza positiboa izan bazuen ere, Europar Batasunetik iritsitako inportazioak %0,8 gutxitu ziren. Kontinente zaharretik, nagusiki, galdaketa manufaktura eta makina eta tresna mekanikoak inportatu ohi dira. 2014tik aurrera, aipatu diren talde horiei energia alorreko produktuen kopuru garrantzitsu bat erantsi zaie, guztizkoaren ia %20,0 izatera iritsi baitziren. Energia produktu horien jatorri nagusia Erresuma Batua da. Dolarraren balio irabazi

handiak eta gatazka geopolitikoek energiaren produktuen jatorria aldatzera behartu zuten eta Erresuma Batua bihurtu zuten EAEko eragileen hornitzaile nagusia erregai mineralari dagokienez. 2016an, joera hori neurri batean aldatu zen, truke tasaren egonkortasunagatik eta tentsioengatik, eta 2017an berriro sustatu zen Erresuma Batuko aukera energiako produktuen hornitzaile gisa, Errusiari ezarri zizkieten zigorrek lagunduta. Hain zuzen ere, 2017an merkatu britainiarretik 804 milioi euro balio zuten produktu energetikoak inportatu ziren. Diru kopuru hori Erresuma Batutik inportatutako guztiaren %60,0 izan zen.

**Inportazioak guztira Europar Batasuna eta Erresuma Batua. Talde nagusiak. Egitura 20 irudia**




Iturria: Eustat. 2018ko datuak behin-behinekoak dira.

2018an euroak libera esterlinaren aurrean balioa irabazi zuen arren, merkatu britainiarretan bizi zen ziurgabetasunak EAEko eragileak behartu zituen beste merkatu batzuk bilatzera energia erosteko. Hori horrela izanda, Erresuma Batutik inportatutako energiaren balioa 208 milioi eurotara murriztu zen, energiaren salmenta %73,8 gutxituz. Horren ondorioz, Erresuma Batutik inportatutako guztiaren diru kopurua %43,0 jaitsi zen. Mexikok bete zuen energiaren hornitzaile nagusiaren papera, erosi zen energia guztiaren %15,3 bereganatuta. Herrialde horren ondoren, Libia (%14,3) eta Nigeria (%9,6) agertu ziren. Beraz, une hauetan energiaren merkatua zatituago dago, herrialde baten edo bestearen mende egon gabe.


Energiako produktuak albo batera utzita, Alemania izan zen berriro EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusia eta herrialde hartatik inportatutakoa %4,6 areagotu zen, atzerrian erositako produktu guztien %14,4 bereganatuta. Herrialde horretatik inportatutakoa oso bereziki makinak eta tresna mekanikoak dira, urtetik urtera gora egin baitute, ibilgailu automobilen kaltetan, azken hori izan baitzen murriztu zen bakarra. Frantziak erosketak guztien %9,4 bereganatu zituen. Herrialde horretatik ekartzen denak bilakaera egonkorra eta nahiko dibertsifikatua erakusten du denboran zehar. Pisu handiena metal arruntak eta beren manufakturrei egokitu zitzaaien, ondoren tresna mekanikoak kokatu zirelarik. BI talde horien bilakaera onaren ondorioz, erosketen guztizkoa %5,6 areagotu zen.

### Inportazioak guztira. Frantzia eta Alemania. Egitura 21 irudia

Frantzia



Alemania



Iturria: Eustat. 2018ko datuak behin-behinekoak dira.

AEBek, Errusiak bezala, protagonismoa galdu zuen energia hornitzaile gisa. Hala eta guztiz ere, eta produktu energetikoen erosketak %15,1 jaitsi zen arren, makinak eta tresnak taldearen eta, neurri txikiagoan, metal arruntak eta beren manufakturrak atalaren bilakaera onak jaitsiera hori konpentsatu zuten. Beraz, AEBetatik ekarritako inportazioen balioa %13,5 areagotu zen. Energiaren erosketak izan zuen beherakada kontuan hartu gabe, herrialde horretatik ekarritako guztia balioa %26,8ra igoko zen.

**EAEn eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria**  
**21 taula**


	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2013	2014	2015	2016	2017	2018(*)	2018(*)
<b>Inportazioak</b>	<b>0,9</b>	<b>7,4</b>	<b>-1,8</b>	<b>-7,3</b>	<b>19,9</b>	<b>8,8</b>	<b>20.288,8</b>
ELGE	-0,5	11,9	4,0	-6,9	17,1	4,4	13.416,2
Europar Batasuna	-2,8	25,5	7,8	-7,9	13,1	-0,8	10.476,9
Alemania	-6,2	5,2	19,4	9,9	6,7	4,9	2.919,4
Frantzia	-1,4	-2,2	11,1	-8,9	12,9	5,6	1.914,3
Erresuma Batua	-5,2	187,8	14,8	-52,5	60,6	-43,0	755,6
Italia	-16,1	2,8	2,2	3,1	8,2	6,9	994,9
AEB	40,8	-52,5	3,1	-4,6	19,5	13,5	504,5
Japonian	-14,6	-1,0	2,1	63,5	6,9	-8,7	203,3
Errusia	19,0	-36,0	-47,2	33,7	-44,0	-39,4	385,9
Txina	-3,3	15,7	25,0	-11,1	0,5	9,5	1.148,8
Brasil	68,9	-0,1	47,1	42,1	98,3	125,7	637,6

(\*) Behin-behineko datuak.  
Iturria: Eustat.


Garapen bidean dauden herrialdeek ere gehikuntza tasa garrantzitsua lortu zuten, 2017an jasotakoa baino txikiagoa, baina nahiko sendoa 2017an eskuratutako hazkunde tasa positiboak finkatzeko, hiru urtez etengabeko murrizketak bildu eta gero. Ere horretako salmentak, neurri handi batean, energiako produktuak dira. Izan ere, azaleratzen ari diren herrialdeetatik inportatzen den guztiaren %53,6 erregai mineralak dira. Errusiak merkatu kuota galdu zuen berriro. Herrialde horretatik inportatutakoa 386 milioi euroetara mugatu zen, 2010etik 2013ra bitartean 2.100 milioi eurotik gorako produktuak saldu zituenean EAEn. Jaitsiera hori Brasileko eta Txinako gehikuntzek konpentsatu zuten. Brasilen kasuan, EAEko eragileek erosi zuten guztiaren %65,5 energia alorreko produktuak izan ziren eta %25,1, berriz, nekazaritzako produktuak. Bi kasuetan, beren gehikuntza tasak apartak izan ziren eta inportazioen guztizkoa %125,7 areagotu zuten. Txinako kasuan, gehikuntza tasak askoz ere apalagoak izan ziren. Hain zuzen ere, Asiako erraldoitik ekarritako inportazioak %9,5 hazi ziren eta 1.149 milioi euroetara hurbildu ziren, gaur arte inoiz jaso den bigarren kopururik handiena baita. Kantitate horri esker, EAEko hirugarren hornitzaile nagusia da. Aipatzekoak dira metal arruntak, burdina, altzairua eta aluminioaren salmentak. Baita garraio materialarena ere.

**EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak**  
22 irudia


Esportazioak. Milioi euro




Inportazioak. Milioi euro



Saldoak. Milioi euro



Ondasun eta zerbitzuen irekiera maila



Iturria: Eustat EAEko datuentzat eta Datacomex eta Eurostat. 2018ko datuak behin-behinekoak dira.

Salerosketa horien ondorioz, merkataritza saldoa EAEn aldekoa izan zen eta 5.198 milioi eurotik gorakoa izan zen. Zenbaki hori azken urteetako superabiten antzekoa izan zen, nahiz eta 2017koa baino zertxobait txikiagoa izan zen. Ohikoa denez, energiaren saldoa negatiboa izan zen. Hain zuzen ere, 3.162 milioi euroetara iritsi zen. Energia mendekotasun handiak azaltzen du gorakada hori. Beraz, ez da harrizkoa azaleratzen ari diren herrialdeekiko salerosketek defizita sortzea eta

ekonomia aurreratuekikoek, ordea, superabita. Energiaz bestelako saldoa, berriz, 8.361 milioi eurotik gorakoa izan zen.

EAEko ekonomia munduari irekia da eta oso industria lehiakorra dauka gainontzeko herrialdeekin alderatuta. Automobilgintza, energia, aeronautika eta makina erreminta guztiz ondo daude kokatuta nazioarteko merkatuetan. Izan ere, EAEn 7.000 enpresa esportatzaile inguru daude eta haietatik 3.200 enpresak ohikoa dute esportatzea. Nazioartekotze gero eta handiagoari eta lehiakortasunari esker, EAEk 2018an %125,6ko estaldura tasa lortu zuen eta positiboa izan zen merkataritzako bazkide guztiekin alderatuta. Erresuma Batuarekiko egoera nabarmendu behar da. Herrialde horrekiko estaldura tasa %229,2ra iritsi zen. Frantziarekikoa, berriz, %203,1era eta Alemaniarekin %131,4ra heldu zen. Orobat, irekiera gradua 133,9 puntura iritsi zen, hots, 2017an lortu zena baino 1,4 puntu gorago. Hobekuntza horri esker, EAEn 7,0 puntu bakarrik falta zaizkio krisiaren aurrean zeukan gradua (141,6) berreskuratzeko.

## 2.5 Atzerriko inbertsioa EAEn

EAEn 2018an bideratu zen atzerriko inbertsioa 969 milioi euroetara iritsi zen. Diru kopuru hori 2017an lortutako 2.691 milioi euroen aldean %64,0ko beherakada da. Atzerriko EAEn ekarritako inbertsioaren jaitsiera nabarmen hori azaltzeko orduan, gogoratu behar da 2017an Gamesaren eta Siemens Wind Power enpresaren arteko fusioa gauzatu zela. Eragiketa horren bitartez, multinazional alemaniarrek sortutako enpresa berriaren akzioen %59,0 bereganatu zituen. Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta airea hornitzeko sektore alemaniarrek 1.905 milioi euro inbertitu zituen EAEn eragiketa horretan.


Ezohiko datu horrek sortu duen distortsioa alde batera utzita, 2018an EAE toki erakargarria izan zen atzerriko inbertsioak ekartzeko. Inbertitu ziren 969 milioi euro horiek eta azken hamaika urteetan, batez beste, lortu direnak oso antzekoak dira, batez besteko hori 972 milioi euroren inguruan baitago. Are gehiago, FDI Intelligence aldizkariak, Financial Times taldekoa baita, Europako hegoaldeko hamar eskualde europar erakargarrien artean kokatu zuen EAE atzerriko inbertsiorako. Orobat, Invest in the Basque Country atzerriko inbertsioa ekartzeko estrategia Europa osoko tamaina ertaineko 10 eskualde onenetakotzat jo zuen. Invest in the Basque Country estrategia Sprik eta Eusko Jaurlaritzak garatzen dute eta estrategia horren alderdi batzuek lagundu zuten ezagutza hori lortzen.



**Atzerriko inbertsioa ez ETVE (atzerriko baloreak edukitzeko entitateak). Milioi euro**  
**23 irudia**

Euskadi

2018. urtea



Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. DataInvest.

Herrialdeka, EAEn gehien inbertitu zuen herrialdea Mexiko izan zen, 315,4 milioi euroekin, ia guztia edariaren sektorerara bideratuta. Herbehereek 290 milioi euro inbertitu zuten, ondoren Luxenburgoko (111,2 milioi euro) eta Erresuma Batua kokatu ziren, azken hori 100,1 milioi euro inbertituta. Horiek guztiek erakuntza aeronautikora eta espazialera, eta beraren makineriara bideratu zuten inbertsioaren kopuru ia guztia.

Estatu mailan, Espainiak guztira 48.645 milioi euro bildu zituen atzerriko inbertsio gordinean. Halako diru kopururik ez zen ordura arte inoiz eskuratu eta 2017an jasotakoa baino %81,7 gehiago da. Hazkunde horren arrazoietakoa bat higiezinaren alorrean eginiko inbertsioak dira. Azpiegituren kudeaketan diharduen Abertis enpresa erosteko eragiketa ere aipatu behar da. Eragiketa horretan italiarrek eta alemaniarrek parte hartu zuten eta diru kopurua 14.000 milioi euroetara hurbildu zen.

Autonomia erkidegoen sailkapenean, EAE laugarren tokira jaitsi zen. Dena dela, estatistika horren datuek gorabehera handiak izaten dituzte, zeren eta urte bakar batean diru kopuru garrantzitsu bat emateak aldakuntza tasa harrigarriak eragin ditzakeelako, batez ere eskualde txikienetan.

## 2.6 BPGtik harantz

Europako eskualdeekin eta herrialdeekin alderatuta, EAE toki altu batean kokatzen da biztanleko BPGaren terminoetan, hala eurotan neurtzen bada nola erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) egiten bada. Izan ere, 2018an EAEko biztanle bakoitzeko BPGa 34.100 euroren ingurukoa izan zen, Europako batez bestekoa (EB-28) 30.900 euro eta Espainiakoa 25.900 euro izan ziren bitartean. Zenbaki horiek esan nahi dute EAEko biztanle baten batez besteko aberastasuna europar batena baino %10 altuagoa zela eta espainiar batena baino %30 handiagoa zela. Orobat, alderaketa Europa aurreratuenarekin egiten bada, EB-15ak ordezkaturia, EAEko tokia eremu horren batez bestekora (35.400 euro) hurbiltzen da. Beste ikuspegi batetik, NUT II mailako eskualde europarren sailkapenean, EAE 53. tokian kokatu zen 2018an, EB-28 osatzen duten 281 eskualdeen artean.

Hala ere, gero eta gehiago dira alderaketak egiteko orduan biztanleko BPGa bakarrik erabiltzea kritikatzeko dutenak, aldagai horrek gizartearen batez bestekoa islatzen duelako, ongizatearen beste alderdi batzuk kontuan hartu gabe, hala nola desberdintasuna, pobrezia, hezkuntza edo osasuna lortzeko aukerak eta abar. Hori dela eta, alderdi horiek ere kontuan hartzeko hainbat proposamen agertu dira, adierazle konplexuagoak osatuz.





### Giza garapenaren indizea 22 taula

Postua		%	Postua		%
1	Norvegia	0,953	11	Danimarka	0,929
2	Suitza	0,944	12	Kanada	0,926
3	Australia	0,939	13	AEB	0,924
4	Irlanda	0,938	<b>14</b>	<b>Euskadi</b>	<b>0,922</b>
5	Alemania	0,936	15	Erresuma Batua	0,922
6	Islandia	0,935	16	Finlandia	0,920
7	Hong Kong, Txina (RAE)	0,933	17	Nueva Zeelanda	0,917
8	Suedia	0,933	18	Belgika	0,916
9	Singapur	0,932	19	Liechtenstein	0,916
10	Herbehereak	0,931	20	Japonia	0,909

Iturria: Nazio Batuen Garapen Egitaraua (NBGE). 2018ko Giza garapenaren txostena eta Eustat. Gizarte-adierazleak. GGI18. Euskadiren datuak behin-behinekoak dira.

Proposamen horietako bat Nazio Batuek aurkeztu zuten eta bertan kontuan hartu zituzten, BPGaz gain, osasun eta hezkuntza alorreko adierazle batzuk, giza garapenaren indizea deitu zuten horretan. Hain zuzen ere, bizi itxaropena, eskolatzeko urteak eta alfabetatze tasa hartzen dituzte kontuan. Eustatek ere, Nazio Batuen bulegoak aholkatuta, aspaldidanik osatzen du adierazle hori euskal autonomia erkidegoarentzat. Beraren zenbatespenaren emaitzak hamabost herrialde aurreratuenen artean kokatzen du EAE adierazle horretan, Erresuma Batuaren parean eta biztanleko BPG altuagoa duten herrialde garatu askoren aurretik.

**Eskualdeen ongizate indizea**  
**24 irudia**



Iturria:ELGE.

ELGEk beste urrats bat eman du herritarraren ongizatearekin lotuta dauden alderdiak identifikatzen eta zenbatesten eta eskualdeen ongizate indizea osatu du. Adierazle horrek hamaika esparru hartzen ditu kontuan. Beraien artean, hezkuntza, enplegua, diru sarrerak, seguritatea, osasuna eta etxebizitza daude. Adierazle horretan nabarmendu diren bi herrialdeak Australia eta Norvegia dira. EAE eta Norvegia alderatuz, hautematen da iparraldeko herrialdea hamaika eremu horietako gehienetan hobeto dagoela, baina EAEk emaitza hobea lortu du osasunean eta komunitatean (bakartasunaren adierazle bat da), eta antzeko maila dauka seguritatean. Ondoko irudian ikus daiteke Alemaniarekiko alderaketa, herrialde horren egitura eta EAErena antzekoak direlako. Okzitaniarekin ere egiten da alderaketa, bi lurraldeek antzeko BPGa dutelako biztanle bakoitzeko. Azkenik, Espainiarekin ere alderatzen da.


***Eskualdeen aurrerapen sozial indizea***  
***23 taula***

Postua	Autonomi erkidegoa	%
1	Madril	71,92
<b>2</b>	<b>Euskadi</b>	<b>71,41</b>
3	Nafarroa	69,90
4	Kantabria	69,28
5	Gaztela eta Leon	68,86
6	Asturias	68,27
7	Aragoi	68,24
8	Errioxa	68,10
9	Valentzia	66,60
10	Galizia	66,27
11	Murtzia	65,53
12	Katalunia	65,51
13	Kanariak	65,32
14	Extremadura	64,77
15	Gaztela-Mantxa	64,34

Iturria: Europar Batzordea. 2016ko urriko txostena.

Europako Batzordeak ere ongizate adierazle bat aurkeztu du BPGaren ikuspegi estua gainditzeko. Horretarako, Orkestra- Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren lankidetzarekin kontatu du. Kasu horretan, 50 aldagai hartu dira kontuan, hamabi eremutan bilduta. Adierazle horretan, EAE tarteko egoera batean kokatzen da herrialde europarrekin alderatzen denean eta aurreko tokietan, berriz, gainontzeko autonomia erkidegoekin konparatzen denean, zeren eta aurrean Madril bakarrik dagoelako.

**Pobreziaren edo bazterketa arriskuan dagoen biztanleriaren tasa. 2018**  
**25 irudia**




(\*) 2017ko datua. Elkarrizketa egindako aurreko urteko errenta.  
Iturria: Eurostat eta PDSI 2018.

Aurreko guztiagatik ondoriozta daiteke EAE Europako eskualde aberats samarra dela eta bere biztanleei kalitateko zerbitzuak eskaintzen dizkiela. Orobat, lurralde hori nabarmentzen da beraren herritarren berdintasunagatik eta elkartasunagatik. Izan ere, pobrezia arriskuaren eta gizarte bazterketaren tasan Suediaren eta Danimarkaren parean kokatzen da.


Aurrekoari lotuta, desberdintasuna neurtzeko gehien erabiltzen diren adierazleetako bi Gini indizea eta S80/S20 izenekoak dira. Azken horrek biztanleriaren %20 aberatsena eta %20 txiroena alderatzen ditu, lehena bigarrena baino zenbat aldiz gehiago jasotzen duen kalkulatzeko. Bi adierazleen kasuan, zenbaki txikiak gizarte berdintzalea dela eta, kontrako zentzuan, balio altuak desberdintasuneko zantzu garbitzat jotzen dira. EAEko Gini indizearen informazio berrienak, 2018ko pobrezia eta gizarte ezberdintasunen inkestan (PGDI) kalkulatuak, 26,7an kokatu zuen adierazle hori eta Belgikak eta Finlandiak bakarrik hobetu zuten. Beste aldetik, S80/S20 erlazioa 4,1 zen EAEn, balio txikiagoak Belgikak, Finlandiak, Herbehereak eta Austriak bakarrik jaso zituztela, Europako herrialdeen artean.

**Desberdintasun adierazleak. 2018.**  
**26 irudia**

Gini indizea



S80/S20 indizea



(\*)2017ko datuak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta gizarte-desberdintasunen inkesta eta Eurostat.

## 3. LAN MERKATUA

### 3.1 Biztanleria eta aktibitatea

EAEko biztanleria aktiboak, BJA inkestaren arabera, aurreko urteetako emaitza negatiboak atzean utzi zituen eta %0,7 hazi zen 2018an. Hala eta guztiz ere, urte horretan zeuden pertsona aktiboen kopurua (1.042.600) 2015ean zegoena (1.054.800) baino txikiagoa da oraindik. Halaber, lan eskaintza gero eta zaharragoa da. Beraz, zaila izango da etorkizunean okupazio beharrak asetzeko biztanleria aktibo nahikoa edukitzea.


Zehazkiago adierazita, Lanbidek egin duen EAEko enpleguaren eta okupazio joeren prospektiba behatokiak zenbatetsi zuen 19.000 pertsona inguru behar zirela iaz erretiroa hartu zuten lagunak ordezkatzeko. Jende kopuru hori gero eta handiagoa izango da datozen urteetan 2030ean 25.000tik gorako kopuruetara iritsi arte. Epealdi berean, Behatokiak kalkulatu du 380.000 lanpostu baino gehiago sortuko direla. Haietatik, kopuru handiena erretiroa hartuko duten pertsonak ordezkatzeko beharrak eragingo du.

2018an gauzatu zen pertsona aktiboen hazkundeak lan merkatuaren partaidetza tasa 2017ko %56,3tik %56,6ra igoarazi zuen. Hala eta guztiz ere, tasa hori Eurogunean eta Estatuan jaso zirenak baino beherago dago oraindik. Aldeak are handiagoak dira alderaketa emakumeen eta gazteen partaidetza tasak erabiliz egiten denean. Lehenengo kolektiboari dagokionez, gizonen biztanleria aktiboak portaera hobea izan zuen eta bi tasen arteko aldea areagotu zuen. Zehazkiago adierazita, gizonen partaidetza tasa emakumeena baino bederatzi puntu gorago dago. Beste aldetik, biztanleria gazteenaren (16 urtetik 24ra doana) partaidetza lan merkatuan Europako gazteen


partaidetza tasarena baino nabarmen apalagoa da. Horrek agerian uzten du EAEn eskola uzte goiztiarraren tasa oso txikia dela eta gazte askok ikasketak luzatzeari ekiten diotela.

**Jarduera tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn  
27 irudia**

Gizonak



Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat.


Biztanleria aktiboaren gehikuntza hori azken urteetan jaso den lehena da eta lan merkatuaren susperraldiaren ondorioa da, kapitulu hori aztertzen duten estatistika iturriek baieztatzen dutenez. Hain zuzen ere, 2018an landunen kopurua zenbatesteko orduan antzeko emaitza eskaini zuten iturri horiek. Esate baterako, BAI inkestak, Eustaten kontu ekonomikoek eta Gizarte Segurantzako afiliatuen erregistroak %2,1eko aldakuntza tasa zenbatetsi zuten aurreko urteko datuaren aldean. Beste aldetik, BJA inkestak epealdi horretarako zertxobait bakarrik beherago geratu zen, %1,8ko gehikuntza tasa batekin.

Iturri horien emaitzak zehatzago aztertuta, eta analisisa kontu ekonomikoen enpleguarekin hasita, adierazi behar da iaz ere datu positiboak eskaini zituela, aurreko urteko aldakuntza tasa (%2,1) berdinduz. Hala eta guztiz ere, landunen gorakadarik handiena ez zen zerbitzuetan (%2,1) gauzatu, azken urteetan gertatu zen bezala, eraikuntzak baizik (%3,6), krisiaren aurretik lortu gabe zeuden



aldakuntza tasak berreskuratu zituelako. Dena dela, gaur egun sektore horretan lan egiten duten pertsonen kopurua garai hartakoaren %60 da. Azkenik, industriak berriro igo zituen bere langileen kopurua (%1,7) aurreko urteetan jasotako tasetatik hurbil.

**Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak**  
**28 irudia**



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Era berean, afiliatuen kopuruak dinamismo nabarmena erakutsi zuen, azken urteetan %2tik jaisten ez diren hazkundera tasak jasota. Halaber, EAEn kotizatzen duten atzerritarren kopuruak gora egin du berriro eta dagoeneko 60.000 afiliatuen langa gainditu du, 2018an zehar %10,6ko aldakuntza tasa lortuta, urteko batez bestekoan. Beste behin ere, hainbat adar ekonomikoak, hala nola garraioak (%3,5), lanbide, zientzia eta teknika jarduerak (%2,9) eta nagusiki berme eta ardura publikoa duten zerbitzuek (osasuna, gizarte arreta eta hezkuntza) gehikuntza tasa altuenak jaso zituzten. Aitzitik, ekoizpen prozesuak digitalizatzeko joera gero eta biziagoak eragina izan zuen adar batzuetan, esate baterako finantza jarduera eta aseguruetan (%-1,0) eta berriro murriztu zuten beraietan lan egiten duten pertsonen kopurua.

**Enplegua sektoreka**  
**24 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Enplegua guztira</b>	<b>-2,9</b>	<b>0,2</b>	<b>2,1</b>	<b>2,2</b>	<b>2,1</b>	<b>2,1</b>
- Enplegua lehen arloan	-5,5	-1,3	-1,0	0,7	1,0	0,2
- Enplegua industrian	-4,0	-1,0	1,3	1,9	2,0	1,7
- Enplegua eraikuntzan	-11,9	-3,4	2,2	0,3	2,0	3,6
- Enplegua zerbitzuetan	-1,6	1,0	2,4	2,5	2,1	2,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.


Beste aldetik, BJA inkestak eskaintzen duen enpleguaren hazkunde osaeraren analisiak seinalatzen du aurreko urteetan ez bezala 2018ko gehikuntza gizon landunengan oinarritu zela, beraien aldakuntza tasa emakumeena baino puntu erdi bat altuagoa izan zelako (hurrenez hurren, %2,1 eta %1,6). Bilakaera horren ondorioz, bi generoen tasak bat egiteko prozesua bertan behera geratu zen. Hala ere, bai gizonen enplegu tasak (%55,6) bain emakumeen enplegu tasak (%46,2) goranzko bideari eutsi zioten.

Enpleguaren susperraldiak mesedea egin zien, neurri handi batean, langile gazteenei, urte arteko tasan %10,6ko gehikuntza eskuratu zutelako. Honen ondorioz, beraien partaidetza tasa eta enplegu tasa igo ziren. Zehatz-mehatz kontatuta, enplegu tasak azken zazpi urteko emaitzarik gorena izan zuen (%20,8). Hala ere, 25 eta 44 urte bitarteko biztanleria da oraindik, eta alde handiz, enplegu tasa altuena (%80,3) duena, kasu horretan aurreko bederatzi urteetako balioak gaindituz eta serie historiko osoaren erregistro gorenekoen artean kokatuz. Azkenik, adinez nagusienak diren

biztanleek %40,9ko enplegu tasa lortu zuen, kasu horretan serie historiko osoaren emaitzarik altuena dena. Erretiroa hartzeko adina atzeratu izanak eta aurretiazko erretiroa hartzeko orduan zailtasunak ezarri izanak lagundu dute gero eta jende gehiago lan merkatuaren barruan jarraitzea, portzentajeak handituz.

### Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn 29 irudia

Gizonak



Emakumeak




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat.

EAEko biztanleria aktiboaren ezaugarri bat prestakuntza da. Hain zuzen ere, goi mailako ikasketak dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen portzentajea Europako altuenetako bat da, 2018an, batez beste, %57,1era iritsi zelako, Europa 2020 estrategian erreferentziazat hartu zen %40aren oso gainetik dagoela. Aldagai horretan, Estatuari (%42,4), EB-28ri (%40,7) eta Euroguneari (%39,6) dagozkien datuak nabarmen apalagoak dira. Hala eta guztiz ere, EAEko tasak zertxobait gutxitu dira, 2009-2013 epealdian %60tik gorako erregistroak eskuratu zirelako.

Unibertsitateko ikasleen kopurua hain handia zenez, haietako askok fakultatean ikasitakoarekin zerikusi gutxi zuten lanpostuak betetzera behartuta egon ziren. Izan ere,

Lanbidek 2014an lizentziatu ziren unibertsitateko ikasleak lan munduan nola txertatu ziren jakiteko egin zuen inkestaren arabera, promozio hartako %23k ez zeukan beraren ikasketei zegokien lanpostu bat. Beraz, pertsonak horiek gehiegizko kualifikazioa zuten okupazio jakin hori behar bezala egiteko.

**Goi mailako hezkuntza maila (30-34 urte bitarteko taldea)  
30 irudia**



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Orobat, industriako enpresetarako okupazio eskarian, gehien eskatzen diren perfilak Lanbide Heziketako prestakuntza zikloekin lotura dutenak dira. Zentzu horretan, iraultza digitala langileei eskatzen zaizkien gaitasunak eta kualifikazioak eraldatzen ari da. Beraz, langileek gero eta arrisku gehiago dute beren gaitasunak zaharkituta gera daitezen, etorkizuneko kontratazioak zailagoak egiten.


Dena dela, enplegua prestakuntzaren arabera sailkatzen duen INEren estatistikek egiaztatzen dutenez, goi mailako prestakuntza duen biztanleriak gainontzekoek baino aukera gehiago dauka enplegua lortzeko orduan. Izan ere, goi mailako ikasketak amaitu zituzten lau pertsonatatik hiruk lana daukate eta beren langabezia tasak ia ez du gairatzen %6ko langa, iazko langabezia tasa

orokorra, urteko batez bestekoan, %10ean egon zen bitartean. Tasa hori gero eta txikiagoa da ikasketa maila gora doan heinean. Beraz, prestakuntza handiagoa duten langileek arrisku gutxiago dute lanik gabe egoteko.


Aurrekoaz gain, baieztatu daitekeenez, unibertsiteateko ikasketak dituzten pertsonak oso talde txikia da langabeen multzoan, baina biztanleria aktiboaren erdia baino gehiago (%53,6) dira. Aitzitik, langabeziaren eragina askoz ere garrantzitsuagoa da prestakuntza gutxi duten pertsonengan, esate baterako lehen mailako ikasketak amaitu ez zutenengan, aktibo guztien %0,3 baino ez izan arren, %32,4ko langabezia tasa baitute.

### Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera 31 irudia

Enplegu tasa



Langabezia tasa




Iturria: INE.

Enpleguaren kalitateari dagokionez, Eustaten azken datuek erakusten dute EAEn lan ezegonkortasuna nabarmen areagotu dela, behin-behinekotasun tasak (%30,7) azken urteetako baliorik gorena jasota eta EB-28 osatzen duten herrialdeetan jaso zena luze bikoiztuz. Berrito ere, kolektibo kaltetuena gazteak izan ziren. Adierazi behar da iraupen mugatuko kontratuen hazkunde hori ez dagoela lotuta ekonomiaren krisiari, dagoeneko atzean geratu baita, baizik eta gero eta

malguagoa den lan egitura batek eragin duela, eskari aldakor bati erantzun ahal izateko. Berriki gertatu diren aldaketa teknologikoek ere eragina izan dute kontratu mota horien garapenean. Beraz, lan merkatuaren bitasuna EAEko zein Espainiako lan merkatuaren arazo larrienetako bat da oraindik, giza kapitalean behar beste inbertitzea eragozten duelako, landunengan ziurgabetasuna sortzen duelako eta pertsonak kontratuaren arabera diskriminatzen dituelako.


**Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko**  
**32 irudia**



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Lan merkatuan prekaritatea islatzen duen beste alderdi bat hobetsi gabeko lanaldi partzialaren erabilera da. EAEn, lanaldi mota hori, izan nahita aukeratua edo gogoz kontra, %19,0ra iritsi zen 2014an eta ekonomiaren susperraldia hasi zenean, beherantz egin zuen, 2018an, batez beste, %16,3an kokatu arte. Estatuan, oro har, antzeko joera bizi zen, baina tasa txikiagoa da (%14,7). Aitzitik, EB-28an, modalitate horren kontratazioa %20aren inguruko zifretara iritsi zen. Are altuagoa da Euroguneko tasa, %22ko maila gainditu zuelako. Hala ere, kontuan hartu behar da kasu askotan lanaldi partziala edukitzea langileak hartutako erabakia dela.

**Lanaldi partziala duten landunek landun guztiekiko  
33 irudia**




Iturria: INE eta Eurostat.

Analisia langabeziaren bilakaeran fokotuta, adierazi behar da, enpleguaren bizitasunari esker, langabezia tasak behera egin zuela berriro eta %10aren inguruan kokatu zela, BJAren eta BAiren datuek iradokitzen dutenez. Azken estatistika horren arabera, emaitza hori Estatu osoko tasarik txikiena izan zen, nahiz eta datu horiek oraindik Eurogunearen batez besteko tasatik bi puntu gorago dauden. Hala kasu batean nola bestean, aurreko urtearekiko jaitsiera puntu oso baten ingurukoa izan zen.

BJAren datuekin, langabezia tasaren jaitsierak antzeko bilakaera erakutsi zuen bi generoetan. Beraz, emakumeen langabezia tasa 2017ko %12,0tik 2018ko %11,1era murriztu zen. Gizonen kasuan, berriz, %10,8tik %9,6ra gutxitu zen langabezia tasa. Beraz, bi generoen artean puntu bat eta erdiko diferentzuala dago orain, gizonen aldekoa dena. Eraikuntzaren enpleguak izan zuen bultzada sendoak, sektore horretako langile gehienak gizonak baitira, eta emakumearen etengabeko lan txertatzeak azaltzen dute diferentzia hori. Pertsonen kopurua aztertuta, langabezia bizkorrago murriztu zen gizonen artean (%-10,0), baina emakume langabeen beherakada (%6,8) ere azpimarratzekoa da.

**Langabezia tasaren bilakaera EAEn  
34 irudia**




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneousak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat eta INE.

Analisia adin taldearen arabera egiten denean, agerian geratzen da guztietan jaitsi zela langabezia tasa, baina alde handiak daude kolektibo bakoitzean. Esate baterako, 25 urtetik beherako biztanleriak %19,9ko langabezia tasa jaso zuen, oraindik oso altua dena eta 2017koa baino puntu erdi bat txikiagoa bakarrik. Halere, gogoratu behar da 2014an, duela lau urte soilik, tasa hori %38,2an zegoela. Beraz, hobekuntza oso esanguratsua da.

Adin tarte ertainak (25etik 44 urtera doana) %10,8ko langabezia tasa jaso zuen 2018ko batez bestekoan, 2017koa puntu luze batean beheraraziz. Beste aldetik, 45 urtetik gorako taldearen langabezia tasa %9,0an kokatu zen, aurrekoa baino ia puntu oso bat beherago. Adin altuena duen taldeak aurretiazko erretiroaren praktikaz baliatu ohi da. Beraz, egoera batzuetan, gainontzeko taldeetan langabezia handitzen denean, adin handieneko taldean lan merkatua uzteko neurriekin konpondu daiteke.



**Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn  
35 irudia**




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat eta INE.

### 3.2 Tentsioa lan merkatuan: Beveridgeren kurba

Beveridgeren kurbak langabezia tasaren eta lanpostu hutsen arteko erlazioa erakusten du. Kanporantz mugitutako kurba batek, hots, lanpostu huts jakin baterako langabezia tasa handiago batek, enpleguaren eskaintza eta eskaria orekatzeko zailtasun handiagoak daudela adierazten du. Halakorik gertatzen denean, zailagoa da lanpostu huts bat betetzea eta, beraz, enpresa gehiagok adierazten du lan eskuaren faltak bere ekoizpena mugatzen duela. Gertakari horrek agerian uzten du enpresek behar dituzten gaitasunak eta lan eskaintzan daudenak ez daudela guztiz berdinak, desoreka bat dagoela. Eskura dagoen seriea laburra denez, EAEn eta Estatuaren arteko alderaketa 2013-2017 epealdira mugatu da eta ezinezkoa da kurbaren bilakaera denboran zehar aztertzea. Hori lagungarria izango zen kuantifikatzeko krisian zehar lan merkatuak galdu zuen eraginkortasuna eta, ondoren, susperraldian lortu zuen hobekuntza. Aldaketa horiek islatuta geratuko lirateke Beveridgeren kurbaren desplazamenduetan. Izan ere, Espainiaren kurba eskuinerago dago eta horrek adierazten du eraginkortasun txikiagoa daukala, egiturazko langabezia tasa altuago batekin.

**Beveridgeren kurba 2013-2017**  
**36 irudia**




Iturria: INE eta Eustat

Lan eskaintzaren eta eskariaren arteko doikuntza baloratzeko modu bat trebetasunen desoreken indizeak (TDI) ematen du, biztanleria aktiboaren (lan eskaintza ordezkatzen baitu) hezkuntza maila eta landunena (eskariaren hurbilketa baita) alderatzen dituena. Indize hori hazi egiten da talde baten eta bestearen hezkuntza mailaren arteko aldea zabaltzen denean. Horixe gertatu zen atzeraldi handian eta pasa den mendeko azken hamarkadetan, langabezia tasa altuak zeudelako. Ekonomia ingurunearen hobekuntzari esker, indizeak hobera egin duela egiaztatu da. Hain zuzen ere, 2014-2018 epealdian, adierazle hori erdia baino gehiago murriztu da, hezkuntza maila guztietan hobekuntzak lortuz.


Atzeraldi handian, eskaintzaren eta eskariaren arteko desdoitze hori bereziki goi mailako ikasketak zituzten lan efektiboetan gauzatu zen eta, neurri txikiagoan, bigarren mailako hezkuntza zutenetan. Aitzitik, 80etako eta 90etako hamarkadetan, batez ere bigarren eta lehen mailako ikasketak zituzten langileengan gauzatu zen.

**Desdoikuntza gaitasunen indizea. 2014-2018**  
37 irudia



Iturria: INE.

**Desdoikuntza gaitasunen indizea. Euskadi 2014-2018**  
38 irudia



Iturria: INE.

### 3.3 Enpleguaren erregulazioa eta kontratazioa

EAEko ekonomiaren portaera onari esker, enplegu erregulazioko espedienteen kopuruak beheranzko joerari jarraipena eman zion, serie historiko osoaren erregistro txikienak markatuz. Jaitsiera hori 2012an hasi zen. Urte horretatik aurrera erregulazioko espediente bat tramitatzeko modua oso nabarmen erraztu zen, irazpen kolektiboetarako lehen eskatu behar zen baimen administratiboa jadanik beharrezkoa ez zelako. Beraz, enpresak berak erabakitzen zuen, langileekin akordio batera iritsita ala ez.

Hain zuzen ere, erregulazioko espedienteren batek eragindako pertsonen kopurua ia hamar aldiz gutxitu zen bost urteko epean, 31.790 lagun izatetik 3.187 izatera. Epealdi horretan, espedienteen kopuruak beherakada garrantzitsua (2018an 187 espediente baimendu ziren eta 2013an 2.426) eta orokorra ezagutu zuen espediente mota guztietan, zeren eta lanaldia murriztekoek, behin-behineko etetekoek eta kontratua amaitzekoek nabaritu zutelako.

#### *Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak* *25 taula*

Kopurua	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Espediente kopurua</b>	<b>2.426</b>	<b>1.434</b>	<b>695</b>	<b>446</b>	<b>266</b>	<b>187</b>
Eragindako langileak	31.790	16.747	8.108	6.283	4.342	3.187
Dosier mota						
- Lanaldia murriztekoa	5.814	3.196	1.530	1.172	481	355
- Behin-behineko etetea	24.104	12.091	5.718	4.473	2.864	2.299
- Kontratua amaitzekoa	1.872	1.460	860	638	997	533

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikak Saila.

Aldi baterako kontratazioak pisu handia duenez, kontratatutako pertsona askok kontratu bat baino gehiago sinatu zituen urtean zehar. Izan ere, eta Lanbidek ezagutarazi dituen datuen arabera, 2018an 307.179 pertsona kontratatu ziren. Kopuru hori kontratu erregistratuena baino askoz ere txikiagoa da, azken horiek 1.001.181era iritsi zirelako. Kantitate horiek konbinatuz, lan txandakatzea kalkulatu daiteke, sinatutako kontratuen kopurua zati kontratatutako lagunen kopurua eginez. Indize hori 2017ko 3,1etik 2018ko 3,3ra igo zen, hala gizonen kasuan (2,9tik 3,1era handitu zen) nola emakumeen kasuan (kasu horretan, 3,3tik 3,5era).

Egia da azken bi urteetan mugagabeko kontratazioak gora egin duela aurreko urteetan egin ziren mota horretako kontratuekin alderatuta, baina aldibaterakotasuneko tasa ez da murriztu. Neurri handi batean, gertakari horren atzean dagoena da erretiroa hartzen duten lagun gehienek kontratu mugagabea dutela, lan harremanetan ohiko formula zelako. Zehazkiago adierazita, aldibaterakotasuneko tasa %30,7an kokatu zen 2018an, urteko batez bestekoan, datuak daudenetik (1994tik) inoiz jaso den mailarik gorena baita. Aldagai horretan, generoaren arabera analisiak erakusten du alborapen jakin bat dagoela, zeren eta aldi baterako kontratuak biek sinatzen badituzte ere, eragin handiagoa duelako emakumeengan. Izan ere, tasa hori %32,7 izan zen emakumeen artean 2018an eta %28,8, berriz, gizonen artean.

**Erregistratutako lan kontratuen bilakaera**  
**26 taula**

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Guztira</b>	<b>969.338</b>	<b>1,1</b>	<b>12,1</b>	<b>14,1</b>	<b>6,5</b>	<b>3,0</b>	<b>3,9</b>
Lanaldi osoko mugagabeak	32.681	5,4	34,0	12,4	-0,2	11,6	18,2
Obra edo zerbitzukoak	165.763	-3,1	8,7	9,2	1,3	2,2	3,4
Abagunekoak	264.205	2,1	13,9	20,5	10,9	6,6	7,2
Lanaldi laburrekoak	385.978	5,3	12,3	12,8	8,6	3,7	3,1
Prestakuntzakoak (*)	9.309	14,3	36,3	29,8	-11,6	5,1	6,9
Gainontzekoak	111.402	-6,5	8,5	13,2	2,8	-6,2	-3,7

(\*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuak erabiliz.

## 4. PREZIOAK

2018an, prezioak aztertzen dituzten adierazleen bilakaera energiaren portaerak baldintzatu zuen berriro, hala petrolioaren salneurriak nazioarteko merkatuetan izan zituen aldakuntzek nola argindarraren prezioak. Energiaren osagaiak urtean zehar jaso zituen mugimenduetatik, kontsumoko prezioen indizea (KPI) atera zen hobekien, zeren eta, ohiko adierazleen artean, berak bakarrik gutxitu zuen bere aldakuntza tasa, urteko batez bestekoan neurtuta. Aitzitik, IPRIk egonkor mantendu zen eta BPGaren deflatoreak gora egin zuen.

### 4.1 Deflatoreak

Prezioen analisia azken horrekin hasita, adierazi behar da barneko jatorria duten kostuen presioek, adierazle horren bitartez neurtuta, goranzko joera izan zutela 2018ko erdialdeko hilekoetan, urte amaieran urratsez urrats zuzendu zirenak. Hori ez zen oztopoa izan hirugarren urtez jarraian BPGaren deflatoreak berriro gora egiteko eta azken urteetako baliorik altuena jasotzeko, nahiz eta datu hori oraindik oso neurritsua izan (%1,0). Aurreko ekitaldian bezala, deflatorearen osagai guztiek parte hartu zuten adierazlearen goranzko bilakaera horretan, baina eragin berezia daukate kanpo merkataritzarekin zerikusia duten aldagaiek, bereziki inportazioen deflatoreak (%2,3), petrolioaren garestitzeak oso nabarmen baldintzatu zuelako aldagai hori. Beste aldetik, kontsumo pribatuaren deflatoreak %1,6ko hazkundera izan zuen, aurreko urteetan jasotakoa baino askoz ere handiagoa dena.

**Deflatoreen bilakaera**  
**27 taula**

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>BPGaren deflatoea</b>	<b>0,4</b>	<b>0,6</b>	<b>0,2</b>	<b>0,6</b>	<b>0,7</b>	<b>1,0</b>
Barne eskariaren deflatoea	0,9	0,0	-0,2	0,2	0,8	1,6
Kontsumo pribatuaren	1,6	0,1	-0,2	0,1	0,9	1,6
Kontsumo publikoaren	0,3	0,8	-0,1	0,1	0,2	1,3
Inbertsioaren deflatoea	-0,7	-0,7	-0,4	0,2	0,7	1,6
Esportazioen deflatoea	-1,4	-2,0	-1,5	-0,7	2,1	1,4
Inportazioen deflatoea	-0,7	-2,7	-2,0	-1,4	2,2	2,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

#### 4.2 Kontsumo prezioak

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPI indizeak lau hamarrenetan gutxitu zuen bere aldakuntza tasa 2018an aurreko urtean jasotako balioaren aldean, urteko batez bestekoa %1,6an utziz. Energia alorreko prezioen bilakaerak azaltzen du emaitza hori. Hala joera nola EAEn jasotako emaitza eta Estatuan, oro har, izan zituztenak oso antzekoak izan ziren, udako hilekoetan aldakuntza tasa altuak bilduz eta urte amaieran murrizketa nabarmena jaso, erregaien salneurriak bizi zuen jaitsierak eraginda.

Izan ere, erregai horien bilakaera markatu zuen erantzule nagusiak, hots, petrolioak, pausoz pauso garestitu zen eta urte hasieran upelaren salneurria 65 dolarretan zegoen bitartean, irailean 79 dolarretara iritsia zen. Gorakada horren arrazoia LPEEko kideak diren herrialde ekoizleek eta erakunde horretan parte hartzen ez duten beste herrialde batzuek ekoizpena murrizteko akordio bat sinatu izana da, ondo bete zutena. Geroztik, urriaren hasieran, balio maximoak jaso ziren, upelaren salneurria 86 dolarretara iritsita, Iranek bere esportazioak murriztu zituelako, AEBek herrialde horri ezarri zizkion zigorren ondorioz. Hala eta guztiz ere, abenduaren amaieran petrolio gordinaren salneurria nabarmen merkatu zen, eskariaren aurreikuspenak behera egin zuelako eta eskaintza, ordea, handitu zelako, AEBek, LPEEko herrialde batzuek eta Errusiak beren ekoizpena igo zutelako.

Gainontzeko lehengaiei dagokienez, hala elikagaien prezioek nola metalen salneurriek bere horretan utzi zituzten aldakuntza tasak iazko lehen seihilekoan. Aitzitik, bigarren erdian prezioak apaldu ziren, gehiegizko eskaintza zegoelako, elikagaien kasuan, eta Txinaren eskaria txikiagoa zelako eta merkataritza alorreko tentsioak areagotu zitezkeela pentsatzen zelako, ziurgabetasuna ekarriz.

Analisia energiari eta elikagai freskorik gabeko inflazioan, hau da, azpiko inflazioan, fokatuta, adierazi behar da nahiko bilakaera neurritsua erakutsi zuela 2018an zehar eta urte amaieran beheranzko erregistroak ere jaso zituela. Bilakaera hori bi osagai nagusietan hauteman zen, hots, energiaren bestelako industria ondasunetan, nazioarteko lehiari irekiago baitaude, tasa negatibotan (%-0,1) kokatu baitziren, eta zerbitzuetan, aldakuntza tasa 2017ko %1,7tik 2018ko %1,5era moteldu baitzuten. Landutako elikagaiak, berriz, zertxobait gorarazi zituzten beren tasak 2017ko datuaren aldean, %0,0tik %0,9ra pasa zirelako, baina bi zati zeharo ezberdinak erakutsi zituzten, urte amaieran urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jasotzera iritsi arte, elikagaien lehengaien jaitsieraren ondorioz.

**Kontsumoko prezioen indizearen banaketa**  
**28 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2014	2015	2016	2017	2018	Ekarpena
<b>Inflazioa guztira (%100)</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,3</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>1,6</b>	<b>1,6</b>
<b>Azpiko inflazioa (%81,8)</b>	<b>0,3</b>	<b>0,7</b>	<b>0,9</b>	<b>1,1</b>	<b>0,9</b>	<b>0,8</b>
KPI landutako elikagaiak (%14,3)	0,0	1,1	0,9	0,0	0,9	0,1
KPI industriako ondasunak (%24,5)	0,1	0,3	0,8	0,3	-0,1	0,0
KPI zerbitzuak (%43,1)	0,6	0,8	1,1	1,7	1,5	0,7
<b>Hondarreko inflazioa (%18,2)</b>	<b>-0,6</b>	<b>-4,5</b>	<b>-4,2</b>	<b>6,5</b>	<b>4,6</b>	<b>0,8</b>
KPI landugabeko elikagaiak (%7,8)	-1,2	1,9	2,6	3,7	2,9	0,2
KPI energia (%10,4)	-0,1	-8,4	-8,2	8,2	<b>5,9</b>	0,6

Iturria: INE.

Zalantzarik gabe, inflazioaren indize orokorra gehien baldintzatu zuena energiaren prezioen bilakaera izan zen. Petrolioaren garestitzearen ondorioz, energiaren prezioek gehikuntza bizia ezagutu zuten 2018ko apirilaren eta irailaren artean. Hori dela eta, energiaren osagaiak inflazio



orokorrari eginiko ekarpenak gora egin zuen, lehen hiruhilekoaren 0,2 puntuetatik puntu oso bat ekartzera iritsi arte, nahiz eta iazko azken hilekoetan ekarpen hori berriro murriztu zen. Beste aldetik, landu gabeko elikagaien prezioek ere eragina izan zuten indize orokorraren bilakaeran, udako hilekoetan gehikuntza tasa handiak bildu zituztelako, meteorologiaren baldintzek fruten eta ortuarien prezioak gorarazi zituztelako. Hala eta guztiz ere, iazko urtearen amaieran hazkunde horiek apaldu ziren.

**EAEko kontsumo prezioen indizea**  
**29 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Indize orokorra</b>	<b>1,6</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,3</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>1,6</b>
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,9	-0,6	1,4	1,6	1,2	1,5
- Edari alkoholodunak eta tabakoa	6,0	1,0	0,9	0,4	1,7	2,2
- Jantziak eta oinetakoak	0,1	0,2	0,4	0,8	0,7	1,1
- Etxebizitza	1,1	2,0	-1,7	-4,1	3,7	2,6
- Etxeko hornidura	2,0	-0,4	0,0	0,5	-0,3	0,3
- Medikuntza	7,5	4,3	0,1	1,0	1,1	0,2
- Garraioa	0,3	-0,5	-4,1	-1,8	4,3	3,4
- Komunikazioak	-4,3	-6,1	-1,7	2,6	1,3	2,4
- Aisia eta kultura	1,6	-1,2	-0,2	-1,0	1,9	-0,4
- Irakaskuntza	3,0	2,7	2,2	0,6	1,6	1,0
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,1	0,7	0,3	1,0	1,8	1,9
- Besteak	2,1	1,2	1,7	1,7	0,7	0,7


Iturria: INE.

Kontuan hartuta energiaren portaerak oso paper erabakitzaila izan zuela prezioen bilakaeran, garraioak (%3,4) eta etxebizitzak (%2,6) eragin handia izan zuten udako hilekoetan inflazioak erakutsi zuen gorakadan eta 2018ko amaieran izan zuten moteltzean, behin petrolio gordinaren salneurriak beherantz egin ondoren, bi atal horiek baitira lehengai horren prezio aldakuntzek gehien nabaritzen dutenak.


Aitzitik, inflazio globala osatzen duten gainontzeko taldeek, indize orokorrak aurkeztu zuen beheranzko joerarekin bat eginez, igoera nabarmen txikiagoak jaso zituzten eta kasu gehienetan %2,0aren azpikoak, Eurogunerako ezarri zen inflazio helburua hori baita. Goiko muga horretatik kanpo geratu ziren, dagoeneko aipatuak izan diren garraioaz eta etxebizitzaz gain, edari alkoholduak eta tabakoa (%2,2) eta komunikazioak (%2,4) bakarrik. Azken honek urtearen zati handiengan telefoniaren zerbitzuen prezioetan aurreko urtekoa baino garestitze handiagoa erakutsi zuen.

### KPIren bilakaera 39 irudia

Indize orokorra: EAE




Indize orokorra: Eurogunea



Iturria: INE eta Eurostat.

Aipatu den prezioen moteltzearen ondorioz, eta EAEko KPI indizea Eurogunearekin guztiz alderagarria ez den arren, diferentziala berreskuratu zen Eurogunearekiko, energiaren salneurriaren bilakaeran oinarrituta, 2017ko %8,2tik 2018ko %5,9ra apaldu baitzen. Moteltze horrek mesede handiagoa egiten dio EAEko inflazioari, zeren eta petrolioaren prezioak eragin handiagoa izaten baitu EAEko salneurrietan Eurogunearekin baino, alde batetik EAEn Europako herrialde batzuetan baino gehiago, proportzioz, gastatzen delako gasolinan eta gasolioan, eta, beste aldetik, produktu horren gainean berriazko zerga bat dagoelako, finkoa dena eta EAEn Europako herrialde gehienetan baino txikiagoa dena, zergak barnean dituen prezioak gorabeheratsuagoak delarik.

**EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2018ko batez besteko balioak  
40 irudia**



Iturria: INE eta Eurostat.

EAEko inflazioaren 2019rako zenbatespena, nahiko egonkorra den arren, jadanik aipatu den energiaren prezioen oinarri efektuak baldintzatuko du, bereziki petrolioarenak, 2018ko amaieran portaera txarra izan baitzuen. 2019ko hastapenean, lehengai horren prezioak gora egin zuen, baina ekainerako urte arteko jaitsiera esanguratsua izan zen berriro (%11 dolarretan neurtuta eta %8 eurotan).

### 4.3 Industria prezioak

Industriaren prezioei dagokienez, eta KPIa ez bezala, goranzko joerari eutsi zioten eta beren aldakuntza tasak areagotu zituzten 2017ko emaitzaren aldean, urte horretako %2,8tik iazko %3,1era igarota. Adierazle horretan ere, energiaren osagaia izan zen bilakaera orokorraren erantzule nagusia, goranzko joerari jarraipena eman ziolako eta urteko batez bestekoan %7,8ko emaitza jaso zuelako.

IPRIa osatzen duten gainontzeko taldeek gehikuntza izan zuten aurreko epealdiarekin alderatuta, salbuespena ekipamendurako ondasunak izan zirelarik, zortzi hamarrenetan murriztu zutelako beren aldakuntza tasa. Aldi berean, bitarteko ondasunek, gainontzeko lehengaien garestitzeak baldintzatuta, 2011tik inoiz izan duten gehikuntza tasarik gorena jaso zuten (%2,6). Berdin gertatu zen kontsumorako ondasunen kasuan ere (%2,1), nahiz eta beraren bi osagaietako batek, kontsumo iraunkorreko ondasunenak, nabarmen moteldu zuen bere tasa, aurreko urteetan izan zituen balio negatiboetara itzuliz (%-0,5).

**EAEko industriako prezioen indizea**  
**30 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak


	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Indize orokorra</b>	<b>-0,6</b>	<b>-1,1</b>	<b>-2,6</b>	<b>-2,9</b>	<b>2,8</b>	<b>3,1</b>
- Kontsumoko ondasunak	0,1	-0,2	-0,6	0,6	1,0	2,1
- Kontsumo iraunkorrak	0,2	-1,2	-0,3	-0,7	2,4	-0,5
- Kontsumo iragankorrak	0,0	0,1	-0,7	0,8	0,7	2,5
- Ekipamendu ondasunak	1,3	-0,4	0,3	0,8	2,7	1,9
- Bitarteko ondasunak	-1,4	-0,6	-0,8	-1,9	1,9	2,6
- Energia	-1,8	-3,6	-11,6	-10,4	6,6	7,8

Iturria: Eustat.

#### 4.4 Soldatak

Ekonomiaren susperraldia soldata nominalen bilakaeran ere hasi da nabaritzen. INEk zenbatesten duen soldaten egiturari buruzko inkestaren informazio berrienak, 2017ko urteari baitagokio, urte horretan irabazi esanguratsua lortuz zela adierazten du, hala soldata langile bakoitzeko neurtzen denean nola lan egindako ordu bakoitzeko egiten denean. Zehatz-mehatz adierazita, estatistika horren arabera, 2017an EAEko batez besteko soldata 28.204 eurotan kokatu zen. Zenbaki horrek aurreko urtekoa %2,6an gainditu zuen eta %10,4an 2008an, urteko batez bestekoan hau ere, jaso zena. Orobat, lan egindako ordu bakoitzeko 18,48 euro irabazi ziren, 2016an jasotakoa baino %1,7 gehiago eta 2008an ordu bakoitzeko eskuratu zena baino %14,4 gehiago.

**Soldataren bilakaera. Langileko eta orduko. 2008. urtea=100**  
**41 irudia**




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Halaber, batez besteko soldataren hobekuntza antzekoa izan zen emakumeentzat eta gizonentzat. Hain zuzen ere, 2008tik 2017ra bitartean, emakume baten soldata, batez beste, %11,0 igo da eta gizon batena, berriz, %11,9. Bi generoetan gauzatu zen gehikuntza ehunekoa antzekoa izateak (gizonena zertxobait handiagoa izan da) adierazten du epealdiaren hasieran zegoen soldata arrakala portzentaje esanguratsuan zabaldu dela. Zehazkiago azalduta, gizon baten eta emakume baten soldaten arteko aldea, batez beste, 6.500 eurokoa zen 2008an eta 7.450 euroetara igo zen diru kopuru hori 2017an. Beraz, soldata arrakala %14,7 handitu da bi urte horien arteko epealdian. Hori horrela den arren, azken urteetan soldata arrakala zertxobait murriztu dela hauteman da. Izan ere, baliorik gorena 2012an jaso zen (7.700 euroko aldea) eta harez geroztik arrakala 300 eurotan baino apur bat gehiagotan itxi da.


Soldata arrakalaren analisisa lan egindako ordu bakoitzeko egiten bada, emaitza nabarmen ezberdina da. Izan ere, 2008an gizon batek 17,44 euro irabazi zituen ordu bakoitzeko eta emakume batek 14,26 euro. Horren ondorioz, bi generoen arteko arrakala 3,18 eurokoa zen. Bederatzi urte beranduago, zenbaki horiek, hurrenez hurren, 19,55 euro eta 17,04 euro dira, aldea 2,51 eurora murriztu delarik. Murrizketa hori emakumeen soldata %19,5 handitu delako lortu da, gizonen gehikuntza %12,1 izan den bitartean.

**Soldaten bilakaera. Langileko eta sexuaren arabera. 2008. urtea=100  
42 irudia**

Langileko. Emakumeak




Langileko. Gizonak




Iturria: INE. Soldaten egitura.

**Soldaten bilakaera. Orduko eta sexuaren arabera. 2008. urtea=100  
43 irudia**

Orduko. Emakumeak



Orduko. Gizonak



Iturria: INE. Soldaten egitura.

Beraz, orduko soldatan, arrakala gutxitu da, baina langileko soldatan, zabaldu. Itxurazko kontraesan horren azpian genero bakoitzak lan egindako ordu kopuruaren bilakaera dago. Zehatz-mehatz adierazita, gizonen lan jardunaldia ia ez da ezer laburtu 2008tik 2017ra doan hamarraldian, baina emakumeenak, ordurako lanaldi laburragoa baitzuten, oso murrizketa nabarmena ezagutu du epealdi horretan. Soldaten egiturari buruzko inkestatik bertatik eratortzen diren datuek iradokitzen dute gizon baten batez besteko lanaldia 2008an 1.621 ordukoa zela eta 2017an 1.617 orduetara bakarrik jaitsi zela. Aitzitik, emakume baten batez besteko lanaldia 1.526 ordukoa izan zen 2008an eta 1.418 ordukoa, berriz, 2017an. Beraz, hor ehun ordutatik gorako murrizketa bat gertatu da. Jardunaldiaren diferentziak azaltzeko orduan erabiltzen diren azalpen ezagunenetako bat emakumeek lanaldi partzialeko kontratu gehiago dituztela da. Hain zuzen ere, BAI inkestak zenbatetsi duenez, emakumeen %26,2k eta gizonen %7,3k lanaldi partzialeko kontratua zeukaten 2018an.


Batez beste, 2008-2017 epealdian jaso den soldata igoera ez da langile kolektibo guztietara zabaldu. Esate baterako, 10 pertzentilean, hots, soldata apalenak dituen %10ak, ia ez du ezer hobetu bere egoera azken bederatzi urtekoan. Izan ere, 2016 arte, talde horren soldata 2008an jasotzen zutena baino nabarmen txikiagoa zen, desberdintasuna areagotu dela agerian utziz. 2017rako argitaratu diren datuek iradokitzen dute soldata apalenetan hauteman den narriadura hori neurri batean zuzendu dela, baina zuzenketa horrek 2008an kobratzen zuten soldata itzultzeko balio izan du. Beste muturrean, 90 pertzentilean, soldata altuenak irabazten duten %10k osatua, epealdi horretan %10,9 handitu du bere soldata, batez besteko bilakaerarekin bat eginez.

Dagoeneko aipatu denez, 2017ko datuek nolabaiteko hobekuntza islatzen duten 10 pertzentilean, oraindik bilakaera ezberdina hautematen da genero bakoitzean. Izan ere, soldata txikiena duten emakumeen %10ak oraindik urrun zegoen 2008an jaso zuten batez besteko soldata berreskuratzetik, nahiz eta 2016ko soldataren aldean hobekuntza garrantzitsua lortu. Gizonen kasuan, 2017ko hobekuntza hamar puntutik gorakoa izan zen eta krisiaren aurretik zeukaten soldataren %5,1 gaineratik kokatu zen. Beraz, itxuraz 2017an gertatu zen soldaten desberdintasunaren murrizketak gizonei bereziki egin zien mesedea.


Desparekotasun hori ikusteko beste modu bat kolektibo horren soldata arrakala aztertzea da. Izan ere, arrakala 2016an 5.286 eurokoa izatetik 2017an 6.235 eurokoa izatera igaro zen. Nahiz eta soldata txikiena duten pertsonak izan, emakumeen eta gizonen arteko diferentzia oso esanguratsua da.

**Soldaten bilakaera. Pertzentilen arabera. 2008. urtea=100  
44 irudia**

Pertzentil 10




Pertzentil 90




Iturria: INE. Soldaten egitura.

**Soldaten bilakaera. Pertzentil 10. 2008. urtea=100  
45 irudia**

10 pertzentila. Emakumeak



10 pertzentila: Gizonak




Iturria: INE. Soldaten egitura.



Beste muturrean, diru sarrera handienak dituzten emakumeek %16,1 gehiago irabazi zuten 2008an kobratu zutenarekin alderatuta, kolektibo horretako gizonak %12,0ko hobekuntza lortu zuten bitartean. Bi kasuetan, gehikuntza horiek batez bestekoaren gainetik daude, bereziki emakumeen kasuan. Horrek adierazten du desberdintasuna areagotu dela. Kolektibo horrek bakarrik lortu zuen soldata arrakala murriztea 2008-2017 epealdian. Izan ere, talde horretako emakumeen eta gizonen soldaten arteko diferentzia, batez beste, 7.978 eurokoa izan zen 2008an eta 9.296 euroetara iritsi zen 2013an. Data horretatik aurrera, ekonomiaren susperraldia finkatu zen heinean, diru kopuru hori murriztu da, 2017an 7.409 euroetara jaitsiz. Gogoratu behar da soldaten gutzitza dagoen arrakala 7.453 eurokoa dela. Beraz, soldata handiena dutenen taldean, gizonen eta emakumeen arteko diferentzia batez bestekoarena baino are txikiagoa da. Halakorik ez zen 2008an eta ondorengo urteetan gertatzen.

**Soldaten bilakaera. Pertzentil 90. 2008. urtea=100**  
46 irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Soldaten egitura gertatu diren aldaketetan azpimarratu behar den alderdi oinarrizko bat emakumeak gero eta enplegu sofistikatuagoak hartzen ari direla da. Emakumeak goi mailako ikasketak egin dituen heinean, okupazio altuagoko enpleguak lortzeko aukera handiagoak izan ditu, soldata eta bilakaera hobea dituztenak. Hain zuzen ere, okupazio altuak deitzen diren enpleguetan lan egiten duten emakumeek %14,7 hobetu zuten beren soldata 2008tik 2017ra bitartean, okupazio


baxuetan lan egiten duten emakumeek 2008an jasotzen zuten batez besteko soldata oraindik berreskuratu ez duten bitartean. Aldagai hori talde bakoitzeko soldata arrakalarekin lotuz, begi bistakoa da okupazio altuetan, hain zuzen ere soldata altuenak ordaintzen direnetan, diferentzia txikienak daudela. Izan ere, 2017an arrakala 6.229 eurokoa zen goi mailako okupazioetan, 8.952 eurokoa ertainetan eta 10.718 eurokoa behe mailako okupazioetan. Harrigarria da baieztatzea soldata txikienak ordaintzen diren okupazioetan emakumeen eta gizonen arteko soldata diferentzia handiena izatea. Azkenik, adierazi behar da goi mailako okupazioetan antzeko arrakala zegoela 2008an eta 2017an, baina gainontzeko bi taldeetan arrakala hori nabarmen zabaldu da.

**Soldaten bilakaera. Emakumeak okupazio mailaren arabera. 2008. urtea=100  
47 irudia**

Emakumeak. Goi mailako okupazioa



Emakumeak. Behe mailako okupazioa




Iturria: INE. Soldaten egitura.

INEk argitaratzen duen lan kostuen hiruhilekoko inkestaren (ETCL) arabera, 2018an EAEko langile bakoitzeko lan kostua %2,5 hazi zen, 2013tik inoiz jaso den gehikuntza tasarik altuena baita. Orobat, datu hori Estatuan jaso zena (%1,0) zein erreferentziako beste autonomia erkidegotan, hala nola Madrilan (%1,3) eta Nafarroan (%2,1) eskuratutakoak baino altuagoa izan zen. Gehikuntza handiago horren ondorioz, lan kostua hileko batean 3.036 euroetara iritsi da, liderra den Madrilan ia parean (3.044 euro) jarriz eta Estatuko batez bestekoa (2.573 euro) %18,0 batean gaindituz.

Kostuen gorakada hori azaldu dezaketen faktoreen artean, batzuk komunak dira EAEn zein Espainian. Haietako bat lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) igoera da, baina goizegi da beraren eragina adierazteko, zeren eta, INEren arabera, langile guztien %1,5ean eta lanaldi osoko langileen %12,5ean bakarrik baitu eragina. Beste faktore bat arlo publikoan 2017tik aurrera indarrean sartu ziren soldata igoerak eta gaurkotzeak dira, 2010ean eta ondorengo urteetan 2016 arte ezarri ziren soldata jaitsierak eta izozteak konpentsatzeko. Inflazioaren bilakaera ere, KPIaren bitartez neurtuta, faktore komuna da. Aldagai hori oso nabarmen igo zen 2017an eta 2018an (%2,0 eta %1,6, hurrenez hurren) 2014-2016 epealdiarekin alderatuta (%0,2, %-0,3 eta %0,0 izan ziren urte horietako igoerak), eta hitzarmen kolektiboetako klausuletara eramanda, eragina izan zitekeen lan kostuetan modu orokor batean (gutxi gorabehera, soldata kostuak guztizkoaren %75 inguru dira).


**Lan kostuak hileko eta langileko. Euroak, 2018ko batez bestea**  
48 irudia



Iturria: INE (ETCL).

Analisis sektoreka egiten denean, agerian geratzen da 2018an aldaketa bat gauzatu zela aurreko urteekin alderatuta. Izan ere, hala eraikuntza nola zerbitzuak protagonistak izan ziren, industriaren orde. Zehazkiago adierazita, beren jardueren bizitasunaren ondorioz, lan kostuak eraikuntzan eta zerbitzuetan %2,9 eta %3,1 hazi ziren, hurrenez hurren, urte horretan, industriaren igoera (%1,6) nabarmen gaituz. Industria izan ohi da kostu eta urteko gehikuntza handienak jasotzen zituen sektorea, beraren produktibitate irabazia handiagoa izaten delako.


**Lan kostu guztiak langileko. Sektoreak . Urte arteko aldakuntza tasak  
49 irudia**



Iturria: INE (ETCL).

Espanian antzeko egoera gertatu zen, baina kasu horretan 2018ko aldakuntza tasak EAEn jasotakoak baino nabarmen apalagoak izan ziren. Esate baterako, eraikuntzak eta zerbitzuek %1,1 areagotu zituzten beren lan kostuak eta industriaren igoera (%0,6) txikiagoa izan zen.

**Lan kostu guztiak langileko. Sektoreak. Alderaketa  
50 irudia**




Iturria: INE (ETCL).

EAEEn, orduko lan kostuek igoera neurrtsua izan zuten 2007-2018 epealdian, gainontzeko herrialdeekin alderatuta. Zehatz-mehatz azalduta, epealdi horretan urteko batez besteko hazkunde tasa %1,5era iritsi zen. 2018ko hazkunde tasa %0,7 izan zen. Datu horrek adierazten du batez besteko azken kostua 25,9 eurokoa zela ordu bakoitzeko. Orduko kostu hori eta EB-15koa antzekoak ziren, eremu horretan 25,1 eurotan kokatu zelako.

Oro har, Txekiar Errepublikaren kasua albo batera utzita, 2017an eta 2018an, hurrenez hurren, %5,0ko eta %6,0ko hazkundeak izan baitzuten, gainontzeko herrialdeetako gehikuntza tasak txikiagoak izan ziren eta Espainiaren %0,8aren eta Alemaniaren %2,1aren artean egon ziren. Halaber, Txekiak %35,0 handitu zuen orduko lan kostua 2007-2018 epealdian, AEBek %8,0, Espainiak %12,8, EAEk %17,6 eta Alemaniak %26,9 areagotu zuten bitartean. Eraitza horiek erakusten dute Europar Batasunaren barruan kostuak bateratzeko prozesu bat dagoela, nahiz eta oraindik alde handiak egon termino absolutuetan, zeren eta hazkunde horrekin orduko kostua Txekian, 2018an, 22,6 eurotan baitzegoen (2007an 15,3 eurotan zegoen). Beste aldetik, AEBek jarraitu dute orduko lan kostuen bilakaeran gehikuntza tasa oso txikiak ezartzen.

**Lan kostu nominalak orduko. 2017=100**  
**51 irudia**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Lan Harremanen Kontseiluak negoziazio kolektiboaz aurkezten duen estatistikari erreparatuta, adierazi behar da, alderdi positibo gisa, lan hitzarmenak 2017an baino gehiago adostu zirela. Hain zuzen ere, 2018ko amaieran 269.664 langilek zeukaten hitzarmena eguneratuta, hau da, soldatapeko guztien %46,8k, aurreko urtean langileen %39,2 bakarrik egoera horretan zegoen bitartean. Orobat, lan hitzarmen eroria zuten langileen kopurua ere gutxitu zen (2018an %14,9 izan zen, aurreko urtean %19,3 izan zen bitartean).

**Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak**  
**31 taula**

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Indarrean dauden hitzarmenak</b>	<b>0,9</b>	<b>0,7</b>	<b>0,6</b>	<b>1,0</b>	<b>1,5</b>	<b>1,9</b>
- Urtean zehar sinatutakoak	0,8	0,5	0,7	1,1	1,7	2,2
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	0,9	0,7	0,6	1,0	1,5	2,0
- Enpresako hitzarmenak	1,1	0,6	0,6	1,1	1,5	1,6

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Soldaten igoerak, berriz, %1,9 izan ziren indarrean dauden hitzarmenentzat eta %2,2, berriz, 2018an zehar jaso ziren hitzarmenentzat. Tasa horiek azken urteetako batez bestekoaren oso gaintik daude eta erosteko ahalmena berreskuratu dela adierazten dute, soldaten hazkunde erritmoa inflazioarena baino zertxobait altuagoa izan zelako. Gehikuntza horren atzean, hainbat arrazoi daude, hala nola lan merkatuaren egoerak izan duen hobekuntza edo indexaziorako mekanismoen mailakako desagertzea.

## 5. LEHIAKORTASUNA ETA LAN KOSTUAK


### 5.1 Produktibitatea

EAEko ekonomiaren lehiakortasunaren portaerak, produktibitatearen ikuspegitik, bilakaera positiboa erakutsi du azken urteetan, 2018an ere baieztatuta geratu zena. EAEko produktibitatea, langile bakoitzeko orduetan neurtuta, zertxobait igo zen (%0,8) aurreko urteko emaitzaren aldean. Hazkunde hori EB-28an eskuratutakoa (%0,7) baino apur bat altuagoa da, baina EB-15arena zein Espainiarena (hurrenez hurren, %0,2 eta %-0,2) baino askoz ere handiagoa, nahiz eta 2017an lortu zena baino hiru hamarren txikiagoa izan. Aurreko guztiaren ondorioz, orduko produktibitatea 42 eurotik gorako balio bat eskuratu du, 2007ko datuaren aldean 14,5 puntuko gehikuntza bat delarik.

Krisiaren garaian, hots, 2009-2012 epealdian, lortu ziren produktibitatearen gehikuntza garrantzitsuak, neurri handi batean, enpleguaren jaitsieraren ondorioa izan ziren. Geroztik ere %1aren inguruko hazkunde tasak lortu dira modu iraunkor batean. Espainiaren ibilbidea antzekoa izan da, baina 2018an bilakaera horrek nolabaiteko agortzea erakutsi zuen (%-0,2 hazi zen), produktibitatea jaitsi zelako. Urte horretako jaitsiera hori enplegu sorrera handiak eragin zuen (ordu kopurua %2,8 hazi zen), aldagaiaren balioa eremu negatibora eramanez.

Herrialdeka, Txekiar Errepublikaren produktibitateak 2007tik izan duen bilakaera alderraia nabarmendu behar da. Izan ere, 2009an 2,5 puntu jaitsi zen, baina geroztik posizioak berreskuratu zituen eta 2015etik aurrera oso bizkor egin zuen bat egiteko bidea, herrialde hartako produktibitatea hazkundera berriro AEBen parekoa izan arte.

**Produktibitatea orduko (euroak/orduko). 2018**  
**52 irudia**



---

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).


Europari dagokionez, nolabaiteko antzekotasuna dago Alemaniak, EB-28k eta EB-15ek izan duten bilakaeran, produktibitatearen gehikuntza tasak EAEn jasotakoak baino zertxobait txikiagoak zirela eta %0,7aren eta %0,9aren artean kokatu zirela.

Produktibitatearen bilakaerak, urte arteko hazkunde tasetan neurtuta, bateratze garbia erakusten du aztertu diren herrialdeetako produktibitatearen portaeran. Beraien artean, azpimarratzekoa da aldagai horrek oso hazkunde txikia izan zuela Espainian (%-0,2) eta neurritsuak EAEn, Txekiar Errepublikan eta AEBetan (%0,8). Irudian ikus daitekeenez, oraingo urkila 2009an zegoena baino askoz ere estuagoa da.

2009tik hazkunde tasak gutxika-gutxika leundu dira eta aldakuntza tasetan bateratze txiki bat hauteman da, oro har. Prozesu horretan, EAEk erakutsi duen portaera positibotzat jo behar da. Bilakaera horrek hasierako urteetan gorabehera handiko mugimenduak bizi zituen, baina azken urteetan aldakuntzak leundu dira.




**Produktibitatea lan ordu bakoitzeko 2007- 2018. 2007=100. Indizeak  
53 irudia**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

**Produktibitatea lan ordu bakoitzeko 2007- 2018. 2007=100. Urte arteko aldakuntza tasak  
54 irudia**




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Produktibitatea langile bakoitzeko neurtzen denean, EAEko portaera 2007tik nahiko egonkorra izan dela ondorioztatzen da, 2008tik 2018ra doan epealdian urteko %0,9aren inguruko hazkundera eskuratuta. Halere, portaera homogeneo horrek azalpen ezberdinak ezkutatzen ditu epealdi bakoitzaren arabera. Izan ere, 2008-2013 epealdian, langile bakoitzeko produktibitatearen %0,9ko irabazia enpleguaren jaitsierak eragin zuen, baina 2014-2018 epealdian lortu zen %0,9ko irabazi hura ekoizpenaren gehikuntzak ekarri zuen.

Espainiaren kasuan ere, bilakaera ezberdina hautematen da aipatu diren bi epealdi horietan (%1,6 eta %0,5, hurrenez hurren), krisian zehar enpleguak beherakada bizia izan zuelako eta 2014tik aurrera hazkunde sendoa lortu zuelako. Beste aldetik, EB-28k eta EB-15ek Espainiarenak baino gorabehera apalagoak izan zituzten (%0,5-%0,8 eta %0,3-%0,7, hurrenez hurren), neurri handi batean lan merkatuaren portaera horren gorabeheratsua ez zelako izan.

**Produktibitatea landuneko (epearen batez bestekoa)**  
**55 irudia**




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Herrialdeka, deigarriak dira Alemaniaren eta Txekiaren kasuak, beraien produktibitatearen hazkunde tasak negatiboak izan zirelako krisian zehar, lanpostuei eustea lehentasuntzat hartu

zutelako. Geroztik, tasa positiboak berreskuratu zituzten. Alemaniaren kasuan, tasa horiek %0,8ra iritsi ziren, baina Txekiarenean %2,1ean kokatu ziren. Azkenik, AEBen bilakaera EAEn antzekoa izan da.

Industriaren produktibitateari dagokionez, langile bakoitzeko neurtuta, EAEko ekonomiarentzat lehenago aipatu dena areagotzen da. Izan ere, krisitik irteteko urteetan, produktibitatearen irabazia gero eta txikiagoa izan zen eta 2018an hazkundea %0,52ra mugatu zen. Emaitza hori bat dator nazioarteko panoraman, gutxienez herrialde garatuetan, manuflakturen sektoreak izan duen bilakaerarekin.


**Lan produktibitatea langileko. Manufakturak. 2007- 2018. Indizeak**  
56 irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Alemaniako, EB-15eko eta AEBetako tasen bilakaerak seinalatzen du herrialde horietako produktibitatearen hazkundea hutsala izan zela (AEBen kasuan eskura dagoen azken datua 2016koa da). Alemanian, 2013tik 300.000 lanpostu baino gehiago sortu dira industrian eta horrek adierazlea tasa negatibotara (%-0,7) eraman zuen 2018an.

**Produktibitatea langileko. Manufakturak. 2008- 2018. Urte arteko aldakuntza tasak  
57 irudia**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

## 5.2 Lan kostu unitario nominalak eta errealak

Lan kostu unitarioak (LKU), hala termino nominaletan nola termino errealetan, produktu unitate bat ekoiztea kostatzen duen batez besteko kostua da. Adierazle hori erabiltzea ohikoa da ekonomia baten lehiakortasuna neurtzeko. Lan kostu unitarioek ez dituzte kontuan hartzen lehiakortasunaren beste alderdi batzuk, hala nola prozesuaren eta produktuaren berrikuntza teknologikoa. Hala ere, lehiakortasunaren analisia egiteko eskuarki onartuta dago eta berau erabiltzen da bai herrialde baten lehiakortasuna lan kostuetan jakiteko bai gainontzeko herrialdeekin alderaketak egiteko. Azken horiek egin ahal izateko, ezinbestekoa da lan kostu unitarioak erosteko ahalmen parekotasunean neurtuta egotea.

Unitateko lan kostu nominalak formula honekin definitu daitezke:


$$LKU_n = w / (BPG_{15}/L) = (Wtr / L) / (BPG_{15}/L) = Wtr / BPG_{15}$$

Batez besteko soldata nominala zati batez besteko produktibitate erreala da. Unitateko lan kostu errealak (LKUr) kalkulatzeko, soldatak prezioen mailarekin zuzentzen dira. Beraren formulatik ondorioztatzen da lan kostu unitario errealak eta soldatek errentaren banaketa duten pisua baliokideak direla:

$$LKU_r = (w / P) / (BPG_{15}/L) = (w.L) / (P \cdot BPG_{15}) = Wtr / BPG$$

Muga hori onartuta, 2007tik 2018ra doan epealdian, EAeko LKU nominalak ia konstanteak izan dira (epealdian %3ko aldakuntza izan dute). 2018an, kostu horiek %0,5 gutxitu ziren. *Ceteris paribus*, horrek esan nahi du lehiakortasuna irabazi dela. Lehiakortasun irabazia are handiagoa izan zen Espainian, non LKU nominalak ez baitira aldatu azken hamaika urtean. Oso bestelakoa da EB-28aren eta EB-15aren egoera, non gehikuntza neurritsuak jaso baitira, beren lehiakortasuna jaitsiz termino erlatibotan.


**Lan kostu unitario nominala orduko. 2007. urtea=100**  
**58. irudia**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Erreferentziako herrialdeen artean, Txekiar Errepublikak handitu zuen gehien bere LKU nominalak, Alemaniarekin ere gertatzen den bezala, beraren lehiakortasuna neurri handiagoan I+G+b delakoan oinarritzen delako. Aitzitik, LKU nominalen bilakaera AEBetan lotuago dago lan kostuen bidezko lehiakortasun gehikuntzei eta 2018an lortu zituzten LKU nominalen maila 2007an zeudenen azpian kokatu ziren.

**Lan kostu unitario nominala. Manufakturak. 2007-2018. 2007. urtea=100**  
**59. irudia**




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Hala ere, eskura dauden datuak aztertuta, AEBetako manufakturen LKU nominalen bilakaerak hazkunde nabarmena izan zuela, 2015ean %23ra iritsi baitzen. Datu hori Alemaniarena eta Txekiar Errepublikarena baino askoz ere altuagoa da, 2018an %15 izan baitzen. EAeri dagokionez, industria sektorearen LKU nominalak 2016an 2007ko mailan zeuden. Espainiako kasuan, 2014tik 2007ko mailaren azpian daude.

Azkenik, unitateko lan kostu errealarari (LKUr)<sup>1</sup> dagokionez, EAEn, Espainian eta AEBetan adierazle hori gaur egun 2007ko mailaren azpian egoteak adierazten du soldatek partaidetza galdu dutela errentaren banaketan. Aitzitik, partaidetza hori handiagoa da Alemanian, Txekian eta Europar Batasunean. Neurri txikiagoan, baina baita EB-15ean ere.

**Lan kostu unitario erreala orduko. 2007. urtea=100**  
**60. irudia**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

<sup>1</sup> Errenten ikuspegiaren arabera, lan faktoreak BPGaren hazkunderari egiten dion ekarpenaren balioa (langileari ematen zaiona) eta unean uneko prezioetan neurtuta.

## 6. ARLO PUBLIKOA

### 6.1 Itundutako zergen diru bilketa

2018ko ekitaldia amaitutakoan, foru aldundiek itundutako zergen bidez urte horretan guztira bildu zuten diru sarreren kopuru kontsolidatuak inoizko kantitaterik gorena jaso zuen, 14.981.545 mila eurora iritsita. Urte arteko gehikuntza %3,5 izan zen, baina hasieran aurreikusitako diru kopurua %4,1ean gainditu zuen. Gogoratu behar da 2017an BEZaren Doikuntzaren azalpenean 599,8 milioi euroko kopuru osoa sartu zela, berez 2008-2016 epealdiko kupoen erregularizazioarena zena. Aparteko diru sarrera hori ez bada kontuan hartzen, 2018ko diru bilketaren aldakuntza tasa %8ra iristen da.

Diru bilketaren hazkundera nagusiki zuzeneko zergetan oinarritu zen, non sozietateen gaineko zerga nabarmendu baitzen, %32,8ko gorakada bati esker. Beste aldetik, PFEZ zergak hazkunde tasa motelagoa (%5,4) erakutsi zuen. Hala ere, zerga horrek diru bilketa osoaren herena baino gehiago (%36,1) jaso zuen eta berau osatzen duten zerga atal guztiek ekarpen positiboa egin zuten.

Hori horrela izanda, lanaren etekinen gaineko atxikipenek, PFEZaren barruan dirua biltzeko ahalmen handiena duen osagaia baita, %4,7ko hazkundera izan zuten, hots 2017an lortu zutena baino puntu bat gehiago, enpleguaren hazkundera %2,0aren inguruan mantendu zelako eta soldaten bilakaera ere positiboa izan zelako (indarrean dauden hitzarmenetako soldata gehikuntza %1,9 izan zen). Orobat, kapital higigarriaren etekinen atxikipenek emaitza nabarmenak (%8,4) eskuratu zituzten, Arabako enpresa batek izan zituen dibidendu aparta batetik etorritako diru sarrerek eraginda. Azkenik, hala kapital higiezinaren etekinek (%1,1), etxebizitzak alokatzeko merkatuaren dinamismoarengatik, nola hainbat loteria eta aposturen sarien gainean dagoen zerga



bereziaren atxikipenek (%80,3), Bizkaian urte hasieran egokitu zen sari garrantzitsu baten diru bilketarengatik, beren aldakuntza tasak areagotu zituzten.

Beste aldetik, sozietateen gaineko zergak, lehenago ere aipatu denez, hazkunde handiena eskuratu zuen eta beraren diru bilketak oso nabarmen gainditu zuen hasierako aurrekontu aurreikuspena (%27,0). Lehenengo aldiz, ordainketa zatikatua aurkezteko beharrak eta aldeko koiuntura ekonomikoak, enpresen irabaziak gorarazi baitzituen, kuota diferentzial garbiaren bidezko diru bilketa %41,9 handitu zuten. Horri esker, sozietateen gaineko zergak inoizko hazkunde tasarik gorena lortu zuen urte horretan.

Analisia zeharkako zergetan fokatuta, eta BEZarekin hasita, zerga horrek %7,9ko gorakada izan zuen 2018an. Familien gastuaren hazkundeak eta prezioen gehikuntzak, bereziki energiaren merkatuan gauzatutakoak, azaltzen dute igoera hori. Bilakaera horrek aukera bat eman zuen zergaren diru sarrera gordinak igotzeko. Halaber, urte horretan egin ziren itzulketen bolumena ere nabarmen gehitu zen.

Azkenik, fabrikazioko zerga berezien multzoak %2,0 handitu zuen diru bilketa 2018an, ia zerga guztiek ekarpen positiboa egin zutelara. Salbuespen bakarra alkoholaren gaineko zerga (%-33,2) izan zen, baina figura horren pisua diru bilketan oso txikia da. Beste aldetik, hidrokarburoen gaineko zergak %1,6ko gehikuntza lortu zuen 2018an, automobilen kontsumoaren igoeran oinarrituta. Halaber, bai tabakoaren lanen gaineko zergak (%3,8) bai argindarrarenak (%4,7) beren erregistroak hobetu zituzten. Lehen kasuan, gorakadak eta beherakadak tartekatuta ziren, une jakin batzuetan pilaketak egin zirelako, zergak igoko zirela iragarri ondoren. Bigarren kasuan, handizkako merkatuko prezioen igoera erabakigarria izan zen.


**Zerga itunduen bilakaera**  
**32. taula**

Mila euro

	Diru-bilketa		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
PFEZ	5.407.614	-1,5	2,9	5,9	4,1	6,0	5,4
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikip.	4.991.342	-1,8	1,8	1,6	2,8	3,7	4,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	180.720	-11,1	-8,7	-11,0	-13,8	10,7	8,4
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	81.905	-1,8	-3,3	-1,8	-2,9	1,9	1,1
- Ondare irabazien atxikipenak	51.306	47,6	11,9	59,7	-44,5	52,0	14,6
- Esp. zergak hainbat loteria sarien gain	43.570	-	-	25,5	-63,8	57,5	80,3
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	168.931	-5,1	-2,6	3,8	2,3	6,7	6,4
- Kuota diferentzial garbia	-110.161	7,2	6,9	35,1	43,9	38,9	0,7
Sozietateen gaineko zerga	1.476.010	7,5	-4,7	-10,4	-3,5	10,9	32,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	180.720	-11,1	-8,7	-11,0	-13,8	10,7	8,4
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	81.905	-1,8	-3,3	-1,8	-2,9	1,9	1,1
- Ondare irabazien atxikipenak	51.306	47,6	11,9	59,7	-44,5	52,0	14,6
- Kuota diferentzial garbia	1.162.078	13,3	-4,5	-13,8	1,9	10,2	41,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	32.439	31,6	-77,8	-669,3	95,6	-	-2,4
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	132.079	17,7	6,6	1,2	-2,4	6,2	12,0
Ondarearen gaineko zerga	184.877	19,6	10,4	-0,9	6,8	1,2	13,3
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.565	-	-	98,6	-0,4	2,1	-1,0
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko	34.857	-	15,1	32,2	-13,9	2,2	6,1
<b>ZUZENKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>7.292.440</b>	<b>1,7</b>	<b>1,2</b>	<b>1,6</b>	<b>3,5</b>	<b>7,2</b>	<b>10,2</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	4.059.967	6,0	13,2	2,5	0,9	2,3	7,9
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	160.048	-10,0	25,5	12,7	19,3	19,0	10,8
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	46.970	-6,9	-4,9	19,3	-10,2	-0,9	20,9
Garraio jakin batzuen gaineko zerga	26.073	-21,4	9,3	10,8	8,6	21,1	20,0
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.723.267	10,7	0,9	0,9	4,6	1,7	2,0
Aseguru sarien gaineko zerga	79.140	-3,8	-1,1	3,2	2,4	2,0	4,6
Joko jardueren gaineko zergak	6.614	-	-	-46,6	20,6	20,5	11,0
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	3.846	-	-	266,7	-16,3	65,2	-7,6
Iraungitako zergak	-9.404	-74,7	-97,6	-3.891,3	15,0	20,6	-23,5
<b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>6.096.521</b>	<b>5,9</b>	<b>9,1</b>	<b>2,1</b>	<b>2,3</b>	<b>2,9</b>	<b>6,3</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>118.510</b>	<b>3,5</b>	<b>-8,5</b>	<b>10,9</b>	<b>4,7</b>	<b>-11,5</b>	<b>11,0</b>
<b>BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK</b>	<b>13.507.471</b>	<b>3,5</b>	<b>4,7</b>	<b>1,9</b>	<b>3,0</b>	<b>5,0</b>	<b>8,4</b>
BEZaren doikuntza	1.776.026	5,9	8,5	5,1	3,0	70,0	-21,9
Zerga berezian doikuntza	-301.952	-96,0	-18,9	5,2	-19,9	-4,1	-17,2
<b>ITUNDUTAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>14.981.545</b>	<b>3,0</b>	<b>4,8</b>	<b>2,4</b>	<b>2,7</b>	<b>11,8</b>	<b>3,5</b>

Iturria: Foru Aldundiak.

**Itundutako zergen diru bilketa eta BPG nominala. Urte arteko aldakuntza tasak eta %BPG**  
**61. irudia**



Iturria: Eustat eta Ogasun eta Ekonomia Saila.

Presio fiskalari dagokionez, 2018an zehar aldagai horrek aurreko urteko emaitza bera jaso zuen, BPGaren %19,6an kokatuz. Emaitza hori, diru bilketa eta BPGa lotzen baita, 2007tik inoiz izan den altuena da. Hala ere, 2017an lortu zen puntu bat eta lau hamarreneneko hobekuntza nabarmena ez zen errepikatu, batez ere BPG nominalaren gehikuntza zerga diru bilketarena baino handiagoa izan zelako.

**Zerga nagusien diru-bilketa (%BPG)**  
**33. taula**

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
PFEZ	6,0	6,1	6,4	6,6	6,6	6,6	6,8	6,8	7,0	7,1
Sozietateen g/ zerga	2,1	1,5	1,7	1,7	1,9	1,7	1,5	1,4	1,5	1,9
BEZa	5,4	6,8	6,1	6,1	6,6	7,2	7,2	7,0	8,2	7,6
Guztira	16,6	17,6	17,1	17,3	18,1	18,6	18,4	18,2	19,6	19,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Aurrekontu Egikaritzaren Estatistiken datuak erabilia.

Zerga nagusien analisisan, BEZaren atzerakada azpimarratu behar da, 2017ko %8,2tik 2018ko %7,6ra. Jaitsiera hori ulertzeko, gogoratu behar da 2017an BEZaren doikuntza positiboa egin zela kupoari buruzko akordioen ondorioz, urte hartako diru bilketa oso nabarmen goraraziz. Beraz, zerga horren eta PFEZren arteko aldea estutu zen. Izan ere, errentaren gaineko zergak BPGaren %7,0 biltzetik %7,1era igo zen. Azkenik, sozietateen gaineko zergak izan zuen hobekuntza handiena (%1,5etik %1,9ra igo zen), batez ere enpresen irabazien hobekuntzari esker.

## 6.2 Eusko Jaurlaritzaren jarduera ekonomikoa

2018an zehar, aurreko urtean egin zen aurrekontua finkatzeko ahaleginari jarraipena eman zitzaion eta BPGaren superabita 2017ko %0,3tik %0,5era igo zen. Hobekuntza hori diru sarrera arrunten igoeran oinarritu zen, aurreko urtekoaren aldean %1,5 handitu zirelako. Izaera horretako gastuak, berriz, %0,4 murriztu ziren, finantza gastuak (%-2,9) eta transferentzia arruntak (%-3,6) jaitsi zirelako. Aurreko guztiaren ondorioz, aurrezki gordina %18,7 areagotu zen, 1.143,5 milioi euroetara iritsi arte.

### *Eusko Jaurlaritzaren eragiketa errealak* 34. taula

BPGaren%	2013	2014	2015	2016	2017	2018
1. SARRERA ARRUNTAK	12,6	13,0	12,8	12,7	13,7	13,4
2. GASTU ARRUNTAK	12,8	12,9	12,6	12,5	12,4	11,9
Langileen gastuak	2,9	2,8	2,8	2,8	2,7	2,7
Funtzionamenduko gastuak	4,9	5,0	4,8	4,8	4,7	4,6
Finantza gastuak	0,3	0,4	0,3	0,3	0,3	0,2
Transferentzia arruntak	4,6	4,7	4,7	4,6	4,8	4,4
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	-0,2	0,1	0,2	0,3	1,3	1,5
4. KAPITALEKO SARRERAK	0,6	0,5	0,2	0,2	0,2	0,2
5. KAPITALEKO GASTUAK	1,4	1,4	1,1	1,1	1,2	1,1
Inbertsio errealak	0,7	0,5	0,3	0,3	0,3	0,2
Kapitaleko transferentziak	0,7	0,9	0,8	0,8	1,0	0,9
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	-1,0	-0,8	-0,8	-0,6	0,3	0,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

Aurreko urtean gertatu zen bezala, 2018an ere superabita lortu zen aurrekontuan, aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa. Hobekuntza hori, batez ere, diru bilketaren bilakaera onaren ondorioa izan zen, baina baita ere lehenago aipatu den interesen gastuen jaitsierari esker. Azken jaitsiera hori azaltzeko kontuan hartu behar da kostu handiagoa zuen zorraren muga egunak interes tasa txikiagoa zuten zor berriak ordezkatu zituela.

Ekonomia jardueraren hedaldiko testuinguru horretan, dagoeneko aipatu den defizitaren murrizketak lagundu zuen gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera zor gordina gutxitzen, 2017ko amaierako %14,2tik 2018ko amaierako %13,6ra igaro baitzen. Zor hori krisiaren aurreko urteetan jaso zena baino askoz ere handiagoa da oraindik, baina datozen urteetan ere jaitsiko dela aurreikusten da.

Aldagai finantzarioa kontuan hartuta, eta zorpetzea %30,6 handitu zela gogoratu, finantza bestelako superabita, 388,9 milioi eurokoa baita, zertxobait txikiagoa den 373,5 milioi euroko aurrekontu superabita bihurtzen da. Hala eta guztiz ere, kutxa terminoetan, superabita oso nabarmen handitu zen, ordaindu gabeko obligazioak 2017koak baino txikiagoak izan zirelako, kobratu gabeko eskubideak aurreko urtekoak baino handiagoak izan ziren bitartean.

**Eusko Jaurlaritzaren eragiketa finantzarioak**  
**35. taula**


BPGaren%	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>1. BALIABIDEAK</b>						
Finantzazio ahalmena (+) edo beharra (-)	-1,0	-0,8	-0,8	-0,6	0,3	0,5
Pasiboen gehikuntza eta aktiboen murrizketa	1,9	1,8	1,8	1,6	1,4	1,7
Ordaintzeko dauden obligazioak	1,1	0,9	0,9	0,9	1,1	1,0
<b>2. ENPLEGUAK</b>						
Aktiboen gehikuntza eta pasiboen murrizketa	0,6	0,9	1,1	1,0	1,0	1,7
Kobratzeko dauden eskubideak	1,0	0,8	0,3	0,3	0,4	0,4
Aurrekontu superabit/defizita kutxa terminoetan	0,4	0,2	0,5	0,7	1,3	1,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

### 6.3 EAEko administrazioen ziklo posizioa

Bideratu den aurrekontu baterakuntzari eta ekonomia jardueraren beraren hobekuntzari esker, zortzi urtez jarraian etengabeko defizitak jaso eta gero, 2016an EAEko administrazioek superabita lortu zuten. Hala ere, ibilbide horretan administrazio bakoitzak aurrekontu saldoen norabide ezberdina erakutsi zuen. Izan ere, eta bederatzi ekitalditan saldo negatiboak jaso ondoren, Eusko Jaurlaritzak superabita berreskuratu zuen 2017an eta berdin amaitu zuen 2018an ere. Foru aldundiek, ordea, 2009an eta 2010ean bakarrik izan zuten defizita. Orobat, saldo global horiek ere egoera ezberdinak ezkututzen dituzte diputazioen artean: foru erakunde batzuek saldo negatiboak aurkeztu zituzten ekitaldi batzuetan edo aldundi bizkaitarraren kasua, ez zuela zenbaki gorririk izan ekitaldi bakar batean ere. Beste aldetik, udalen multzoak defizita aurkeztu zuen 2009tik 2011ra doazen hiru urteetan, 2012an bertan saldo positiboak berreskuratzeko.

**Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu saldoaren banaketa 1987-2018. BPGaren % 62 irudia**




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.

Ekonomiaren susperraldiarekin, gertatu den saldo ziklikoa positiboa izan da eta output gap delakoa itxi den heinean, gutxitu egin da. Beste aldetik, defizit publikoaren egiturazko osagaia, aurrekontu

saldoaren eta ziklikoaren arteko aldea baita, defizitetik superabitera igaro da azken ekitaldietan. Egin diren zenbatespenen arabera, 2017an Eusko Jaurlaritzak egiturazko saldoan egin zuen hobekuntza BPGaren puntu batekoa izan zen, 2016an zegoen puntu negatibo baten balioa 2017an saldo orekatu batera igarota. Eraitza hori 2018an 0,4 puntuko superabit bihurtu da. EAEko administrazioen multzoan ere, egiturazko superabita hazten ari da eta puntu batera iritsi zen 2018an.

Aurrekontuen egonkortasunaz erakundeetan onartu den konpromisoak behartzen du aurrekontuak orekatzera edo superabita edukitzera. Hori bete beharrekoa da tokiko korporazioentzat eta helburua Eusko Jaurlaritzarentzat, 2019an gehienez BPGaren %0,1eko defizita eduki dezakeelako eta 2020an ezinbestez %0 lortu behar duelako. Beraz, datozen urteetan ekonomiarentzat aurreikusi daitekeen moteltzearen ondorioz, sor daitezkeen defizit ziklikoek administrazio publikoak behartuko dituzte ahaleginak egitera egiturazko saldo positiboak aurkezteko, azken bi ekitaldietan gertatu den bezala.

**Administrazio autonomoaren aurrekontu saldoaren banaketa 1987-2018. BPGaren % 63 irudia**




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.

Azken urteetan, zor publikoaren maila, BPGarekiko, gutxitu da. Gehieneko balioa 2016an jaso zen EAEko administrazioen guttizkoarentzat eta 2017an Eusko Jaurlaritzarentzat. Gehiegizko defizitaren protokoloak agintzen duenez, Eusko Jaurlaritzaren zorraren maximoa 2016an jaso zen, BPGaren %14,6ra iritsita. 2018an, tasa hori %13,6ra jaitsi zen, hots, konprometitutako %14,2aren azpitik. Irizpide beraren arabera, foru aldundien zorra ere ia puntu oso bat jaitsi zen urte horietan, 2016ko %4,8tik 2018ko %3,9ra.

Aurrekontu superabitak aurkeztu duten arren, administrazioek zorra jaulkitzen jarraitu dute. Eusko Jaurlaritzaren kasuan 2017an eta foru aldundiek 2011-2015 epealdian, jaulkipen horien diru kopurua amortizazioena gainditu zuen. Horren ondorioz, saldo bizia handitu da. Datozen ekitaldietan, aurrekontu saldo orekatuak lortuko diren etorkizuneko eszenategi batean, zor biziaren saldoak murrizten jarraituko duela espero da, baina oraindik urrun geratuko da krisiaren aurretik zegoen mailetatik.

**Eusko Jaurlaritzaren zor publikoaren bilakaera**  
64 irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.



Zorraren forma analisiaren arabera, zorraren jaitsiera horren azpian lehen mailako saldoaren bilakaera zein ekonomiaren hazkunde tasa erreala interes errealararena baino altuagoa izatea daude. Beraz, jasangarritasunaren arrakalak balio positiboak aurkeztu zituen, BPGarekiko zor maila gutxitu zelako.

#### **6.4 Politika publikoak krisian eta susperraldi ekonomikoa**

Gaur egun Araba, Bizkai eta Gipuzkoako sektore publikoak duen egoera eta beraren politika publikoen osaera ulertzeko guztiz komenigarria da krisi luzearen eragina eta urte horietan eta ondorengoetan, ekonomia suspertzen hasi zenean, bideratu den doikuntza prozesua ezagutzea. Gastuaren bilakaera 2007-2018 epealdi osoan aztertu ahal izateko eta kontuan hartuta aurrekontua 2009 arte hazi zela, hiru fase bereiziko dira: hedapen fasea (2007-2009), krisi ekonomikoaren urteetan zehar egin zen baterakuntza fiskaleko fasea (2009-2013) eta, azkenik, susperraldiaren fasea (2014-2018).

##### *Hedapen fasea (2007-2009).*

Finantza krisiaren lehen bi urteetan, zeina 2007an hasi baitzen eta 28 kideetako Europar Batasunean 2008an agertu, diru sarreretan pizgarri fiskalak ezartzeko eta gastua handitzeko eskumeneko neurriak onartu ziren, eskari agregatuaren jaitsiera galgatzeko. Hedapen fase horretan, gastuaren gehikuntza nahiko orokorra izan zen funtzio guztien artean, salbuespenak zorraren gastua, 0,3 puntutan jaitsi baitzen, eta ongizate komunitarioa, eskualdeko politikaren egitasmoa 2010ean desagertu zelako, izan ziren. Gastuaren gehikuntza orokorrean, nabarmentzen da osasunaren alorrean eta hezkuntzan eginiko hazkundera, BPGaren terminotan, 1,0 puntu eta 0,8 puntu izan direlako, hurrenez hurren. Bolumenean ere, segurtasunean eta babes zibilean eginiko gehikuntza (0,2 puntu) azpimarratu behar da. Zehazkiago, gizarteratzeko gastuarena, ekonomia krisiaren hasierako kalteei aurre egiteko. Orobat, ikerketa zientifikoan, teknikoan eta aplikatuan eginiko gastua, 2008an sortu zen Berrikuntzarako funtsarekin, finantza araudia eta industria laguntzeko gastua, zehazki, industriaren garapenari eta ekintzaileei laguntzekoa, aipatu behar dira.

2009an, oinarri fiskalen narriadura orokorrak eragin handia izan zuen zergen diru bilketan, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren beherakada orokorrarengatik. EAEn zein Espainian, jaitsiera hori

are larriagoa izan zen finantza eta higiezin burbuilei lotutako diru sarrera publikoak murriztu zirelako. Gastuaren ikuspegitik, hautazko igoerak onartu izanak eta aurrekontuaren egonkortzaile automatikoak aktibatu izanak gastuaren BPGarekiko ratioa 3 puntu hazi zen Eusko Jaurlaritzaren kasuan. Hori horrela izanda, bi urteko epe laburrean, BPGaren %1,2ko superabita %3,8ko defizita bihurtu zen (administrazio autonomoaren kasuan, %2,5eko superabit batetik %4,3ko defizitera).


Kontuan hartu behar da, krisi ekonomikoaren eraginez diru bilketa oso nabarmen gutxitu zela 2008ko kopuruaren aldean, urte hartako 12.835,1 milioietatik 2009ko 10.795 milioietara. Beraz, %15,9ko jaitsiera gertatu zen. Beherakada hori ekarpenetara hedatu zen. Hain zuzen ere, ekarpenek aurreikusi gabeko murrizketa izan zuten eta aurrekontuetan 8.848,6 milioi euro espero baziren, ezagututako eskubideak 7.080 milioi euro izan ziren, aurreikusitakoaren aldean 1.768,6 milioi direlarik. Halako desoreka garrantzitsu baten ondorioa zorraren gehikuntza izan zen. 2008ko amaieraren eta 2009aren artean, zorra 1.656 milioi eurotan hazi zen, 1.007 milioietatik 2.663 milioi euroetara igaro zelako.

#### *Zerga baterakuntzako fasea (2009-2013).*

2010etik aurrera, Europan zor publikoa finantzatzeko gero eta zailtasun handiagoak zeuden testuinguru batean eta zorpetuen zeuden ekonomiei gero eta interes tasa altuagoak eskatuz, 28 kidetako Europar Batasunak zerga politika aldatu zuen eta baterakuntza fiskaleko prozesu bati ekitea erabaki zuen, finantza inbertitzaileen konfiantza berreskuratzeko. Politika ekonomikoaren biraketa horrek zikloaren aldeko izaera garbia hartu zuen, defizit publikoaren jaitsiera azkarra lehenetsi zuelako, gastu publikoan murrizketa garrantzitsuak eginez eta zergak igotzen, ekonomia jarduera oso bizkor jaisten ari zen testuinguru batean. Horiek horrela, bigarren atzeraldia iritsi zen, guztiz europarra izan zena, eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan gastu publikoa BPGarekiko puntu bat eta erdi jaitea ekarri zuena.

Etap horretan, gastuaren murrizketa orokorra izan zen, salbuespena zorra izan zen, BPGan zuen pisua 0,5 puntu handitu baitzuen, neurri handi batean interesen gastuak handitu zirelako, bai interes tasak krisiaren urteetan altuagoak zirelako bai zorraren maila lau urte horietan zazpi puntu igo zelako, BPGaren %10,9ra iritsi arte. Orobat, eta egokitzaile automatiko izaera duelako, DSBEn gastua ere handitu zen (2009tik 2013ra doan epealdian, 145 milioi eurotan igo zen gastua) eta baita gizarte sustapenean eginikoa ere, 2010ean enpleguaren politika aktiboaren eta enplegurako lanbide heziketaren eskuduntzak bereganatu zirelako.

**Eusko Jaurlaritzaren gastuaren bilakaera. 2007-2018. BPGaren %**  
65. irudia




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Osasungintzak gastu erreal guztiaren heren bat bereganatzen du. Urte horietan, bere pisua 0,3 puntu jaitsi zen, zeren eta BPGaren balioa ia berdina zen arren, 2013an 2009an baino 252 milioi euro gutxiago gastatu baitzen atal horretan. Beste aldetik, hezkuntza da, bolumenean neurtuta, bigarren funtzio garrantzitsuena eta guztizkoaren laurdena inguru bereganatzen du. Funtzio horren pisua 0,6 puntu jaitsi zen (370 milioi inguru). Doikuntza horiek garrantzitsuak diren arren, zerbitzu horien ezaugarriek, enplegu asko erabiltzen baitute, eta beraien kalitateari eusteko nahiak inbertsioetara eraman zuten aurrekontu doikuntza, hautazkoagoak direlako, epealdi horretan 0,8 puntu jaitsi baitziren, gastu arruntak puntu erdi bat murriztu ziren bitartean.

Beste aldetik, azpiegituretan eginiko gastua Euskal Y-aren kudeaketak zeharo baldintzatu zuen. Berau ez bada kontuan hartzen, azpiegituretan eginiko gastua erdira jaitsi zen 2010etik 2013ra bitarteko epealdian. Gauza bera gertatu zen ikerketarako eta etxebizitzarako gastuekin ere, nahiz eta azken kasuan, politikaren zati bat sozietate publikoen bitartez bideratzen den eta horiek 2010etik beren partaidetza handitu dute etxebizitzaren politikaren gastuan.

**Eusko Jaurlaritzaren gastuen banaketa funtzionala. 2007-2018. Banaketa portzentuala 66 irudia**



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

**Susperraldi fasea (2014-2018).**

BPGaren eta enpleguaren susperraldia eta hazkundearen finkatzea 2014an hasi zen, baterakuntza fiskaleko norabidea malgutu zelako eta EBZk moneta politika 2012an aldatu zuelako, orientazio nabarmen hedapenerako baterantz. Arrazoi horiei esker, gastua areagotu zen eta arlo publikoa finantzatzeko baldintzak hobetu ziren.

2014tik aurrera, Gobernuaren gastuaren gutzizkoak beheranzko joera atzean utzi zuen eta BPGaren %14,6aren inguruan egonkoritu zen. Aldaketa horretan, azpimarratu behar da zor publikoak hazkunde nabarmena izan zuela epealdi horretan ere, zeren eta 2013an BPGaren %0,6 izatetik 2018an %1,2 izatera igaro baitzen. Gehikuntza horren ondorioz, gainontzeko politikentzat geratu zen tarte txikiagoa izan zen.

Gehikuntza hori konpentsatuta geratu zen, neurri batean, beste funtzio batzuen jaitsierekin, hala nola segurtasunean, 2009an hasitako beheranzko joerari jarraituz, eta gizarte inklusioan. Azken honen gastua 2016an hasi zen jaisten, ekonomiaren eta enpleguaren susperraldia egoera okerreanean zeuden pertsonen beharrei erantzuna ematen hasi zenean. Hala ere, gastu hori gaur egun krisiaren aurreko urteetako mailen gainetik dago. Osasunak eta hezkuntzak ere pisua galdu dute suspertzeko etapan, baina krisiaren aurreko urteekin alderatuta, apur bat gainetik dago. Halere, lehenengoaren kasuan adierazi behar da farmaziaren kapituluan aurrezki garrantzitsua lortu zela, 2008tik 2018ra bitartean 110 milioitan jaitsi zelako.

#### *Krisiari egokitzea eta horren ondorioak*

Laburbilduz, hamarkada luze horretan (2007-2018) Gobernuak gastua handitu du (1,8 puntu) eta beraren funtzioak berrantolatu da. Antolaketa berri horretan, zorrari bideratutako gastuak pisua irabazi du (1,5 puntu), 2014 arte interes tasak igo zirelako eta krisia hasi zenetik amortizazioa etengabe gehitu zelako. Ikus daitekeenez, zorraren hazkundeak gastuaren igoera ia guztia bereganatu du. Izan ere, eskuduntza berdinak edukitzekotan, eta kontuan hartuta enpleguaren politika aktiboek eta enplegurako lanbide heziketak gastuaren 0,3 bereganatzen dutela, ondorioztatzen da 2018ko aurrekontu erreala, bolumenean, 2008ko aurrekontuaren tamainakoa dela.

Hori horrela izanda ere, bolumenean dagoen berdintasun horrek aldaketa esanguratsua dauka barnean politikei dagokienez. Oinarrizko beharrak asetzeko orduan arazoak dituzten lagunen kopurua igo izanak DSBEn gastua gorarazi zuen eta ekonomia suspertu bada ere, funtzio horren pisua 2018an (0,6 puntu) krisiaren hasierakoa (0,3) halako bi da. Osasungintzak ere pisua irabazi du (0,4) biztanleriaren zahartzeak eskaria handitu duelako eta hobekuntza teknologikoek gastu gehiago eskatzen dutelako. Orobat, hezkuntzak ere zertxobait (0,1) handitu du pisua. Aitzitik, pisua galdu duten funtzioen artean, babes zibila (0,2) eta azpiegiturak (0,2) aipatu behar dira.

Ekonomiak 2016an berreskuratu zuen krisiaren aurrean zeukan BPGaren maila, baina aurrekontuak bi urte beranduago, 2018an, lortu zuen; baina ez 2008an zeuden baldintza beretan. Alde batetik, krisi luzean zehar galdu ziren diru sarrerek jadanik ezin dira berreskuratu eta, horren ondorioz, egin ez ziren gastuak ere ezin dira orain egin. Are gehiago, gastuaren arauak hazkundera ezarri duen mugak ezinezko egingo luke. Beste aldetik, pertsonen beharrak gizarte babesaren terminoetan DSBEn bitartez asetzea eta, nagusiki, osasuneko eta hezkuntzako oinarrizko zerbitzuak eskaintzea

lehenetsi diren gastuak dira. Horren ondorioz, soldaten ordainketetan eta inbertsioetan egin ziren sakrifizioak pixkanaka bakarrik berreskuratu ahalko dira, dagoeneko 2018ko ekitaldian eta, modu garbiago batean, 2019an gertatu denez. Zeren eta aurrekontua luzapenean egon arren, martxoan onartu ziren aurrekontu neurriek hobekuntza horiek ahalbidetzen zituzten aurrekontu proiektuaren egokitzapena ekarri zuten.

## 7. ARLO FINANTZARIOA

### 7.1 Moneta politika

2017ko azken hilekoetan finantza merkatuetan bizi zen egonkortasuna 2018ko apirila arte bakarrik luzatu zen. Erreserba Federalak esku hartzeko interes tasa igo zuenean, ezegonkortasuna areagotu zen. Hilekoz hileko, ezegonkortasun hori handitu zen, nagusiki tentsio politikoengatik eta neurri protekzionistak hartuko zirelako usteak eragin zuen beldurragatik. Hainbat faktorek kaltetu zituzten finantza merkatuak, hala nola Italian bizi zen krisi instituzionalak, Espainian pairatu zen zentsura mozioak, Brexitaren negoziazioek, Turkiako finantza zurrunbiloek, Argentinako ekonomiaren egoera txarrak eta AEBen eta beste eremu batzuen (Txina, Europa eta Mexiko) arteko merkataritza tentsioek.

Ziurgabetasunak eta zurrunbiloak etengabeak ziren arren, EBZk interes tasak %0,0an, aldatu gabe, uztea erabaki zuen. Maila horretan 2016ko martxoan utzi zituen eta ez du inolako aldakuntzarik aurreikusten gutxienez 2019ko amaiera arte. Moneta politikaren ezohiko neurriei dagokienez, abenduan amaitutzat jo zuen aktiboen erosketa, baina une horretan iragarri zuen moneta politikak oso egokitzaila izaten jarraituko zuela eta muga eguna iritsi ahala balore horiek berriro inbertituko dituela ziurtatu zuen, interes ofizialen lehen igoeraren ondoren ere.

Japoniako Bankuak ia ez zuen inolako arrakastarik izan inflazio helburua lortzeko bidean, bertako ekonomia oraindik suspertu ez delako. Hori dela eta, interes tasa oso apalak (%-0,1) eta aktiboen erosketa handia osatzen duten moneta politika gutxienez 2020 arte eustea erabaki zuen. Aldi berean, atzerriko ekonomien bilakaera eta bere herrialdean programatu den kontsumo zergaren igoera zainduko ditu. Erakunde horrek urtero 80 bilioi yeneko (640.148 milioi euro) balioa duten

bonuak erosten jarraituko du, baina erosketa erritmoa malgutuko du, merkatuaren baldintzen arabera. Txinako Banku Popularrak ere bere politika ekonomikoa aldatu gabe uztea erabaki zuen, nahiz eta herrialde horren hazkundearen sendotasuna zalantzan jarri den eta AEBekin merkataritza tentsioak dituen arren.

Erreserba Federala joera horretatik urrun hasi zen urtea eta 2018an politika normalizatzeko asmoei eutsi zien. Hain zuzen ere, Fedek lau aldiz igo zuen erreferentziako tasa 2018an, aldi bakoitzean 25 oinarri puntu, %2,25-%2,50 urkilan kokatu arte. Halaber, bere balantzearen murrizketa mailakatuari eutsi zion. Hala eta guztiz ere, erakunde horren ibilbide orria 2019ko lehen erdian aldatu zen. Une hauetan, 2019rako aurreikusita zeuden hiru igoerak baztertuta geratu dira. Are gehiago, esku hartzeko interes tasa jaisteko ideia mahai gainean dago. AEBetako ekonomia sendo garatzen ari da, baina hazkunde erritmoa apaldu da eta Donald Trumpen muga zergen gerrak hazkundea are gehiago kaltetu dezakeelako beldurra handitu da. Beraz, erakundea prest dago *behar den bezala jarduteko ekonomia hazkundeari eusteko*.

**Banku zentralen interes tasak**  
**36 taula**

	99-02	03-06	07-10	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Europako Banku	3,40	2,40	2,10	0,75	0,25	0,05	0,05	0,0	0,0	0,0
Erreserba Federala	3,75	3,18	1,25	0,25	0,25	0,25	0,50	0,75	1,5	2,5
Japoniako Bankua	0,30	0,20	0,30	0,1	0,1	0,1	0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Ingalaterrako Bankua	4,90	4,50	2,10	0,5	0,5	0,5	0,5	0,25	0,5	0,75
Txinako Bankua	---	---	6,1	6,00	6,00	5,60	4,35	4,35	4,35	4,35
Indiako Bankua	---	6,63	6,30	8,00	7,75	8,00	6,75	6,25	6,00	6,50
Brasilgo Banku Zentrala	---	16,4	11,25	7,25	10,0	11,75	14,25	13,75	7,00	6,5

Iturria: Europako Banku Zentrala, Reuters Agentzia eta Espainiako Bankua.

Brexitari buruzko ziurgabetasun handiko, libera debaluatuko eta inflazio altuko testuinguru batean, Ingalaterrako Bankuak esku hartzeko interes tasa %0,5etik %0,75era igo zuen abuztuan, ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko asmoz. Halaber, ekonomia sustatzeko programarekin jarraitu zuen, 445.000 milioi libera zor pribatuko eta, batez ere, subiranoko bonuen erosketara



bideratuz. Azaleratzen ari diren ekonomietan, banku zentral askok erreferentziako tasak igo zituzten, beraien truke tasen balio galeretatik inflaziorako eta finantza egonkortasunerako eratoritzen diren arriskuei aurre egiteko. Haietako batzuk Indiakoa (%6,50), Errumaniakoa (%2,50), Txekiar Errepublikakoa (%1,75), Mexikokoa (%8,25) eta Tuniziakoa (%7,75) dira.

Europar arriskua saihesteko une asko bizi ziren arren, zor subiranoko merkatuek 2018an eskuratu zituzten erregistroak 2017an lortutako en oso antzekoak izan ziren. Alde handiena merkatu italiarrak markatu zuen, herrialde hori zurrumbilo nagusien iturburua izan zelako. Iazko lehen erdian, gobernuaren osatzeko Italiak erakutsi zuen ezintasunak ziurgabetasuna areagotu zuen eta, harekin batera, arriskua saihesteko pasarte larri bat gauzatu zen, herrialde hartako arrisku saria goraraziz. Hain zuzen ere, Italiako arrisku saria 290 puntuetatik gora kokatu zen maiatzaren amaieran, 2013ko erdialdetik jaso duen baliorik gorena baita. Igoera hori ez zen inguruko herrialdeetara zabaldu eta Europako gainontzeko herrialdeetako arrisku sariak askoz gutxiago igo ziren. Alemaniako zorrak babes aktibo gisa jokatu zuen eta 10 urterako interes tasa 20 puntu baino gehiago jaitsi zen.

**10 urterako zor publikoaren errendimendua**  
**37 taula**

	Errendimendua (%)							Alemaniarekiko aldea (oinarri puntuak)						
	10-12	2013	2014	2015	2016	2017	2018	10-12	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Alemania	2,0	1,9	0,5	0,6	0,2	0,4	0,3							
Frantzia	2,8	2,4	0,8	1,0	0,7	0,8	0,7	80	49	30	36	47	35	46
Italia	5,5	4,1	1,9	1,6	1,8	2,0	2,8	338	215	134	98	161	157	252
E. Batua	2,4	3,0	1,8	2,0	1,2	1,2	1,3	35	110	122	133	103	76	102
<b>Espainia</b>	<b>5,3</b>	<b>4,1</b>	<b>1,6</b>	<b>1,8</b>	<b>1,4</b>	<b>1,6</b>	<b>1,4</b>	<b>326</b>	<b>220</b>	<b>107</b>	<b>117</b>	<b>119</b>	<b>114</b>	<b>117</b>
Irlanda	7,4	3,5	1,2	1,2	0,8	0,7	0,9	538	153	70	52	56	24	66
Portugal	9,1	6,0	2,7	2,5	3,8	1,9	1,7	710	410	215	191	357	151	147
Grezia	19,5	8,6	9,6	8,4	7,1	4,1	4,4	1.742	663	906	772	690	363	413
AEB.	2,3	3,0	2,2	2,3	2,5	2,4	2,7	25	109	163	164	224	198	244
Japonian	1,0	0,7	0,3	0,3	0,1	0,1	0,0	-109	-120	-21	-36	-16	-38	-25

Iturria. Espainiako Bankua.

Udako hilekoetan, periferiako herrialdeen errendimenduak hasi ziren suspertzen, baina berriro ere Italiak eta, neurri txikiagoan, azaleratzen ari diren herrialde batzuek, bereziki Argentinak eta Turkiak, ziurgabetasuneko mailak gorarazi zituzten. Leherrarazlea Italiak eta Europako Batzordeak aurrekontu italiarrei buruz akordio bat lortzeko erakutsi zuten ezintasuna izan zen. Horren ondorioz, zorraren interes tasek goranzko presio altuak ezagutu zituzten eta burtsen kotizazioak, berriz, jaitsi ziren. Hain zuzen ere, Italiako arrisku saria 333 puntuetara igo zen eta espainiarra zein greziarra harekin eraman zituen. Merkatuek baikortasunez jaso zuten Italiak eta Europako Batzordeak lortu zuten akordioa eta arrisku sariak gutxinaka jaitsi ziren. Halaber, interes tasa egonkorreko eszenategi batean, bund alemaniarraren errentagarritasuna murriztu zen (abenduan %0,25ean kokatzera iritsi zen, 2017ko otsailetik izan duen baliorik txikiena) eta horrek ere lagundu zuen arrisku sariak jaisten. Beraz, 2018an, herrialde gehienetan, arrisku sariak 2017an jaso ziren mailen antzeko zenbakietan kokatu ziren.

Europatik kanpo, zor estatubatuarraren arrisku saria, bonu alemaniarraren aldean, 271 puntutan kokatu zen azaroan. Geroztik 236 puntuetara jaitsi zen. Horren ondorioz, errentagarritasuna %3,1aren inguruan egon zen, 2011tik jaso duen baliorik handiena baita.

## 7.2 Truke tasak


Dibisen merkatuari dagokionez, benetako truke tasa nominalaren terminoetan, hau da, Euroguneko 38 merkataritza bazkide nagusien diruekin euroak dituen batez besteko truke tasa haztatuan neurtuta, euroak %99,0an itxi zuen urteko balantzea, 2014tik jaso duen emaitzarik onena baita. Hala eta guztiz ere, joera hori ez zen urte osoan zehar mantendu. Izan ere, europar diru bakarrak iazko lehen hilekoetan lortu zuen balio irabazi garrantzitsuari esker lortu zuen urte osoko emaitza hori, zeren eta ondorengo hilekoetan euroak balioa galdu baitzuen dibisa nagusi batzuen aldean.

Izan ere, euroak dolarraren aldean izan zuen truke tasak azken hamarkadako baliorik txikiena jaso zuen 2016ko abenduaren 28an, egun horretan 1,04 dolar erosten zirelako euro batekin. Geroztik, euroaren balioa %15,3 igo zen 2017an. 2018ko lehen hilekoetan, goranzko joerak aurrera egin zuen eta otsailaren 15ean 1,25 dolarren ingurura hurbildu zen. Hilabete eta erdiko epe laburrean, beste %4,2 gehiago irabazi zuen. Euroguneko moneta politika normalizatuko zelako igurikimenez, Alemanian gobernu osatzeko negoziazioetan lortu ziren aurrerapenek eta Europako adierazle makroekonomikoen bilakaera onak euroaren kotizazioa dolarraren aldean sendotu zuten. Harez geroztik, euroak zertxobait zuzendu zuen pilotutako balio irabazia, dolarraren aldean bere balioaren ia %5,0 galduta, 2018an 1,13 dolar euro bakoitzeko ordaindu arte. Fedek moneta politika gogortu


izanak eta herrialde hartako datu makroekonomiko onek dolarraren balioa dibisa nagusien aldean indartu zuten. Aldi berean, Italiarekin piztu ziren tentsioek eta Euroguneko jardueraren adierazleak erakutsi zuten emaitza apalek eragina izan zuten euroaren kotizazioan.

**EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko 67 irudia**


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera esterlina



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.

Merkataritza gerrak hazkunde globalean izan zitekeen eraginak kezka sortu zuen inbertitzaileen artean eta horrek errenta aldakorreko salmenta ugari ekarri zituen, yena babes diru gisa hartuz. Mugimendu horrek dibisa japoniarrari bultzada eman zion dolarren (%4,0tik gorakoa) eta euroaren (%7,6) aldean. Libera esterlinari dagokionez, Brexitari buruzko ziurgabetasunak diru horren kotizazioa kaltetu zuen, parlamentu britainiarren bozketen arabera gorantz edo beherantz mugitu baitzen. Azaleratzen ari diren ekonomiei dagokienez, euroak balioa nabarmen irabazi zuen, diru gehienek aldean, baina bereziki Txinako yuanaren aldean eta, barneko faktore kaltegarrien ondorioz, libera turkiarraren eta peso argentinarraren aldean.

### 7.3 Baloreen merkatua

Interes tasa apaleko testuinguru batek hainbat urtez lagundu eta babestu ondoren, burtsek hegakortasunaren igoera nabaritu zuten. Martxoan hasi ziren lehen jaitsierak, AEBen eta Txinaren arteko merkataritza tentsioen gogortzearekin lotuta. Apirilean ere behera egin zuten, Trump administrazioak muga zergak handituko zituela iragarri zuelako. Maiatzean, Espainian eta Italian bizi zen ziurgabetasunak burtsak amildu zituen, bereziki Europakoak. Udako hilekoetan, Europako burtsek behera egin zuten berriro, kasu horretan politika italiarraren inguruan sortu zen ziurgabetasunaren ondorioz. Aitzitik, AEBetan, kontinente zaharreko zurrunbiloetatik oso urrun, errenta aldakorrek maximo historikoak lortu zituen berriro. Urria arte itxaron behar da adierazle amerikar nagusiek kalteak jasaten hasi zirela egiaztatzeko. Hileko horretan, AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gatazkak hegakortasuna oso nabarmen areagotu zuen.

Izan ere, galerak iritsi ziren burtsa estatubatuarretara eta arriskua saihesteko sentimendua ekarri zuten berekin, nazioarteko burtsa gehienei ere kalte egin ziena. Are gehiago, European, ekonomia hazkunderen datu etsigarri samarrek, bereziki Alemanian eskuratutakoek, eta Italiaren eta Europako Batzordearen artean, politika fiskal italiarraren inguruan, sortu ziren tentsioek indizeak kaltetu zituzten. Azaroan, AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gerran hauteman ziren hurbiltzeko seinaleek eta Brexitaren negoziazioetan hasierako akordio bat lortu izanak gorantz eramane zituzten indizeak eta galdutako eremuaren zati bat berreskuratu zuten. Hala eta guztiz ere, hobekuntza horrek ez zuen luze iraun. Abenduan, Fedek interes tasak igo zituen eta gobernu estatubatuarra partzialki itxita egon zen. BI gertakari horiek arriskua saihesteko nahia areagotu zuten eta indizeak balio negatiboetara eramane zituzten.

Adierazle estatubatarrek %6,0 galdu zuten, gutxi gorabehera, eta Euroguneko galerak %14,0tik gorakoak izan ziren. Alemaniako burtsak nabaritu zuen kolpea gehien eta bertako Dax indizeak %18,26 galdu zuen. Ondoren, Milaneko burtsa (%16,15) eta espainiarra kokatu ziren. Zehazkiago azalduta, Ibex 35ek ia %15,0ko galerak izan zituen 2018an, 2010etik, urte hartan %17,4ko jaitsiera izan zuen, jaso duen emaitzarik txarrena baita. EAEko enpresei dagokienez, Ibex 35ean kotizatzen duten hogeitaz enpresetatik zazpik bakarrik lortu zuten balioa irabaztea 2018an. Buruan Iberdrola kokatu zen, ondoren Másmovil, Faes Farma, Caf, Euskaltel, Iberpapel eta Solarpack daudelarik.

Wall Streeteko bolada txarra merkatu asiarretara ere luzatu zen. Tokioko Nikkei 225 indizea %12,0 baino gehiago jaitsi zen eta Txinako burtsaren beherakada %24,6ra iritsi zen. Azkenik, azaleratzen ari diren herrialdeak kaltetuenak izan ziren. AEBetako interes tasen igoerari eta dolarraren sendotasunari protekzionismoaren aldeko joerak eragin zuen beldurra gehitu behar zaio. Halaber, aurreko guztiari erantsi behar zaio Turkiako eta Argentinako desoreka ekonomikoek eragin zuten ezegonkortasuna, gainontzeko herrialdeak kutsatu zituena eta azaleratzen ari diren ekonomietako burtsak, modu orokor batean, kaltetu zituena. Zehatz-mehatz kontatuta, MSCI burtsa indizea %8,0 baino gehiago jaitsi zen.

#### **7.4 Aurrezkia, kredituak eta gordailuak**

Krisia hasi baino lehen, EAEko barne aurrezki gordina 18.400 milioi euroren inguruan kokatu zen. Krisian zehar, langabeziaren gorakada garrantzitsuak, kreditua lortzeko zailtasunek eta ekonomia eragile askok zuten zorgabetzeko beharrak aurrezkiak erabiltzera behartu zituen eragile horiek. Hori horrela izanda, 2013an barne aurrezki gordina 13.900 milioi euroetara murriztu zen. Harez geroztik, ekonomiak hobera egin du eta EAEko eragileek berriro areagotu zuten beren aurrezteko erritmoa.


2014tik aurrera, ekonomiaren egoerak hobera egin zuen eta hasieran, igaro berria zen krisiaren zailtasunak oso hurbil oraindik, EAEko eragileek aurrezkien maila areagotzea erabaki zuten. Hala eta guztiz ere, susperraldia finkatzen ari zen heinean, aurrezki mailaren igoera leundu zen. Lan merkatuaren hobekuntzak eta enplegu bat lortzeko eta mantentzeko aukeren hobekuntzak zehazkiago aurrezki gutxitzea ekarri zuten berekin. Beste aldetik, lan errenten eta konfiantzaren gehikuntzak kontsumoa indar handiz bultzatu zuen. Ekonomiaren egonkortasun handiagoak krisian zehar geroratu ziren gastuak orduan egitea ahalbidetu zuen, bereziki kontsumo iraunkorreko ondasunenak eta etxebizitzarena. Orobat, krisiaren aurrean zeuden interes tasa altuek bereziki

errentagarri egin zituzten banku gordailuak, baina gaur egun interes tasa horiek %0,0aren ingurukoak dira. Beraz, haietan inbertitzea ez da bat ere erakargarria.


EAEko eragileek ere bat egin zuten joera horiekin eta badirudi hasi direla krisian pasa ziren estualdiak ahazten eta ez du ematen prest daudenik aurrezki maila handitzeko. Hain zuzen ere, barne aurrezki gordinaren tasa %3,1 hazi zen 2018an, hots, 2017an baino hiru hamarren gutxiago eta 2016an izan zuen %7,2ko gehikuntzatik urrun. Hala eta guztiz ere, barne aurrezki gordina 17.000 milioi euroen inguruan kokatu zen.

**Barne aurrezki gordinaren eta etxebizitzaren prezioen bilakaera**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**  
**68 irudia**

Barne aurrezki gordina



Etxebizitzaren prezioak




Iturria: Eustat, ELGE eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EBZk finantzaziorako eskatzen dituen baldintzak onak izan arren, lan merkatuak hobera egin duen arren eta enpresei zein familiei zuzendutako maileguen onarpenerako irizpideak lasaiagoak diren arren, kredituen bilakaerak beheranzko joerari jarraipena eman zion eta 2018an are gehiago jaitsi zen, %3,4ko beherakada batekin. Azken jaitsiera horrek zorpetze maila 2018an ere murrizteko aukera eman zuen. Hain zuzen ere, kredituen guztizkoa, 2018an, BPGaren %89,4 izan ziren, hau da, 2002tik (%89,9) jaso den portzentajerik txikiena. Murrizketa hori lortzeko, EAEko familiek eta


enpresek ahalegin handia egin behar izan zuten onbideratze aldera eta, zortzigarren urtez jarraian, zorpetze maila gutxitu zuten. Zehazkiago adierazita, kreditu pribatuak %4,6 murriztu ziren eta ia 61.319 milioi euroetara iritsi ziren, 2005etik inoiz jaso den mailarik apalena baita. Diru kopuru horrek adierazten du familien zorpetze maila 2008an zegoena baino %28,2 beherago zegoela 2018an. Beraz, sektore pribatuak ia 24.100 milioi eurotan murriztu du bere zorra azken hamar urteko epealdian.

**Kredituen eta gordailuen alderaketa. BPGaren %  
69 irudia**

Kredituak guztira eta gordailuak guztira (BPGaren %)



Kreditu pribatuak eta publikoak (BPGaren %)




Iturria: Espainiako Bankua, ELGE eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Arlo publikoaren kreditu biziak, berriz, %8,1 handitu ziren 2018an. Hala eta guztiz ere, kasu horretan arreta berezia merezi du hiruhilekoen bilakaerak, zeren eta hazkunde sendo hori iazko lehen sei hilekoetan zorpetzeak izan zuen gorakadak azaltzen baitu, bigarren erdian guztiz kontrako joera hauteman zen bitartean. Hain zuzen ere, 2018ko bigarren hiruhilekoan 8.440 milioi euroko langa gainditu ondoren, inoizko kopururik gorena baitzen, urte amaieran zegoen zorra 7.149 milioi eurokoa zen. Dena dela, oraindik bide luzea dauka egiteko krisiaren aurreko mailetara itzuli arte, garai hartan zorpetze maila BPGaren %2,0aren inguruan egon zelako.


Zorpetzeko joera hori baieztatuta geratu da Espainiako Bankuak argitaratu dituen datuekin. Izan ere, berankortasuneko tasa %5,82an kokatu zen 2018an. Beraz, berankortasuneko tasak 2013ko abenduan markatu zuen inoizko tasarik gorena (%13,6) baino 7,78 puntu beherago kokatu zen 2018ko amaieran.

### Kredituen bilakaera 70 irudia


Arlo publikoari emandako kredituak. Aldakuntza tasak



Arlo publikoari emandako kredituak. Milioi euro



Arlo pribatuari emandako kredituak. Aldakuntza tasak



Arlo pribatuari emandako kredituak. Milioi euro



Iturria: Espainiako Bankua.



Bankuak 2008an %5,0tik gorako errentagarritasuna eskaintzera iritsi ziren urtebete baterako epe finkoko gordailuetan. Geroztik, EBZk sartu zuen likidezia ugari eta merkearen eta interes tasak %0,0ra arte jaitsi izanaren ondorioz, bankarentzat erakunde jaulkitzailearen bitartez finantzatzea doan bihurtu zen eta, horri esker, ez zitzaion beharrezkoa izan ordaintzea gordailuetako diruaren truke. Horren frogagarri, Mario Draghik 2012an iragarri zuenetik beharrezkoa zen guztia egingo zuela zor subiranoko krisiarekin amaitzeko eta Euroguneko ekonomia suspertzeko, Espainiako gordailuen batez besteko ordainketa garai hartako %2,90etatik 2018ko amaieran ordaindu zen %0,05era murriztu zen.

**Gordailuen bilakaera**  
**38 taula**

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2008-2018 arteko aldea	
							Mila €	Tasak
<b>Guztira</b>	<b>2,5</b>	<b>-2,0</b>	<b>3,3</b>	<b>1,9</b>	<b>4,7</b>	<b>2,3</b>	<b>5.174</b>	<b>6,8</b>
Gordailu publikoak	5,0	6,1	3,0	-0,2	11,2	36,6	-1.326	-23,1
Gordailu pribatuak	2,4	-2,3	3,3	2,0	4,4	0,9	6.500	9,2
Ageria eta aurrezkoa	4,6	7,0	18,2	15,4	20,9	6,6	35.062	129,9
Epera	0,5	-10,3	-12,0	-16,6	-27,3	-17,3	28.562	-65,5

Iturria: Espainiako Bankua.

Gordailuei eman zitzaien errentagarritasun ia hutsalaren ondorioz, inbertsioak desbideratu ziren eta eperako gordailuetatik inbertsio funtsetara igaro ziren, azken produktu horrek errentagarritasun handiagoa eskaintzen zuelako. Hala ere, burtsa merkatuen amiltzeak –inbertsio funtsek 2018an %-4,8ko errentagarritasuna eskaini zuten, batez beste- dirua berriro gordailuetara itzultzea eragin zuen. Finantza produktu horren bitartez, ez zen interes handirik eskuratzen, baina inbertitutako kapitala eta errentagarritasuna bermatuta zeuden.

Horiek horrela, Espainiako Bankuaren arabera, 2018an, EAEko eragileen gordailuen bolumenak, lehenengo aldiz, 81.517 milioi euroko langa gainditu zuen, 2017an lortutako diru kopurua %2,3 gaindituz. Zehazkiago, gordailu pribatuak %0,9 hazi ziren, ageriko eta kontuko gordailuek bultzatuta, %6,6 areagotu zirelako. Eperako gordailuei dagokienez, horiek behera egin zuten berriro. Finantza produktu horrek ez du lortu hazkunde positiboak berreskuratzea 2014ko

hastapenetik. Izan ere, urtean zehar EAEko eragileek 3.158 milioi euro baino gehiago atera dute eperako produktuetatik. Are gehiago, alderaketa 2008ko amaieran produktu horietan inbertituta zegoen guztizkoarekin egiten bada, 28.561 milioi eurotik gorakoa da atera duten kopurua.

### 7.5 Familien finantza egoera


EAEko higiezin merkatuak bost urte pilatu ditu etengabeko hazkundera lortzen. Sustapen Ministerioak argitaratu dituen estatistiken arabera, EAEn 23.170 eragiketa inguru jasota geratu ziren. Horiek horrela, higiezin sektoreak bost urte eman ditu igoerak kateatzen, nahiz eta hazkunde erritmoa moteltzen hasi zen, 2014an jaso zen %30,5 hartatik 2018ko %10,8ra. Ekonomiaren hobekuntzak eta enpleguaren bultzadak eskaria berriro aktibatu zuten eta prezioak gorantz eraman zituzten. Izan ere, INEren arabera, etxebizitzaren salneurria %5,0 hazi zen 2018an. Hala eta guztiz ere, erregistro hori 2017an kontabilizatu zena baino ia bi puntu apalagoa izan zen eta Estatuan 2018an jaso zen %6,6 baino txikiagoa.

#### Etxebizitzaren hipoteken bilakaera. Mila 71 irudia

Formalizatutako hipoteken batez besteko zenbatekoa



Formalizatutako hipotekak




Iturria: INE.


Azken urteetan, ekonomiaren susperraldiak eta bankuek hipotekak baldintza erosoagotan emateko jokaerak merkatua irauli dute eta familiak etxebizitzak erosteari ekin diote berriro. Espainiako Bankuak bankuen maileguez egiten duen inkestak horixe baieztatzen du, zeren eta 2018an jaso baitzuen etxebizitza bat erosteko familiek bideratu zuten kreditu eskaerak gora egina zuela. INEK formalizatutako hipotekez argitaratu dituen datuek ere joera hori egiaztatzen dute. Hain zuzen ere, 2018an EAEn 17.571 hipoteka sinatu ziren, aurreko urteko epe berean adostu zirenak baino %4,6 gehiago. Gehikuntza tasa hori are handiagoa izan zitekeen 2018ko amaieran ziurgabetasuna piztu ez balitz. Izan ere, hipoteken egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga norik ordaindu behar zuten ez zen garbi geratu. Hori dela eta, hipoteka askoren sinadura bertan behera eta atzeratuta geratu ziren, ebazpena jakin arte.

### Interes tasen bilakaera 72 irudia

12 hileko euriborra



Hipoteken interes tasak



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Euriborrak, berriz, goranzko joera leun bati eutsi zion urte osoan zehar. Urtarrilean %-0,189ko interes tasa batekin hasi zen eta abenduan %-0,129ko mailara iritsi zen. Bazirudien, interes tasa negatiboan aroa amaitzeaz zegoela. Hala eta guztiz ere, 2019ko lehen hilekoetan euriborrak beheranzko norabideari ekin dio berriro. Paradoxikoki, eta euriborrak gora egin zuen arren, onartutako hipoteken artean, aldaketa bat gertatu zen. Azken urteetan, goranzko joera etengabea erakutsi ondoren eta 2017an inoizko baliorik gorena jaso eta gero, tipo finkoko edo mixtoko interes


tasaren pisuak behera egin zuen 2018ko formalizazio berrietan. Izan ere, Kutxabank-ek eta Servicios Vascos de Tasaciones (Servatas) enpresak lankidetzan urtero ateratzen duten azterlanaren arabera, iaz EAEn onartu ziren hipoteka eragiketa guztien %36,0 interes tasa finkokoa edo mixtokoa izan ziren, 2017an %43,0 izan ziren bitartean.

### 7.6 Gizarte aurreikuspena


Inbertsio zorroen errentagarritasunak eskaini zuen portaera txarrak, burtsen gorabeherak, eta, batez ere, interes tasa apalek eraginda, EAEko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak (BGAE) ondarearen hazkundera galgatu zuen 2018an. Bederatzi ekitalditan etengabe gora egin ondoren, EAEko pentsioen funtsen bolumena %3,3 jaitsi zen. Aurrezteko formula hori EAEn duela hiru hamarkada abiatu zenetik izan duen bigarren jaitsiera da. Lehenengoa 2008an gertatu zen, ekonomiaren krisi sakonak eztanda egin zuenean. Oraingoa sistemaren zahartzapenari lotuta dago, berau gutxi hazten deneko testuinguru batean.

#### Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) 73 irudia

Ondarea



Ekarpenak eta prestazioak



Iturria: Euskadiko Gizarte Emendiotarako Borondatezko Erakundeak Baterakuntza.

Galga hori gertatu zen arren, ondarearen diru kopurua 24.032 milioi euroetara iritsi zen. EAEko BPGaren %31,4aren baliokidea baita. Portzentaje hori Estatuko sistemek ordezkatzeko dutena (%9,5) baino askoz ere altuagoa da, baina ez da iristen Euroguneko batez bestekora (%36,5). Prestazioek, berriz, 886 milioi eurotik gorakoak izan ziren, hots, 2017koa baino %6,0 gehiago. Horrek esan nahi du erakunde horiek bazkide onuradunei 4.450 milioi euro baino gehiago eman dietela azken bost ekitaldietan. Aitzitik, bazkideen ekarpenak %3,3 bakarrik handitu ziren eta 796 milioi euroetara iritsi ziren. Beraz, sistemak, seigarren urtez jarraian, gastu (prestazio) gehiago izan zituen sarrerak (ekarpenak) baino.

Azkenik, bazkideen kopuruak, kontuen kopuruan neurtuta, hazkunde positiboak berreskuratu zituen, hiru urtez etengabeko jaitsierak izan eta gero. Suspertze hori enplegu ataleko bazkideen hazkunde garrantzitsuari esker lortu zen, zeren eta bai elkartekideak bai banakakoak berriro murriztu baitziren. Hain zuzen ere, bazkideen kopurua %1,1 hazi zen, ohikoa izan denez, milioi bat eta ehun mila kontuen maila gaindituz.